Goienkaria

2006ko ekainaren 30a > Egubakoitza > VI. urtea > 250. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Gero eta gazte gehiago inguratzen ari da lehen sektorera"

Rafael Uribarren Diputatua > 09

G2a Udako gauetako kultura emanaldiak > 43

BAKEAZ JARDUNALDIAK Hizlari ospetsuak egongo dira Arantzazun datorren astean > 05

ESKORIATZA Eskoriatzako geltoki zaharra gazteendako egokituko dute > 34

JAIAK San Martin jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aramaion > 40-41

LEGEDIA > PUNTU BIDEZKO GIDABAIMENA INDARREAN BIHAR, ZAPATUA

Puntukako gidabaimenaz zalantzak dituzte gidari askok

ZAPATUTIK Uztailaren 1a ezkero, gidari guztiek 12 puntuko saldoa izango dute; hasiberriek, zortzikoa

KRITIKOAK Gidari profesional askok uste dute kalte egingo diela, eta ez daude ados arauak ezartzen duen parekatzearekin

LAGUNTZA Beste erabiltzaile eta aditu batzuek uste dute hobeto ibiltzen lagunduko duela gidabaimen berriak > 02-03

SEI LANGILE Argazkiko sei lagunek egingo diete harrera herritarrei eguaztenetik aurrera. IKER BARANDIARAN

Biztanleen Arreta Zerbitzua inauguratu berri dute Arrasaten

Herritarrendako zerbitzu berria inauguratu zuten atzo, eguena, Arrasaten: Biztanleen Arreta Zerbitzua. Maisu Arano kalean dago bulegoa.

Udalarekin egin beharreko gestio guztiak bulego horretatik bideratuko dituzte: obra baimenak, errolda ziurtagiriak, eskaerak, Udalarentzako idatziak... Foru Aldundira edo Jaurlaritzara bidali beharreko idatziak ere handik bidaliko dituzte.

Argazkian, inaugurazio ekitaldiaren une bat ikusten da. > 18

OÑATI > JAIALDIA

Etorkinak omenduko dituzte

Moraleja, Macotera eta Valtierrako ordezkariak etorriko dira asteburuan > 05

EKONOMIA > ARCELOR

Mittal-ekin akordioak kezkatuta

Arcelorren egoerak okerrera egin dezakeela uste dute langileek > 06

ARRASATE > GELMA

EAk udal gobernua utz dezake

Arrasateko Eusko Alkartasuna alderdiak esan du udal gobernua utziko duela, baldin eta Gelmako etxebizitzen harira sortutako arazoak eta egoera nahasia ez badira 15 eguneko epean konpontzen.

Bestetik, Alderdi Popularrak alkatearen dimisioa eskatu du. > 19

AURKIBIDEA

Debagoiena > 05-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-41
Kirola > 42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

LEGEA > PUNTUKAKO GIDABAIMENA BIHAR, ZAPATUA, JARRIKO DUTE INDARREAN

Puntu sistemak kalte egingo diela diote profesionalek

BERRIA Puntukako gidabaimena uztailaren 1ean ezarriko dute, eta 12 puntu izango ditu gidari bakoitzak

PAREKATZEA Ohiko gidaria eta noizbehinkakoa ia arlo guztietan parekatzea kritikatzen dute profesionalek

BERRESKURATU Puntuak eta baimena bera berreskuratzeko zentro bakarra izango da Debarroan, Aretxabaletan

ABIADURA Tarte honetan 95 km/h-tik gora joateaga

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Puntukako gidabaimena bertan dugu, eta Debagoienean ere ikusmin handia dago ekarriko dituen ondorioekiko. Gidari batzuk ere alde daude, eta kontzientziazio maila eta errespetua areagotu dituela esaten dute. Beste batzuk kritikoak dira, batez ere eten barik gidatzen dutenak, lanbidea horixe dutelako edo beste arrazoiren batengatik: horien iritziz, talde hori izango da kaltetuena, eta benetan errepidean kalte egiten dutenak ez ditu neurriak behar bezala zigortuko.

GIDARI GUZTIAK BERDIN

Arau-hauste jakin batzuk egiteagatik 2, 3, 4 edo 6 puntu galduko ditu gidariak. Horrez gain, behar den kasuetan, isuna ere ipiniko diote. 12 punturekin hasiko dira gidari guztiak; hasiberriak, 8 punturekin. Denak galtzerakoan, birgaitze eta sentsibilizazio ikastaroa egin beharko du baimena berreskuratu gura badu.

Arauak zehaztasun asko ditu, puntu galerez gain. Hala, sei urtean punturik galdu ez duen gidariak beste 3 irabaz ditzake. Horrez gain, 4 puntu berreskuratzeko ikastaroa egin dezake nahi duenak, bi urtean behin; profesionalen kasuan, urtero egin dezakete ikastaroa. Bihar, zapatua, ezkero, gidari guztiek puntu saldoa kontsulta dezakete *www.dgt.es* webgunean.

Gidabaimen berriak berdindu egiten ditu gidari guztiak ia arlo guztietan: hala, profesionalek neurri zorrotzago batzuk dituzte alkohol tasari, gidatzeko denborari… dagokienez, eta puntuak berreskuratzeko epeak laburragoak dira; baina puntu kopuru berbera dute, eta berdin-berdin kentzen dizkiete. Parekatze hori da, hain zuzen, eztabaida handien sortu duena: errepidean sarri ibiltzen denak eta astean behin ibiltzen denak berdin tratatzen dira.

Bestetik, galdetutako debagoiendarrek euren zalantzak dituzte sistema berriak benetan modu arriskutsuan edo burugabekeriaz gidatzen dutenak errepidetik kenduko dituen: gehienen iritziz, zigor gehien sarrien ibil-

Rafa Etxabe

AUTOETAN ADITUA

"Arazo sakona da, alkohola eta abiadura baino haratago doana"

Ez da hitz egiten errepideen kalitateaz, edo zergatik egoten diren askoz istripu gehiago asteburuetan astegunetan baino. Debagoienean, adibidez, berez oso labainkorrak diren tarteak daude.

Oso arazo sakona da, alkohola eta larregiko abiadura baino askoz haratago doana. Errepresioaren eta diru-bilketaren alde egin dute, eta askok negozioa aprobetxatuko dute.

Maruja Fernandez

TAXI GIDARIA

"Gehien gabiltzanok lehenago harrapatuko gaituzte"

Ez zait ondo iruditzen. Errepidean, denok egiten ditugu akatsak, eta gehien gabiltzanok lehenago harrapatuko gaituzte, nahiz eta kontuz ibili, astakeriak egiten doazenak baino askoz lehenago. Gu izango gara kaltetu handienak.

Nire ustez, poliziek ez dute zirkulazioa behar bezala zaintzen. Burugabekeriak egiten doazenak harrapatu behar dituzte.

Esteban Muruamendiaraz

GARRAIOLARIA

"Garraiolariari baimena kenduta, lanbidea kentzen diote"

Alde txarrak behintzat izango ditu. Edanda edo gaizki doanari baimena kendu behar zaio, baina ez puntuka, kendu eta kito baizik, baina puntuko sistemarekin, txikikeriak egiteagatik ere gal dezakezu baimena. Horrez gain, tokatzen zaizun ertzainaren arabera ere badago.

Zigorrak eragin desberdina du batean zein bestean: garraiolariari lanbidea kentzen diote.

Benigno Menor

GIDARIA ETA TXIRRINDULARIA

"Errespetu handiagoz gidatu behar dugula jabetzeko balioko du"

Gidari moduan, neurri ona iruditzen zait; errespetu handiagoarekin gidatu behar dugula konturatzeko balioko du, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten gaituen.

Txirrindulari moduan ere ondo dago. Orain ere, gidariek errespetatzen gaituzte, nahiz eta noizean behin arazoren bat egoten den. Hala ere, errespeturik ez duenak ez du izango txirrindulariekin ez beste inorekin.

sei puntu galduko ditu gidariak. XABIER URTZELAI

Puntu guztiak galduz gero, baimena berriz ateratzeko sei hilabete itxaron beharko dute gidari ez profesionalek

"Eskolara haserre etorriko dira asko, baina hona badatoz, esan nahi du gaizki dabiltzala", dio Karlos Larringanek

Arau-hausteak eta puntu galera

2 puntu

Zirkulazioarendako edo oinezkoendako arriskua sor dezakeen lekuetan aparkatzea.
Garraio publikoarendako bideetan gelditzea edo aparkatzea.
Radarrak detektatzeko edozein sistema erabiltzea.
Argirik gabe ibiltzea arauak agintzen duenean.
Motozikletan edo ziklomotoreetan 12 urtetik beherakoak eramatea.
Abiadura muga orduko 20 eta 30 km artean gainditzea.

3 puntu

Itzulbidea arauak bete gabe egitea.
Eskuko telefonoarekin edo arreta murrizten duten gailuekin gidatzea.
Aurreko ibilgailuarekiko segurtasun tarteari ez eustea.
Segurtasun uhalik gabe, kaskorik gabe edo beste nahitaezko segurtasun tresnarik gabe ibiltzea.
Abiadura muga orduko 30 eta 40 km bitartean gainditzea.

4 puntu

Autobideetan debekatuta dauden ibilgailuekin gidatzea.
Baimendutako bidaiariekin baino %50 gehiagorekin gidatzea, gidaria kontatu barik, hiriko edo hiriarteko autobusetan izan ezik.
Ibilgailu bat horretarako gaitzen ez duen lizentziarekin gidatzea.
Ezbeharrak eragin ditzaketen objektuak bidera botatzea.
Era zabarrean gidatzea, besteei benetako arriskua sorraraziz.
Lastertasun muga orduko 40 km-tan gainditzea, %50 baino gehiagora iristen ez bada.
Pasatzeko lehentasuna, gorri dauden semaforoak edo stop seinaleak ez errespetatzea.
Aurreratzeko arau orokorrak ez betetzea, aurkako noranzkoan doazenak arriskuan jarriz, edo gutxi ikusten den egoeratan aurreratzea.
0,25 eta 0,50 mg arteko alkohol tasarekin gidatzea (profesionalak eta hasiberriak, 0,15-0,30 bitartean).
Txirrindulariak arriskuan jarriz edo oztopatuz aurreratzea.
Atzera egiteko maniobra egitea autobideetan.
Zirkulazioko zaintzaileen seinaleak ez errespetatzea.
Aurreratzea zailtzen duten maniobrak egitea.

6 puntu

0,50 mg-tik gorako alkohol-tasarekin gidatzea (profesionalak eta hasiberriak, 0,30etik gora).
Psikotropiko, bizkorgarri eta antzeko substantzien eraginpean gidatzea, edo horiek antzemateko probak ez egin nahi izatea.
Era arriskutsuan gidatzea, aurkako norabidean ibiltzea eta baimendu gabeko lehiaketetan ibiltzea.
Baimendutako abiadura altuena %50etik gora gainditzea (muga gutxienez %30ean gainditzen bada).
Profesionalek gidatzeko emandako denbora %50 baino gehiago gainditzea, edo atseden denbora %50 baino gehiago gutxitzea.

Juanito Saizar

AUTOBUS GIDARIA

"Errepideak gehiago betetzea eta denbora luzeagoa galtzea dakar"

Ez da batere ona. Eraginkorra izateko, norberak gastatzen duen erregaiaren araberako puntuak izan beharko lituzke, adibidez. Gainera, gidariarengan erabakitzen duena goitik dator, eta ezin du egoera bakoitza ulertu.

Errepideak gehiago betetzea eta errepidean denbora luzeagoa galtzea ekarriko du neurriak: agudo doan gidari trebe batek motelago gidatu beharko du.

Joaquin Iturbe

OSO SARRI DABIL AUTOAREKIN

"1.000 zein 20 kilometro egiten dituztenei berdin eragiten die"

Ni neu asko ibiltzen naiz errepidean, eta egunero gabiltzanoi ez digu abantaila bat ere ekarriko, hutsegite txikiak izan ditzakegulako. Ez da gauza bera astean mila kilometro edo hogei kilometro egitea, baina araua berdina da gidari guztiondako.

Hori bai, edanda-eta gidatzen dutenak zigortzea, hori ondo iruditzen zait, errepidean buruarekin ibili behar da eta. tzen direnak jasoko dituzte, nahiz eta orokorrean ondo ibili, noizean behin arriskua sortzen dabiltzanak baino.

IBARREKO ESKOLA, LARRINGAN

Debagoieneko berezitasuna izango da gurean, Aretxabaletan, egongo dela puntuak eta baimena berreskuratzeko Deba ibar osoko eskola bakarra, Larringan. Hango ugazabak, Karlos Larringanek, begi onez ikusten du baimen berria: "Badakit batzuk oso haserre etorriko direla gurera, baina hona etorri behar izateak esan nahi du bidean gaizki dabilela gidari hori". Ikastaro horiek gidaria kontzientziatzeko izango dira: hala, psikologo batekin eta biktimen elkarte batekin ere egongo dira gidariak.

Erakundeak ere baikorrak dira, eta gidabaimen berriarekin EAEko istripuen beherako joera indartu egingo dela uste dute. EAEn, 93 heriotza izan ziren iaz; 1995-2004 bitarteko bataz bestekoa urteko 158 izan zen. Helburua da, gutxienez, milioi biztanleko 70 heriotzara jaistea, Erresuma Batuan edo Suedian bezala.

di-da batean

Leire Kortabarria

Zainketa egokiarekin, tresna ona izan daiteke

Errepideko segurtasuna oso kontzeptu zabala da: giza-faktorea, halabeharra, eguraldia... bezalako faktoreek osatzen dute. Torloju askoko makineria da, konplikatuegia araudi batek dena kontrola dezan. Bere gabezia eta guzti, puntukako gidabaimena neurri ona izan daiteke segurtasuna handitzeko, baldin eta errepideak behar bezala zaintzen badira, kontrolak behar den une eta lekuetan ipinita, eta egoera bakoitzari erreparatuta. Gaizki ibiliko gara arau-aplikatze hutsean geratzen bada eta erosotasunetik eta distantziatik ezartzen bada. Eta horrez gain, gidari ardurabakoak kontu handiagoz ibiltzeko ere balio badu –kontzientziagatik ez bada, baimena galtzeko beldurragatik–, ongietorri araua.

centro
salgai
945 12 80 60

Residencial Beroa-n azken etxebizitza, lokal eta garajeak. Aretxabaleta.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES eta EDESA etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

1.260 X 850 X 600 mm

A+

IZOZKAILU HORIZONTALA
Super-isolamendua CFS-126
Bolumena: 296L FAGOR
365 € 60.731 pta

BERMEA 2 URTE

1.850 X 598 X 590 mm

A

HOZKAILUA COMBI 4FAC495
345 € 57.403 pta aspes

BERMEA 2 URTE

A

ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140
199 € 33.111 pta aspes

BERMEA 2 URTE

1.000 b/min
6 kgr.

A+A

GARBIGAILUA 4L104
240 € 39.933 pta edesa



AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA
3000 KCL/orduko

BERMEA 2 URTE

230 € 38.268 pta

"RENOVE PLANA"

Ekainaren 15a ezkero
goiko 4 etxetresnetan

BERMEA 2 URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA ADR73
HOTZA ETA BEROA
3000 KCL/orduko
405 € 67,387 pta

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA - Bergara

MATRIKULA

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra



GOI MAILAKO ZIKLOAK

* Administrazio eta Finantzak
* Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
* Mekanizazio Bidezko Produkzioa *
* Proiektu Mekanikoen Garapena
* Plastiko eta Kautxugintza
* Goi mailako sarrera froga

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

* Mekanizazioa *
* Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa *
* Plastikoaren eta Kautxuaren Eraldaketa
* Administraritza Kudeaketa
* Erdi mailako sarrera froga

* Eskaintza partzialean baita ere.

lan etorkizuna gertuago duzu

943 76 24 91
943 76 38 40
www.imaltuna.com

AENOR ER Empresa Registrada ER - 0528/1998
CERTIFIED IQNet QUALITY SYSTEM 1998
Ekoscan ek MEJORA AMBIENTAL 2004
INVESTOR IN PEOPLE 2005
EXCELENCIA EUROPEA 2006

ELKARTASUNA > ASTEBURUAN DIRA EKITALDIAK

Oñatira kanpotik etorritako lagunak omenduko dituzte asteburuan

Moraleja, Macotera eta Valtierrakoak dira kanpotik etorritako gehienak

Domeka eguerdian jaki dastatzea eta artisau erakustaldia egingo dute plazan

ORDEZKARIAK Isidro Palacin eta Remigio Cuesta zutik, eta Ana Delia Lumbreras eta M. Nieves Sanchez. O.E.

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Beste herri batzuetatik Oñatira lan egitera eta bizitzera etorri diren herritar guztiak omenduko ditu asteburuan Oñatik. Erroldari begiratuta, hiru herri hauetakoak dira etorkin gehienak: Extremadurako Moraleja, Gaztela eta Leongo Macotera eta Nafarroako Valtierra. Hiru herri horietan jaiotako oñatiarrak ibili dira, Anaitze batzordeko eta Udaleko ordezkariekin batera, asteburuan egingo duten jaialdia antolatzen.

ZELAN ALDATU DEN OÑATI...

Moralejan jaio diren 74 lagun bizi dira Oñatin. Isidro Palacin da horietako bat: "Gure aita etorri zen lehenengo Oñatira, lan bila. Zubillagan aurkitu zuen lana eta handik urte pare batera, ama eta hiru anaia etorri ginen. Ni jaioberria nintzen, bi hilabete baino ez nituen; arreba gazteena hemen jaioa da".

Macoterako Remigio Cuesta ere lanagatik etorri zen Oñatira, orain 41 urte: "Zinema gustatu zitzaidan gehien Oñatitik, eguenetan, zapatuetan eta domeketan zegoen. Plazan egiten nuen dantza hemengo neskekin; neska, aterkia eta hirurok egiten genuen dantza, egia esan, a zer-nolako zirimiria egiten zuen lehen Oñatin!, orain baino askoz sarriago, gainera. Hori zen txarrena. Euskara ez dut ikasi, baina seme-alabak ikastolara joan dira, hori argi nuen".

Maria Nieves Sanchez ere ederki akordatzen da zirimiriarekin: "Valtierran ez zen horrelakorik. Duela 35 urte etorri nintzen ni eta urte hauetan guztietan eguraldia ere aldatu da Oñatin". Maria Nievesen anaiak Legazpin egiten zuen lan eta oporretan harengana etorri zenean ezagutu zuen senarra izango zena. Bere gurasoek taberna zuten Oñatin eta hantxe hasi zen lanean Maria Nieves: "Jende asko ezagutu nuen horrela", dio. "Hala ere, saltsa askotan ibili naiz eta jendea ezagutzeko modu ona izan da hori". Ana Delia Lumbreras ere Valtierrakoa da: "Hiru urte nituela etorri nintzen eta gure amak askotan esaten zuen Oñatin hasi zela ondo jaten eta bizimodua ezagutzen", dio.

150 GONBIDATU

Orain hiru urte eta erdi inguru sortu zitzaien ideia horrelako omenaldi bat egiteko eta azken bi hilabeteetan gogor jardun dute asteburuko plana antolatzen.

150 lagun inguru etorriko dira Moraleja, Macotera eta Valtierratik astebururako. Oñatiko familien etxeetan hartuko dute ostatu. Zapatuan elkarrekin bazkaldu eta afalduko dute eta hango eta hemengo dantzez eta abesbatzen ikuskizunez gozatuko dute. Domekan, Arantzazu ikusiko dute eta eguerdian plazan, bisitarien lurraldeetako jakiak dastatzeko aukera egongo da, baita artisauen erakusketa ere.

IKASTAROAK >LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA

Bake prozesuak aztertuko dituzte astelehenetik aurrera Oñatin

Lege Soziologia Institutuak antolatutako udako ikastaroetan, Ipar Irlandako, Kolonbiako eta Euskal Herriko bake prozesuez jardungo dute.



Javier Elzo. GOIENKARIA

Alec Reid. GOIENKARIA

Juan Jose Ibarretxe. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Uztailaren 3tik 6ra bitartean, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan, bake prozesuak izango dituzte aztergai Oñatin. Lege Soziologia Institutuarekin elkarlanean antolatu dituzte jardunaldiok eta aztertuko dute lege soziologiak giza eskubideen mesedeetan egin ditzakeen ekarpenak. Horretarako, Ipar Irlandako, Kolonbiako eta Euskal Herriko bake prozesuez jardungo dute gai horretan adituak direnek.

Jardunaldiotan parte hartzeko ehunetik gora lagunek eman dute izena. Tartean dira zenbait alkate, parlamentari eta baketzearekin konprometitutako lagunak.

GOI MAILAKO HIZLARIAK

Hitzaldien artean aipatzekoak dira Juan Jose Ibarretxek, lehendakariak, *Hurrengo eguna* izenburupean lehen egunen egingo duena; bigarrenean, Deustuko unibertsitateko Javier Elzok biktimak izango ditu hizpide. Uztailaren 5ean, Gandiaga Topagunean, gatazken konponbiderako proiektua aurkeztuko dute Arantzazu Baketik fundazioko Iñaki Beristainek eta Ipar Irlandako gatazkan bitartekari lanetan jardundako Harold Good eta Alec Reid apaizek. Ostean, Setien Donostiako gotzain emerituak egungo Euskal Herriko baketzeaz jardungo du. Azken eguna, berriz, ondorioak ateratzeko baliatuko dute.

Adituen hitzaldiez gain, tailerrak ere izango dira ikastaroetan; Gernika Gogoratuz eta Gesto por la Paz erakundeek gidatutakoak, besteak beste.

SU-ETENAREN OSTEAN

Jardunaldion antolatzaile Jose Antonio Azpiazuk esan digunez, "Lege Soziologia Institutuak urtero antolatzen ditu udako ikastaroak, baina aurtengorako aukeratutako gaiak interes handia piztu du eta oso jende garrantzitsua izango da bertan".

Zehaztu digu gaia aurrez erabakitakoa dela: "Su-etenaren aurretik hitzartuta geneukan bake prozesuez jardungo genuela aurtengo ikastaroetan; baina honen ostean, gori-gori dagoen gaia da", esan digu Azpiazuk.

EKONOMIA > ARCELORREK MITTAL-EN ESKAINTZA ONARTU DU

Egoerak okerrera egin dezakeen beldur dira langile ordezkariak

Enpresa bien arteko akordioa "merkataritza operazioa" izan dela salatu du komiteak

Uztailaren 8a arte Mittalek eskaintza alda dezake, eta beldur dira Bergaran

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Urtarrilean egin zion Indiako Mittal Steel-ek enpresa erosteko lehen eskaintza Europako Arcelorri: 18.600 euro. Arcelorreko buruek eta akziodunek ez zuten ontzat hartu. Bitartean, langileak kezkati zeuden Mittal-ek plan industrialik ez zuelako. "Orain, diru gehiago eskaini dio Mittal-ek eta Arcelorrek onartu egin du, baina plan industrialik gabe jarraitzen dugu. Argi dago merkataritza operazioa izan dela akordioa, ez dituela langileak kontuan hartu", adierazi du Iñaki Arregi Arcelorreko enpresa komiteko presidenteak.

EGOERA OKERTU EGIN DAITEKE

Akordio hori sinatuta, kopuru osoaren %43 du Mittal-ek eta zenbatekoa handitu egin daitekeela dio Iñaki Arregik. "Uztailaren 8a arte Mittal-ek aukera du eskaintza aldatzeko eta ondorioz, indar handiagoa hartzeko. Horrek egoera oker dezake, duda barik".

Hala ere, egungo egoera ez dela ona argi utzi gura izan du Arregik: "Epe motzean ez dugu ezer nabarituko, baina akordio horrek ekarriko ditu aldaketak epe luzera eta langile batzuk kaltetuak izango dira. Euskal Herrian 3.350 langile inguru ditu Arcelorrek eta horietatik 300ek Bergarako lantegian dihardute", dio. "Orain dugun defentsa bakarra da Euskal Herriko lantegiak errentagarriak direla. Bergarako lantegian udan hasiko gara aurreikusitako inbertsioak egiten, baina akordio horrek epe luzera ekarriko ditu ondorio latzenak", jarraitu du Arregik.

BERGARA 300 lagunek dihardute Bergarako lantegian. GOIENKARIA

ERRUSIARRENA, LEUNAGOA

Mittal-ek hasieran egin zizkion eskaintzei aurre egiteko, Errusiako Severstal enpresarekin bat egiteko saioa egin zuen Arcelorrek. "Eskaintza horrek leunagoa zirudien, ez hain bortitza. Gainera, enpresa biek elkar ezagutzen dute, esperientzia berak izan dituzte. Hala ere, ez dugu ia denborarik izan eskaintza hori ondo aztertzeko, eta ikusteko gelditu da zer ekarriko ligukeen", azaldu du Iñaki Arregik.

Mittal-ek, ordea, hamar mila milioitan hobetu du hasierako eskaintza eta Arcelorrek onartu egin du. "Orain, akzioko 40 akzioko balioa du Arcelorrek, baina Arcelorrek ez du hori balio. Merkatua zeinek kontrolatuko duen erabaki dute horrela, zeinek salduko dituen tona gehien eta zeinek jarriko dituen baldintzak, eta hori da larriena", dio, arduratuta, Iñaki Arregik.

HEMENGO SIDERURGIA, KOLOKAN

Horrelako zerbait gertatuko zela espero zutela adierazi du enpresa komiteko presidenteak, baina ezkor agertu da, interes ekonomikoak egon direlako tartean eta ez dituztelako langileak aintzat hartu. "EEPk (OPA) balioa izango luke lanpostuak sendotzeko, gai sozialak hobetzeko, denok irabazteko, baina esperientziak dio langile batzuk galtzen aterako direla", dio Arregik. "Arcelorren etorkizuna konponduko da langileokin onartutako konpromisoen arabera, baina ikusi da Euskal Herrian ez dagoela indar nahikorik erabakiak hartzeko, eta horregatik, ilun ikusten dut hemengo siderurgiaren etorkizuna", jarraitu du.

> HEZKUNTZA

Zazpi master berri eskainiko ditu MUk hurrengo ikasturtean

Datorren ikasturtean zazpi master gehiago eskainiko ditu Mondragon Unibertsitateak. Eskaintza berri horrekin, lau doktoretza eta 25 master eta ikastaro eskainiko dituzte MUn 2006-2007 ikasturtean. Master eta ikastaro horietatik, 18k titulazio propioa dute eta gainerako zazpiek, ofiziala. Ingeniari, enpresa, hezkuntza eta ekonomiako titulazioak dira.

> TXAPELKETA

Gipuzkoako artzain txakur txapelketan izena eman daiteke

Aurtengo Gipuzkoako artzain txakurren txapelketarako izena emateko epea zabalik dago. Txapelketa irailaren 3an jokatuko dute, Legazpin. Gipuzkoako edozein artzain txakurrek har dezake parte. Interesa dutenek telefono zenbaki honetara deituta eman dezakete izena: 609 02 14 20. Azken eguna abuztuaren 26a da.

> HEZKUNTZA

Ikasleen aukeren araberako ikasketak eskainiko ditu UNEDek

Ikasleen aukeren araberako ikasketa plana eskaini gura du Bergarako UNEDek datorren ikasturtean. Ikasleak ikasteko duen denboraren araberako eskaintza da. Gainera, beste bi titulazio berri ere irakatsiko ditu 2006-2007 ikasturtean, 36 guztira. Izena emateko epea uztailaren 31n bukatzen da. Argibideak: *www.uned.es/ca-bergara*.

Seinaleztatutako lekuetan bakarrik aparka daiteke Urkulu inguruan

Urkulun behar ez den tokietan aparkatzen dute askok, eta Aretxabaletako Udaltzaingoak zenbait isun ipini ditu horregatik. Udaltzaingoak gogorarazten die erabiltzaileei soil-soilik aparkaleku bezala seinaleztatutako lekuetan utz daitekeela autoa, eta ez edozein bide ertzetan, nahiz eta marrekin markatuta egon.

Aretxabaletako udaltzainburuak, Martin Garaik, esaten duenez, "jendeak badaki non aparka dezakeen, baina ohitura kontua da". Haren gomendioa da Aretxabaletako aparkalekuak eta bidegorria erabiltzea.

ENEKO AZKARATE

Lehiaketako lehen argazkiak, astelehenean

Hilaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n irtengo dira Goienaren Udako Argazki Lehiaketako lehen lanak. Argibide gehiago, *www.goiena.net/blogak/argazkiak* webgunean.



Jesus Sasiain > Harrera-aita

"Ume asko dago erakundeetan eta familia bat behar dute"

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Foru Aldundiak Gipuzkoako harrera familiei laguntzeko zerbitzua antolatzeko lehiaketa deitu du, familiek eta umeek beharrezko duten zerbitzu bat. Iaz 149 harrera familia zeuden Gipuzkoan. Horietako bat Oñatiko Jesus Sasiain eta bere familiak osatzen dute.

Jesus Sasiain harrera-aita da 1993. urtea ezkero. L.K.

Noiztik zarete harrera familia?

1993tik. Bi anai-arreba ditugu. Batak 2 urte zituen gurera etorri zenean; besteak, urte erdi pasatxo.

Zelako esperientzia da?

Guretako, oso ona. Kasu guztiak ez dira berdinak; gure kasuan, oso txikiak ziren umeak, eta ematen du horrela errazagoa dela moldatzea nagusiagoak badira baino.

Zelako laguntza mota ematen du Foru Aldundiak?

Bi motatako laguntza dago: batetik, psikologoen laguntza. Umeek gurasoak bisitatzen dituztenean, psikologo bat dago eurekin; bestetik, hilero etortzen da bat etxera, jarraipena egitera; azkenik, psikologia kabinete baten laguntza daukagu. Nortasun arazoak eta bestelakoak izan ditzakete umeek, eta zerbitzu hori beharrezkoa da. Dirulaguntza ere badaukagu.

Umeek gurasoekin harremana dute, ezta?

"Psikologoen zerbitzua ipintzen du Aldundiak, eta beharrezkoa da"

Bai. Hasieratik, hiru astean behin, bi orduko bisita egiten diote amari. Ez da ahaztu behar harrera programaren helburua dela umeek gurasoekin harremana jarraitzea eta, posible bada, euren familian berriro integratzea.

Zeintzuk dira zalantza edo arazo nagusiak?

Hasieran, ohituko ote ziren. Baina beldur handiena zen harrera hori bukatzen zenean zer gertatuko zen, maitasuna sortzen delako. Baina pentsatu genuen, joaten baziren, jakingo zutela gu ere hor egongo ginela beti.

Familiei zer esango zenieke?

Anima daitezela umeak hartzera. Asko daude erakundeetan, eta familia giroan egon behar dute ondo hezteko.

KONTSEILUA

Euskal Tonbolako txartelak salgai ibarreko 90 tabernatan

Euskal Tonbola berria Debagoienean izango da ekaina eta uztaila bitartean, Kontseiluak antolatuta. Txinarako bidaia edo Pirinioetarako lagun arteko asteburu pasa eskuratzeko aukera izango da; baita DVD eramangarriak, MP3ak, GPSak, etxerako DVD irakurgailuak, eta afariak jatetxe ezagunetan ere. Ibarreko 90 tabernatan izango dira txartelak euro baten truke. Orain arte harrera oso ona izan du tonbolak Debagoienean. Lortutako etekina euskararen normalizazioan urrats berriak egiteko erabiliko du Kontseiluak.

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA

Jaietan, tabernetan euskal musika ipintzeko bi CD gertatu dituzte

DEBAGUNE > DEBAGOIENA

Ekainetik aurrera herri askotako jaiak ospatzen direnez, jaietan euskal musikaren aldeko apustua egin eta tabernetan euskal musika gehiago jartzeko dei egiteko aprobetxatu du Debagunek.

"Tabernetan oso euskal musika gutxi jartzen da eta ia beti taberna jakin batzuetan, horregatik gainontzeko tabernak ere euskal musika jartzera animatu nahi ditugu", diote Debagunetik. Honen haritik, Aretxabaletan eta Arrasaten euskara elkarteek euskal musikaz osatutako CDak atera eta tabernariei oparitzen dizkiete, lana aurrezteko eta nahi izanez gero tabernan euskal musika modu erosoan ipintzeko.

Musika estilo ezberdinak jasotzen dituzte; egunean zehar ipintzeko zein gaueko jai girorako

EGUNEZ ETA GAUEZ

Aurten musika estilo asko jasotzen dituzten bi CD kaleratu dituzte, bata egunean zehar jartzeko eta gauean edo jai giroan ipintzeko bestea. CD bakoitzak 10-12 abesti inguru dauzka.

Orain arte ekimen hau Aretxabaletan eta Arrasaten bakarrik egin bada ere, Debaguneren asmoa da proiektu hau bailarako beste herri batzuetara zabaltzea; Bergaran baliteke San Martinetan banatzea CDak tabernetan. Bestalde, asmoa da urte batetik bestera abestiak berritzea eta modan dauden kantuekin osatzea CDak.

Tabernariei lana aurrezten diete grabatutako CDak emanez. GOIENKARIA

Euskal Herriak Bere Eskolak 107.768 sinadura jaso ditu

EHBE hezkuntza sare eta ziklo ezberdinetako ikasle, irakasle, guraso eta hezkuntza arloko herritarrek osatzen dute. Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema propioa eskuratzea dute helburu. Hori eskatuz Bai Eskolak Euskalduntzeari! ekimena egin eta 107.768 sinadura batu dituzte.

Laguntzaileak behar dira Euskal Herria Zuzenean jaialdirako

Euskal Herria Zuzenean jaialdia ekainaren 30etik uztailaren 2ra arte egingo da Idauze-Mendin (Zuberoa). Topaguneak jaialdia antolatzeko laguntzaileak biltzeko ahalegina egin du. Iaz 100etik gora laguntzaile bidali zituen. Laguntzaileek, gainera, dohainik dute jaialdirako sarrera.

gure artekoak

ONDOAN > Instalazio osagarriak diseinatu eta eraikitzetik hasi eta gaur egun horretaz gain, ingurumen eta prebentzio gaietan jarduten dute Ondoan enpresakoek. Aretxabaletan dute bulegoa.

Jon Zubiria

"Ingurumenari ez zaio behar besteko garrantzia ematen"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA

MCC barruan dagoen kooperatiba da Ondoan. Bulego nagusiak Zamudion baditu ere, beste hiru bulego dituzte, horietako bat Aretxabaletan. Bertan izan gara enpresaren berri jakiteko.

Jokin Lapatza, Jon Zubiria, Laura Moreno eta Leire Retolatza Aretxabaletan. I.A.

Noiz sortu zenuten Ondoan?

Ondoan 1982an sortu zuen ingeniari talde batek ur araztegiak diseinatzeko eta abian jartzeko. Gero airea girotzeko eta suteen aurkako babes sistemen ingeniaritzari egiteari ekin genion. Egun, hau da Ondoanen unitate garrantzitsuena. 1991n ingurumen eta prebentzio aholkularitzan eta ingeniaritzan hasi ginen lanean; araztegiak ipini aurretik uraren gaineko azterketak egiteko.

Zein da zuen jardun nagusia?

Enpresendako ingurumen eta prebentzio kudeaketa arloko aholkularitza lanak. Bestalde, Udalendako Agenda 21 prozesuaren diseinua eta garapena egiten dugu. Ingeniaritza arloan, enpresendako proiektuak, lur kutsatuen ikerketak eta larrialdi planak egiten ditugu.

Ingurumenari garrantzi handiagoa ematen zaio?

Gero eta garrantzi handiagoa ematen diote gizarteak, erakundeek, enpresek... Baina oraindik ez zaio duena bestekoa ematen. Garapen iraunkorrean pisu handiagoa ematen zaio arlo ekonomiko eta sozialari ingurumenari baino.

Etorkizunerako asmoak?

Ikusi behar dugu benetako apustua egiten dela ingurumen arloan. Enpresa askok ISO 14.000 agiria daukate, udal asko Agenda 21 egitasmoan sartuta daude, baina ikusi behar da zein neurritan egiten duten aurrera. Neurri txikian bada ere, enpresa haztea eta jarduera mantentzea dira asmo nagusiak.

FITXA TEKNIKOA

> BULEGOAK
Lau bulego ditu Ondoan kooperatibak: Zamudion, Aretxabaletan, Donostian eta Gasteizen.

> LANGILEAK
Ehunetik gora dira langileak; Aretxabaletako Ingurumen eta Prebentzio unitatean zazpi lagunek dihardute.

> INTERNET
Enpresaren gaineko informazioa *www.ondoan.com* webgunean aurki dezakegu.

etxeko leihotik

Leire Kortabarria > GOIENKARIAko erredaktore burua

Debagoieneko udako lau elementuak

Suaren urtaroan sartu berri gara. San Juan gaua aski ureztatua izan da aurten, baina debagoiendarrok sua egin egin dugu, txar guztiak horra botatzeko eta berriz zerotik hasteko. Sua elementua gustuko dut. Esaten dute sua intuizioaren sinboloa dela; barne ikusmen horren begiak zabalik izaten lagunduko digu, bada, itxuraren azpian dagoena ezagutzeko.

Lurra, hori ez dugu ibarrekook urtaro bakar bateko kontua, beti bihotzean daramagu eta. Urruti dauden lurrak gerturatu egingo dira asteburu honetan, Oñatin bizi direnen bihotzek eta bizitzek hurbilduta. Moraleja, Macotera eta Valtierratik eta beste edozein lurretik aspaldi etorri zirenen lurra ezagutzeko aukera izango dugu geuk ere. Espero dezagun urak errespeta dezala jaialdia. Hori bai, zain dezagun, Urkulu beteta daukagun arren, ura ez delako mugagabeko altxorra.

"San Juan gaua ureztatua izan da, baina sua egin dugu, txarrak botatzeko"

Eta airea gelditzen zait. Udako lurrinekin jantzita dator eta, hortxe dugu gozatzeko. Ezkilaren eta Korpus jai eguneko belarraren lurrina, eta ibarreko aire garbiarena. Zorionez, gurekoa *uda urdin-berdea* da oraindik.

> Oporretan gero eta jende gehiago geratzen ei da etxean, halabeharrez edo –nobedadea!– borondatez. Famaturen batek etxean geratzearen moda hastea besterik ez da falta. Poltsikoek igarriko lukete.

> Alemanian izan dira gureko futbolzale ez gutxi; eta Cuatro eta La Sextako ikusleak, hobe zenbatzen ere ez hastea. Argi dago gauza batzuek ez dutela kanpainarik ez erraztasunak ematerik behar.

begi-bistan

Txantxikuak Fanderiako biribilgunean (Oñati)
2006/06/27

Argazkia: Oihana Elortza.
Testua: Irati Agirreazaldegi.

Oñatiko armarrian agertzen ez badira ere, Oñatirekin lotzen dugun animalia da txantxikua, herriko sinbolotzat hartu ohi dena. Herrirako bidean ere ipini dituzte, burdinazkoak.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



Florentino Santos
ARTISAUA

Extremaduran jaiotako artista oñatiarrak egur eta hondakinekin egindako artelanak ipini ditu ikusgai Oñatiko kultur etxean. Besteak beste, nekazaritzako lanabesak, gurdiak, fruta hezurretan zizelkatutako lanak, apaingarriak eta jostailuak ikusi ahal izango dira.

Iñigo Ibarrondo
ABESLARIA

Sharon Stoner taldeko abeslaria eta baxu jotzailea da Iñigo eta taldekideekin batera *3000 bira* diskoa kaleratu du. Gainera, Bilbo Hiria lehiaketan rock talde onenaren saria jaso du Oñatiko taldeak. Bestalde, irailean Gasteizko Azkena Rock Festival jaialdian joko dute.

Jon Berezibar
KAZETARIA

Eskualdeko film laburren I. emanaldia eskainiko du Loramendi elkarteak uztailaren 5ean gauez. Egileek, gainera, filmak zela egin dituzten azalduko dute. Egileen artean dago Jon Berezibar arrasatearra. *Kabana* sormenezko dokumentala egin du Jonek Iraia Agirrerekin.

Ama Aramaiokoa da eta bera Arrasateko Uribarri auzoan jaio zen. Tolosaldean albaitaria, Anoetako Udalean zinegotzia eta parlamentaria izan da Landa Garapenerako diputatu izan aurretik. Natura, hemengo produktuak eta kalitatea defendatzen ditu eta Gipuzkoako zura modu eramangarrian ekoiztu dela erakutsi nahian dabil orain Rafa Uribarren.

Rafael Uribarren > Landa Garapenerako diputatua

"Urtetik urtera gero eta gazte gehiago ari da inguratzen lehen sektorera"

OIHANA ELORTZA > DONOSTIA

Lehen sektorearen irtenbidea kalitatearen eskutik datorrela ziur dago Rafael Uribarren Landa Garapenerako diputatua, "elikadura osasuntsuak ekoiztu natura errespetatuz". Natur parkeak ere bere lan esparrua dira.

Ekainean urtebete egin du Rafael Uribarrenek Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu. FORU ALDUNDIA

Ingurune naturalak zaintzeko onena ahal den gutxien ukitzea dela uste dute askok.

Hori ez da egia borobila, baina arrazoi puntu bat badute. Betidanik, gizakiak ingurua moldatu egin du bere beharretara. Pinudia sarritan kritikatu dugu monokultiboa delako eta ez dugu berdina esaten pagadi batez. Pagadia naturala iruditzen zaigu, baina pago motza ikatza egiteko erabiltzen zen, eta ikatz hori, burdinolak eta fabrikak hornitzeko. Baserri asko zutik mantendu dira pinuari esker; pinudi batek baserria berritzeko balio zuen edo seme-alaben dotea osatzeko.

Arantzazun egongo da Aizkorri-Aratz natur parkearen sarrera nagusia?

Arantzazun eraikuntza egin-da dago: Gandiaga Topagunea. Aterpetxea egiteko toki ona dute bertan. 500.000 bisitari joaten dira urtero Arantzazura. Hala ere, Zegaman beste ate nagusi bat dago, eta Otzaurte, Urkulu, Leintz Gatzaga eta Araba aldeko herriak ere sarbideak dira.

Zeintzuk dira Gipuzkoako landa ingurunean ikusten dituzun arazoak?

Gipuzkoako azaleraren %94 landa-gunea da, natur parkeak eta gune babestuak %22raino iritsi dira eta basoak %62ko azalera estaltzen du. Horretan txapeldunak gara, baina arazoak nekazari aktibitatean daude, lur onenak eta lantzeko onenak ibarretan daudelako eta horiek etxebizitzez, industrialdeez eta azpiegiturez josita daudelako.

Maldetako baserriei etekin ekonomikoa ateratzea zailagoa da, eta lur asko alferrik galtzen edo zapalduta ikusten dira. Hor daukagu erronka nagusienetako bat, nekazari lurrak modu egokian antolatzen.

Ze emaitza izan du GazteNek proiektuak Debagoienean?

Baserritarra zahartzen joateaz gain, egin beharreko inbertsioak handiak dira. Zailtasun handiak daude lurraz jabetzeko eta ustiapen bat martxan jartzeko. Errentagarritasuna oso baxua da beste sektoreekin konparatuz. Horregatik jarri genuen GazteNek proiektua, nekazari munduko gazteak hortxe jarraitzeko. 2005ean 61 proiektu aurkeztu zituzten Gipuzkoan eta horietatik dozena erdi baino ez ziren Debagoienekoak. Oro har, urtetik urtera gero eta gazte gehiago ari da inguratzen sektorera.

IRTENBIDEA

"Gure baserritarrak kalitatea bermatzen ez badu, bereak egin du, hori da-eta irtenbidea"

AHT

"Politika zuzena iruditzen zait desjabetza ordaindu beharrean beste lursail bat ematea"

HEGAZTI GRIPEA

"Gaitzaren aurkako neurriak indargabetu dituzte, baina gripea ez da pasatu"

Landa Garapenerako ideia berritzaileak izatea da lehen sektorearen irtenbidea?

Lehen sektorearen irtenbideak kalitatearen aldeko apustuaren eskutik etorri behar du, eta katea eten barik iritsi behar du produktuak mahaira. Guk Europatik datozen produktuen kantitate eta prezioekin ezingo dugu inoiz lehiatu.

Produktuen kalitatea da baserritarren garantia, bermea?

Gure baserritarrak kalitatea bermatzen ez badu, bereak egin du. Gizarteak konfiantza osoa du gure baserritarrengan, eta hori da klabea, beraiek ekoiztutako produktua kanpotik etorritakoa baino gehiago baloratzea. Animalien ongizatea, gehigarri kimikoen eta botikaren erabilpenak edo ibaietako uraren garbitasuna geroz eta gehiago baloratuko ditu gizarteak.

AHT egiteko, baserritarrei kenduko dizkieten lursailen ordez beste batzuk emango dizkiete. Zer iruditzen zaizu?

Tamalez, gure gizartea industria gizartea da eta lehentasuna ematen zaio mugikortasunari, azkar mugitzea XXI. mendeko ezaugarri garrantzitsuenetakoa da eta. Horregatik, etorriko diren kalte handienak landa guneetan gertatuko dira: baserri askoren lurrak zeharkatuko ditu. Batzuk baserritik bizi diren baserritarrak izango dira, eta horiek dira gehien kezkatzen gaituztenak.

Politika zuzena iruditzen zait, desjabetutako lurrak ordaindu beharrean, galdutako lurraren trukaketa moduan beste lursail bat ematea, baserriaren ekonomia manten dadin lehengo tamainan. Lur soberakinekin bete lanak eginez eta lursailen permutaren bidez gauza asko egin daitezke kalteak murrizteko.

Zer eragin izango du proiektu horrek baserritarrengan?

Kaltegarria. Gai izan behar dugu baserrian dedikazio zuzena dutenak baztertuak ez izaten.

Ze osasun dute hemengo animaliek?

Harro egon behar dugu gure albaitariek eta baserritarrek 1980tik aurrera egin duten lanarekin. Urte haietan milaka behi hil zituzten kareneko gaitza eta lanparoia gure baserrietatik desagerrarazteko. Ordutik hona gauza bera egin dute beste gaitz batzuekin eta orain Europa mailan gaitz kopuru txikia dugu. Berdin egin da beste aziendekin.

Pasatu da hegaztien gripea?

Ez da pasatu, hona oraindik iritsi ez delako. Hartutako neurriak, momentuz, bertan behera utzi dituzte, garaia pasatu delako. Gaixotutako kasu bakar bat ere ez da agertu gurean. Horrek ez du esan nahi hurrengo migrazioan berriz zenbait neurri hartu behar ez izatea.

zabalik

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Mundiala, bertan

Tenperaturak behera eta futbolaren sukarrak gora. Mundiala final-laurdenetara iritsi da; Espainiako kirol kazetariek iragarri ez bezala, *Zizou*-k Raul erretiratu du mundialetik eta, betiko moduan, Espainia nahi baino lehenago etxera. Zaleen ilusioa eta *patrioterismoa* pizten jardun duten kazetariak, etsita. Batek esaten zuen moduan, gaitz genetikoa izan daiteke Espainiarena, hil ala biziko partidu erabakigarriak ezin irabazteko.

Dena dela, ikaragarria futbolaren globalizazioak ekarritakoa (mundiala ezean ikus bestela *La gran final* dokumentala). Alemanian futbol zelaiak beteta eta gurean telebista audientziek gorakada ona. Antza, Arralden ere mundiala jarraitzen dute eta martitzenean *Goenkale* ohi baino beranduago hasi zen Espainia-Frantzia partidua zela eta. Arralden eta beste toki askotan ikusi zuten partidua, audientzia errekor guztiak hautsiz: 1992tik partidurik ikusiena izan da. Hor ari dira La Sexta eta Cuatro, ea nork lortzen dituen audientziarik onenak mundialean: Cuatrok *goleada* ona sartu dio. Seinale hedapenaz gain, bakoitzaren estiloak zerikusia izango du horretan. La Sextan, Patxi Alonso da liderra (mundiala hasi zenetik ez dakit estudiotik atera den) eta Carlos Montesen estilo nekagarria da marka: *Ay, Julio, ¡cómo te gusta el jamón!, La vida puede ser maravillosa...*, *¿Dónde están las llaves?* Cuatron, Canal Pluseko taldea, Maradona izar dela. *Pelusa* itzuli da futbolera..., esatari lanak egitera, eta bere lankideen *forofismoa* baretzera. Egia esan, esatari histerikoen aurrean nahiago dut Jose Angel De la Casa historikoaren patxada.

"Alemanian futbol zelaiak beteta eta gurean telebista audientziek gorakada ona"

"Mundialeko kolore festa Debagoienera iritsi da baita"

Eta komunikabideekin bakarrik ez; migrazioarekin eztanda egin du globalizazioak eta mundialeko kolore festa gurera iritsi da baita. Debagoieneko tabernetan ohikoa bilakatu da gaur Argentina, Ekuador, Ukraina, Brasil, Euskadi edo Ghanako zaleekin topo egitea. Bertan daukagu mundiala.

herritarrak galdezka

KIROL TXARTEL BATERATUA

Irakurle batek zera galdetu digu: "Bergaran igerilekuak zabalduko dituzte irailean. Debagoieneko kirol-guneetan erabiltzeko txartel bateratuak balioko du igerileku berriendako?".

Erantzunaren bila jo dugu Bergarako Udalera. Kiroleko arduradunen arabera, bai, erabili ahal izango da txartel bateratua Agorrosin berrituan ere, betiere urte amaierara arte. Hortaz, txartel bateratua dutenek, izan Bergarakoak edo ibarreko beste herri batekoak, aukera izango dute igerileku berri dotoreak erabiltzeko. Ostera, txartel bateratua ez duten bergararrek, hau da, Bergarako igerilekuak bakarrik erabiltzeko txartela atera dutenek aurten, ordaindu egin beharko dute irailetik urte amaierara arte. Izan ere, urtarriletik irailera arte bakarrik erabiltzeko txartela atera zuen Udalak urte hasieran.

Bestalde, Bergarako Udalak oraindik erabaki barik dauka, edo behintzat ez du ofizial egin, datorren urtean txartel bateratua aterako duen, hau da, ibarreko beste udal kirol-guneak ere erabiltzeko txartela aterako duen, edo bakarrik Bergarako kirol-gunerako txartela aterako duen.

PUNTUKAKO BAIMENA

"Gidabaimena aldatu egin behar da lege berriarekin?", galdetzen du irakurle batek.

Ez, gidabaimena bera berdina izango da. Gidari guztiek izango dituzte 12 puntu eta zapatu honetatik aurrera gidari guztiok kontsultatu ahal izango dugu puntuen saldoa webgune honetan: *www.dgt.es*.

Galdera egiteko:
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

'SEUSSEN MUNDUA'

Irakurle batek deitu digu galdetzeko ea *Seussen mundua* musikala ekarriko dute Debagoienera. "Lehen entzun nuen zerbait Bergaran eskainiko ote zuten musikala, baina aspaldian ez dut ezer entzun. Badago berririk?", dio.

Maider Osa Bergarako Kultura teknikariari galdetu diogu eta esan digu azaroan Bergarako pilotalekuan egitea aztertzen dihardutela. Oraindik ez dago zehaztuta eguna, ze Udaleko kirol zerbitzukoekin eta Bergara Kirol Elkarteko pilota sailekoekin baitabiltza harremanetan jakiteko ze egunetan dagoen libre pilotalekua. Baina ziurra da azaroan Bergaran ikus ahal izango dela Bergarako Orfeoiaren *Seussen mundua* musikala, zapatu batean ipini nahi dutela, eta, hasiera batean, bi emanaldi eskaini nahi dituztela: arratsaldean eta gauean. Udazken Kulturalaren programaren barruan antolatuko litzateke emanaldia.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog

40 urte behar al dira?

Mikel Iturria
www.eibar.org/blogak/iturri

Alardearen inguruan gauzak asko lasaitu dira, baina amestutako egoera urrun dago oraindik. The organization desagertze bidean jartzeko 40 urte behar izan badira, jubilatzerakoan ezagutuko dut alarde bateratua Irunen.

1996ko alardean saiatu ziren lehen aldiz emakume batzuk eta alarde hura gogoan dut, besteak beste, nire lagun bat atera zelako kantinera. Goizean, gehienetan bezala, lanera joan nintzen. Arratsaldean hurbildu nintzen Irunera. Zoritxarrez, gertutik ikusi nituen egun hartan alarde tradizionaleko jenerala eta bere koadrila. Eta ikusi nuenak ez ninduen asebete (ezta harritu ere, portzierto).

Geroztik, ia urtero joan naiz alarde berdinzalea ikustera, arratsaldez bada ere. Irundar arraroa naiz, inongo alardetan oraindik atera ez den multzokoa, egun horretan lanera joaten den horietakoa. Eta uste dut berdin jarraituko dudala. Badakit huskeria izan daitekeela jai hau Irundik kanpoko askorentzat, baina karga sinboliko izugarria du eta hunkitu egiten nau Sanmartzial egunean gizonemakumeak elkarrekin ateratzea desfilean.

Arreta gehiago piztuko du, seguruenik, hondakinen kudeaketak. Erretzea da bidea esan du Donostiako Udalbatzak ekainaren 22an. Inork ez du errauskailuaren aita edo ama gisa agertu nahi, are gutxiago 2007ko hauteskundeen atarian. Izan daiteke gai hau hurrengo alkatea erabaki dezakeena? Batek daki! Honetan ere, Ilunben bezalatsu, PNV, EA,

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

plazara

Zerbitzu publikoen alde eta batez ere osasun zerbitzu publikoen alde egiten du Aralarreko ordezkariak. Eta, horren haritik, salatzen du osasun zerbitzu publikoak azkenaldian txarrera egin duela. Bereziki, emagin, ginekologia eta pediatria zerbitzuek egin dute okerrera, herritarren eta batez ere emakumeen kaltetan. "Herritarren osasunarekin inongo ardura gabe jolasten ari dira", dio.

Rebeka Ubera *

Emakumea eta osasun zerbitzu publikoak

Aralarrek zerbitzu publikoak aldarrikatzen eta defendatzen ditu. Zerbitzu publikoek unibertsalak behar dute eta herritar guztiontzako; ume, gizon zein emakume izan. Zerbitzuek arlo guztietan behar dute publiko izan, baita osasun arloan ere. Zentzu horretan, aitortu beharra daukagu azken urteotan osasun zerbitzuek hartu duten norabidearekin erabat kezkatuta gaudela. Zerbitzu publikoen murrizketa ematen ari da, herritarrak zerbitzu pribatuetara desbideratuz.

Debagoieneko argazkiak zera erakusten digu: ez daukagula emagin ordezkorik, ginekologian txanda hartzeko urtebete itxoin beharra daukagula, bihotzeko arazoren bat dutenek bederatzi hilabete itxoin behar dutela gutxienez kontsulta izateko, barne-medikuntzarako urtebete itxoin behar izan dela eta errehabilitaziorako, berriz, zortzi hilabete. Mamografiak egiteko ere arazoak daude; 50 eta 65 urte bitarteko emakumeek Donostiara joan behar izaten dute derrigorrean. Horren ardura zuen erradiologoa jada ez dago Arrasaten eta ez dute ordezkorik ipini. Pediatriari dagokionez ere, egoera larria da. Zerbitzuak ez dio beharrari erantzuten, eta horren adibide ditugu Elgeta eta Antzuola. Badaude herritarrak txanda eduki arren kontsultara joaten ez direnak, eta horrek ere eragina du itxoiteko zerrenden areagotzean. Baina datuek erakusten dute zerbitzuak asko dutela hobetzeko.

Argazki horretan okerren aurkitzen direnak, nola ez, emakumeak gara. Zerbitzu gutxien ditugun herritarrak gara, hortxe Bergarako osasun zentroko emagin zerbitzuaren kasua, baita ginekologiakoa ere. Kasualitatea da osasun arloan ere, emakumeak izatea kaltetuenak?

MIKEL ARROIABE

Bergaran, osasun zentroan, emagin zerbitzuak izan duen bilakaeraz arduratuta, eta behar den moduko zerbitzua eskatzeko asmoz, hainbat herritar sinadurak batzen ari dira. Emaginaren zerbitzua ez da haurdun dauden emakumeetara mugatzen, emakumearen espezialista ere bada eta Bergaran esaterako, arazoak daude zerbitzu horrekin; emaginak baja hartzen badu, ez da ordezkorik jartzen eta ez da zerbitzua bere osotasunean ziurtatzen. Aralarren argi daukagu langileek eskubide osoa dutela behar dutenean baja hartzeko eta kasu horietan erakundeei dagokiela ordezkoa jartzea. Baina Bergarako kasuan ordezkoa jarri beharrean, aldi baterako irtenbideak ipini dituzte: astean behin Oñatiko emagina etortzen da, eta astean birritan Donostiakoa. Ez dira betetzen zerbitzu guztiak eta derrigorrez emaginarekin egon behar duten zenbait emakumek Arrasatera joan behar izaten dute. Eta aipatu barik doa Arrasatera joaten direnak ez dutela ziurtatuta izaten zerbitzua, hango emaginen lan karga handia delako.

"Azken urteotan osasun zerbitzu publikoen murrizketa ematen ari da, herritarrak zerbitzu pribatuetara desbideratuz"

"Herritarren osasunarekin inongo ardura gabe jolasten ari dira"

Bergaran, Osasun Zentroan diharduten zenbait erizainek, ordezko lan hori egiteko prestutasuna agertu dute baja kasuetan. Intromisioa dela esanez ez diete utzi. Donostiatik etortzen den emaginak ere gustura egingo omen lituzke ordezko lan horiek. Baina hari ere ez diote uzten. Beharra toki guztietan omen.

Une honetan, irtenbiderik gabe gaude, egiten diren proposamenak atzera botatzen direlako eta erantzukizuna dutenek ez dutelako proposamenik egiten. Bitartean, herritarren osasunarekin inongo ardura gabe jolasten ari dira eta mahai gainean ez dute konponbiderik jartzen. Bitartean, beste behin ere, emakumeok galtzaile.

* Aralarreko batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

zer deritzozu?

www.goiena.net

Errauskailuak beharrezkoak dira?

BAI	%50
EZ	%50

> ZORITXARREZ BAI
Zoritxarrez, beharrezkoak dira. Noski, inork ez du nahi errauskailu baten ondoan bizitzea, baina ez dugu nahi ezta zaborrak inguruan edukitzea. Zabortegiak laster egongo dira beteta, zer egingo dugu?
Sara

> EGITEKOTAN DONOSTIAN
Ez nago errauskailuen alde baina beste alternatibarik ez balego ba egin beharko litzateke. Non? Donostian, noski, zabor gehien produzitzen duen zonaldean
Basobaltz

> EZ DITUT NAHI
Errausgailuen kontra nago %100. Eta ez dut nahi errausgailurik Debagoienean ez eta beste iñon!
Gortxo

> BESTE SOLUZIÑORIK?
Iñok ez dau soluziño ganorazkorik topatu zaborra erretzia ez bada. Beste alternatibarik ez bada, inzineradorak biharko die.
Patri

DATORREN ASTEKO GALDERA:
Nazionalismo espainola existitzen da?

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

top

PSE-EE eta PP eskutik helduta baitoaz (lepotik helduta doazela, hobeto).

Independentzia

Markos Zapiain
www.eibar.org/blogak/zapiain

Juan Kruz Lakastak adierazi du on litzatekeela bake prozesuarentzat Espainiaren garaipena futbol mundialean, pozez gainezka dabilena eskuzabalagoa izaten baita. Atsotitzak dioenez, "A España revuelta y alegre, la paz amanece más temprano".

Dena den, futbolak partaidetza sentimenduak jokoan jartzen ditu eta anitz euskaldun ezin da Espainiako selekzioarekin identifikatu, jendaurrean bederen, nahiz bertan Xabi Alonso ibili. Horietako asko futbolzale ez ezik independentziaren aldeko ere bada.

Eta ematen du, ikusita zein handia den gurean futbolzaletasuna, independentzia lortu osteko arazo nagusietako bat futbol ligarekin zer arraio egin izango dela.

EAEko taldeen arteko liga? Talde gutxi, ez da aski. Lurraldetasuna eta zazpiak bat aldezteko bultzatzaile sendo bat, futbol liga itxuroso samarra osatzeko modu bakarra dela: Baigorri, Lizarra, Donapaleu, Alaves, Balmaseda, Altzürükü, Bermeo, Angelu, Real Union, Athletic, Tutera, Maule, Eibar, Osasuna... hor bada funtsa, bada sasoia, bada futbol txapelketa interesgarri bat osatzeko aukera. Politikari eta hedabide abertzaleen zeregin gogorra, orain arteko Athletic-Real Madrid bezain pizgarri eta interesgarri bilakaraztea euskal zaleentzat Athletic-Baiona.

Bestela zer, independentzia lortu eta biharamunean Madrila, ea orain arte bezala Espainiako ligan parte hartzen uzten diguten? Ez dirudi oso duina.

koplak

Irati Agirreazaldegi

Gida baimenari puntuka

Gida baimena hasiko denez
bihartik edo puntuka
gidariei hiru lau kopla
ezingo dizkiet uka.

Hasiberria da bolantean
egingo nuke apustu
pedalak gogor zapalduz gero
baietz puntu denak hustu.

Abiadura hartu ezkero
autoan abiapuntu
buruan hamar izango ditu
karnetean zero puntu.

Eta autoa hartzen duenak
edan ostean lau trago
bide ertzean kontrolik bada
karnetarenak akabo.

Gidatuz gero ausart antzean
kontrako norabidean
Stop handi bat ipini baietz
zure baimenan gainean.

Ez baduzu nahi horren urriak
diren autobusik hartu
arau guztiak egoki bete,
ahal dela tentuz gidatu.

Eskoriatzako hauts bola

Begoña Saenz de Azkunaga
(Eskoriatzako hainbat bizilagunen izenean)
Eskoriatza

Autobideko obrek sortu dizkiguten arazoen aurrean Eskoriatzako bizilagunok honakoa jakinarazi nahi dugu: autobidea egiten ari den enpresak neurriak har ditzala ekainaren 12an gertatu zen hauts bola berriro sortu ez dadin. Gure etxebizitzak, fatxadak... zikintzeaz gain, arnasteko arazoak eta begietan trabak sortu zizkigun.

Hori ikusita, epe motz eta ez horren motz batean kostu ekonomikoak sortzeaz gain (gure etxebizitzak, fatxadak, kaleak garbitu beharko ditugu), osasun arazoak ere sortuko dizkigu: egunero eta denbora luze batean arnasten egon beharko baitugu hauts hori.

Bizilagunok ondorengo galdera egiten diogu geure buruari: nor egin behar da kargu honek sortzen dituen gastu guztiez? Bizilagunok edo gure inguruan horrenbeste arazo sortzen ari den enpresa?

Udalaren parte-hartzea eskatzen dugu autobidea sortzen ari den arazo hauetan, enpresari egoera konpon dezan exijituz.

Auzitegi Nazionalaren jarrera

Joseba Antxustegi
(EGIko Aberri Batzordeko Idazkaria)
Euskal Herria

Iragan martxoaren 22ko ETAren su-eten iragarpenaren ondoren gure herriak itxaropentsu begiratzen dio etorkizunari. Hainbat urtetan pairatu behar izan dugun karga behin betiko desagerrarazteko aukeraren aurrean egoteak ilusioa piztu du denongan. Zalantzaren bat edo beste bada, ordea.

Antza denez, egoera berri hau ez dute denek gustuko edo pentsa liteke zenbaiti ez zaiola komeni. Izan ere, azken bolada honetan areagotu egin dira gure gizarteak abiarazi nahi duen prozesu hau oztopatzen saiatzeko ekintzak. Ekimenok erabat ulertezinak dira bakea lortzearen aldeko ikuspuntutik begiratuta.

Testuinguru honetan kokatzen dugu Ermuko Foroak aurkeztu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak onartutako Ibarretxe Markuartu lehendakariaren aurkako helegitea (zergatik eta Batasuneko kide zenbaitekin bildu eta hitz egin izanagatik!). Modu berean uler dezakegu gure Alderdiko EBBren presidente Josu Jon Imaz San Miguel-en aurkako auziperatze saiakera.

Azkeneko erabaki lazgarria, berriz, Grande Marlaska epaileak bere kabuz hartu du gure alderdikide Gorka Agirre Arizmendi auziperatuz eta Xabier Arzalluz Antia lekuko modura deituz.

Euskal gaztediari, eta euskal gizarteari orobat, lasaitasunerako deia egin nahi diogu. Hainbeste denboran helburu izan dugun bakea lortuko dugun itxaropenak bere horretan dirau, halako oztopoak hamaika izango badira ere. Kanpoko eragileek aurkako ahaleginak egingo badituzte ere, euskal gizarteak duen bake nahi eta beharra gailendu egingo zaizkie eta elkarrizketaren bidetik aurrera urratsak eginez gure xedea lortuko dugu.

Gorkari elkartasuna adierazi nahi diogu bereziki. Egoera honetan, bere bizitza politikoan egindako ahalegin guztietan bezalaxe, bere ondoan gauzkala eta guretzat eredu paregabe dela egin nahi dugu deiadar. Helburu etikoak (bakea) eta politikoak (herriaren burujabetasuna) jardunbide demokratikoan oinarrituta lortzeko bidean lagun garela, alegia.

Aurretik Juan Marirekin egin nahi izan zuten, orain besteoi dagokie. Jakin beza espainiar justizia sistemak EAJren (eta EGIren) jardunean nekez topatuko dutela delitu zantzurik, saiatu eta saiatu ari badira ere. Alderdiaren zein alderdikide esanguratsuen irudia eta biografia lohitzeko asmotan dira, baina ez dute lortuko.

Izan ere, ustez independente diren botereen arteko banaketa hausten denean edota justizia boterea helburu ilunek bultzatuta erabiltzen denean, Zuzenbide Estatua deritzona zalantzan jartzen da. Modu honetan gure helburuak are argiago izan ditzagun laguntzen digutela jakin bezate eragileek, espainiar estatuko (ezta frantziar estatuko) kide ez baitugu izan nahi. Euzko Justizia Sistema behar dugula berehala, honatx gure aldarrikapena arlo honetan.

Askatasuna eta Aberria, independentzia! Gorka, zure atzean baino, alboan gauzkazu. Eutsi eta ekin!

Jaurlaritzako diru laguntzak

Joxe Rojas (Topagunea Euskara Elkarteen Federazioaren eta euskarazko idatzizko 41 hedabideren izenean, besteak beste, GOIENKARIA, *Berria, Jakin, Ipurbeltz, Nabarra, Elhuyar*... > Euskal Herria

Euskarazko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzak hauen sustapenerako banatzen dituen diru-laguntzen gainean iritzi asko entzun dira azken asteotan. Hiru punturen gainean egin nahi genuke ekarpena ohar hau sinatzen dugun euskarazko hedabideetako eragileok:

- Bost urteko izoztea eta gero, euskarazko prentsarentzako diru partida milioi bat eurotan handitu zezala 2006an eskatu genion Eusko Jaurlaritzari. Deialdian 950.000 euro gehiago jaso dira. Horietatik, ordea, 59.050 euro baino ez dira milioi bateko igoera eskatu zuen prentsa idatziarentzat.

- Azken urteotan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hedabideekin diru-laguntzak banatzeko irizpideen gaineko hausnarketa egiteko asmoa adierazi izan du behin baino gehiagotan. Urteotan sortu diren eztabaida gehienek zerikusi zuzena dute irizpide horiekin (dela lehentasunak ezartzerakoan, dela aurrekontuak zehazterakoan edo prentsa elebidunarentzako laguntzak proposatzerakoan). Agiri hau sinatzen dugun eragileon iritziz, Administrazioa eta hedabideon artean irizpide horietaz hitz egiten hasteko momentua da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari azaldu izan diogu mahai baten inguruan gai hauetaz hitz egiteko gure borondatea eta, Kultura Sailak berak ere azaldu izan du horretarako prestutasuna. Denbora aurrera doa eta ez da hedabide eta Administrazioaren artean hausnarketarik egin; bitarte horretan, irizpide berri batzuk aplikatzen hasiak dira jadanik. Guk hausnarketa horri ekiteko prest gaudela berretsi nahi dugu.

- Hedabideetan euskararen presentzia handitzeko eta euskarazkoen kontsumoa areagotzeko euskarazko hedabideek edo elebidunek duten garrantzia eta funtzioaren inguruko eztabaida ere ez da berria. Orain arteko azterketek erakusten digute nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideetan euskararen presentzia ez dela igo euskaldunen kopurua handitzen joan den adina. Nagusiki erdara erabiltzen duten hedabideek hainbat saiakera egin dituzte (ohiko orrialdeetan berriak euskaraz idatzi, euskarazko gehigarriak egin,...) baina orain arte ez da garapen nabarmenik egon. Euskarazko hedabideek, ordea, garapen ikusgarria izan dute: duela 30 urte lauzpabost aldizkari izatetik 100 hedabide baino gehiago izatera pasa gara. Eskaintza handiagoa eta anitzagoa da eta, era berean, askoz ere irakurle kopuru handiagoa dute euskarazko hedabideek (informazio orokorrekoek, tokian tokikoek zein espezializatuek). Beraz, euskarazko hedabideak argitaratzen ditugun eragileon aldetik, eta euskarazko eskaintzan oraindik ere zeregin handia dagoela kontuan harturik, lehentasuna euskara hutsezko eskaintza indartu eta zabaltzen jarri beharra dagoela uste dugu.

Gay harrotasunaren eguna

Julia Monge eta Mikel Isasi (Zutik)
Arrasate

Pertsona homosexual, lesbiana eta transexualak estigmatizatuak eta baztertuak izan dira tradizionalki, nahiz eta beste edozein pertsonaren eskubide berdinak eduki.

Aurten, ekainaren 28ko ospakizunen harira, trufatua eta ez onartua izan den kolektibo honen aldarrikapenak aintzat hartu nahi ditugu, urteak baitaramatza bere eskubideen aitorpenaren alde lanean.

Justizia ministroak iragarri zuen ekainean aurkeztuko zuela Diputatuen Kongresuan Genero Identitatearen Legea. Iragarpen hori baliatu nahi dugu eztabaida pizteko sexu berresleipen tratamenduak osasun zerbitzu publikoan egiteko aukeren gainean. Lege hau indarrean jartzearekin batera, pertsona transexualen eskubide zibil eta sozialak aitortu behar dira. Horretarako ahalegin pedagogikoa egin behar dugu gizartea alde izan dezagun eta transexualtasunaren gaineko mito eta aurreiritziak uxatu ditzagun. Horrela bakarrik lortuko dugu amaitzea hiritar talde baten sufrimendu bidegabearekin, giza eskubideen aitorpenean sakonduko dugu eta gure herriari duintasuna emango diogu.

"Genero identitatearen trastornoa" berezko errealitate sozial bat da eta ez da buruko gaixotasun edo gizarte molda gabetasunaren ondorio.

Tramite parlamentarioari hasiera emango zaio orain eta adi egon beharko dugu lege berriak pertsona transexualen eskaerei erantzun diezaien. Oinarri edo abiaburu hauek izan behar ditu lege horrek: generoaren berresleipenari dagokion zerbitzu oso eta doanekoa; arreta psikoterapeutikoa, hormonen bidezko tratamendua eta ebakuntza plastiko eta kirurgikoak, hauen artean, sexu berresleipenaren gaineko kirurgia; umeak adoptatzeko eskubidea; Erregistro Zibilean izena eta sexua aldatzeko eskubidea, kirurgia ebakuntza ez egin arren; bazterketaren alde azaldu eta gizartearen, hedabideen eta osasun zerbitzuko pertsonalaren aldetik errespetuan oinarritutako tratua bultzatu; formazio eta informazio kanpainak bultzatu, gizartea transexualtasunarekiko sentsibilizatzeko eta hezteko neurriak hartuz; kartzeletan modulu bereziak egin genero identitatearen araberakoak.

Honekin guztiarekin lortu nahi dugu gizarte libreago, anitzago, adeitsuago, demokratikoago eta parte-hartzaileagoa eta honen guztiaren gainean hitzaldia eta musika festa antolatu ditugu egunotarako. Hitzaldia atzo, eguena, izan zen *Transexualtasuna, eskubide zibilak eta kartzela* izenburupean. Kontzertu festa, berriz, gaur, egubakoitza, izango da Arrasateko Jai Zale tabernan, 23:00etan, Los Ajustadores taldearekin.

San Martzialera laranjaz

Fernando Albeniz (Jorratzen)
Bergara

Jorratzenetik proposamen berri bat egiten dizugu. Hau ere preso politikoen eskubideen errespetua aldarrikatzeko, beraien ideia eta erronkekin bat egin beharrik gabe, baina kartzeletan bizi dituzten egoera gizagabeen aurrean begiak itxi gabe.

Ekimen honek, aurrekoek eta gerora proposatuko ditugunek bezalatsu, justiziarekin zerikusirik ez duen egoera dela pentsatzen duten pertsona ororen elkartasunak batzeko helburua du.

Horretarako aldarrikapen bakar honetan oinarritzen gara: duintasuna eta eskubideen errespetua.

Beraz, kamiseta laranja erosi eta domekan San Martzial kolore horrekin apaintzera gonbidatzen zaitugu, horrela aldarrikapen honi zure babesa adieraziko diozu. Animatu!

Bestalde, zapatu honetan arratsaldeko 8etatik 9etara Bergarako kaleetan, presoek eta beraien senide eta lagunek bizi dituzten egoerez informatzen duten kartelak daramatzaten pertsonak ikusi ahalko dituzu. Aldez aurretik mila esker eta ondo pasa San Martzial laranja batean.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Uraren Euskal Legea

Ura oinarrizko baliabidea da bizitzak aurrera egin dezan. Eskubidea da, bai, baina baita ondare mugatua ere.

Ondare hori babestu nahian, Eusko Jaurlaritzak Uraren Euskal Legea sustatu du, ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrean onartua.

Arau horri esker, uraren bestelako kudeaketa publiko integral bat ahalbidetuko da. Aprobetxamenduaren eta iraunkortasunaren arteko beharrezko oreka bermatuz. Beti ere, printzipio hauetatik abiatuz: parte-hartzea, gardentasuna, erantzukizuna, eraginkortasuna eta koherentzia.

Eta hau guztia, helburu garbi batekin: hain baliabide baliotsua dugun uraren erabilera eta babesa ondo uztartzea.

Ura ere, gure eskuetan dagoelako.

Informazio gehiago web orri honetan: www.ingurumena.net

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ingurumena.net
Gure esku dago

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ASTELEHENETIK AURRERA

BEHERAPENAK

ASTELEHEN GOIZEAN ZABALIK

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagoiena.net

Lanbide profilak

Arrasateko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1go maila
- Behe tentsioko instalazio elektrikoen laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

2. maila
- Industri mekanikoko laguntzailea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA
Uztailaren 3tik 14ra
9:00etatik 12:30etara

Non: Debagoieneko Lanbide Hastapeneko egoitzan.
Nafarroa Etorbidea 19 Pk: 237 20500 Arrasate
Tel. 943792890 Fax. 943793212
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com



LANBIDE HASTAPENA

2006-2007
IKASTURTEA

FONDO SOCIAL EUROPEO

Arizmendi ikastola

LANBIDE HASTAPENA Nafarroa etorbidea, 19 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) Tfnoa. 943792890 Faxa. 943793212

Herriak

Arrasate > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
Antzuola > 36 **Elgeta** > 37 **Leintz Gatzaga** > 38 **Aramaio** > 39-41

> ARRASATE
On Jose Luis Iñarra zenaren biografia batu dute, argitaratzeko **> 20**

> BERGARA
1.300 lagunek hartu dute tokia San Martzialen bazkaltzeko **> 24**

> ARETXABALETA
Arritxu Oliden alkateak herritarrei erantzun die *Debarri* saioan **> 30**

> ARAMAIO
Gaurtik astelehenera arte San Martin jaiak dira **> 40-41**

BERGARA > GIPUZKOAKO BIGARREN BULEGOA DA IBARREKOA

Eskualdeko enpresei laguntzeko bulegoa ireki du Elkargik Bergaran

ZABALIK
Bazkide diren nahiz ez diren enpresendako dago zabalik Bergarako bulegoa

ZERBITZUA
Finantzaketa arloan laguntzea eta aholkularitza ematea da helburua

MIGUEL ALTUNAN Odriozola, Susperregi, Lazpiur, Gallastegi, Zubiaurre eta Alberdi inaugurazio ekitaldian. O.E.

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Elkargik bulegoa zabaldu du aste honetan Bergaran. Debagoieneko enpresa ertain eta txikiei lagundu gura die Elkargik bulego horren bitartez eta inaugurazio ekitaldian inguruko enpresaburuak eta enpresa elkarte handietako ordezkariak egon ziren. Hantxe izan ziren, besteak beste, Miguel Lazpiur Confebaskeko presidentea, Eduardo Zubiaurre Adegiko presidentea, Victoriano Susperregi Elkargiko presidentea, Jesus Alberdi Elkargiko kontseilari ordezkaria eta baita Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea ere.

HANDIEK ADINAKO BALDINTZAK

Fidantza entitatea da Elkargi eta enpresa ertain eta txikiei finantzaketa lortzen laguntzen die, eta horixe egin gura du Debagoieneko enpresekin ere.

Fidantza laguntza ona eskaintzeko, handiek adinako baldintzak lortzen saiatu da Elkargi. "500 langile edo mila dituen enpresa batek eta 50 edo 10 dituen batek, fidantza baldintza berak izatea lortu dugu, eta hori gauza handia da", esan du Jesus Alberdi Elkargiko kontseilari ordezkariak Bergarako bulegoaren inaugurazio ekitaldian. "Euriborra gehi 0,25 da gure eskaintza. Baina prezioaz gain, epeak ere garrantzitsuak dira guretako eta eskaintza hori epe luzerako izatea ere lortu dugu", gaineratu du.

Debagoienean 225 enpresa bazkide ditu Elkargik eta horietatik %80 dira 50 langiletik beherako enpresak. Dena dela, Bergarako bulego horrek bazkideei nahiz bazkide ez direnei eman gura die zerbitzua.

GIPUZKOAKO BIGARRENA

Orain arte hiriburuetan bakarrik izan ditu egoitzak Elkargik. 2005-2008 urte bitarteko plan estrategiakoan, ordea, deszentralizazioa da helburuetako bat eta horren adibide dira joan den astean Durangon eta martitzenean Bergaran zabaldu dituzten bulegoak. Horrela, Gipuzkoako bigarren bulegoa da Bergarakoa, Debagoienekoa. Deszentralizazioarekin, enpresetara hurbildu gura du Ekargik eta gertuko harremanak sortu enpresekin. Irailean Zaragozan zabalduko dute beste bulego bat.

BERRIKUNTZA DA ETORKIZUNA

Finantzaketan laguntzeaz gain, aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen du Elkargik, eta, horren harira, etorkizunerako bidea berrikuntza dela aholkatu zien enpresaburu guztiei Miguel Lazpiur Confebask patronaleko presidenteak: "Garai guztiak dira ezberdinak. Lehen, ehungintzako enpresa asko zeuden Bergaran eta egun bakarra gelditzen da. Hala ere, industria indartsua dute Bergarak eta Debagoienak eta hori lortu dute egoera eta premia berrietara egokitu direlako. Eta etorkizunari aurre egiteko, berrikuntzan inbertitu behar dugu", azaldu zuen Miguel Lazpiurrek.

IBARGARAI KALEA, 30

Debagoieneko enpresaburuei laguntzeko lan egingo dute Bergarako bulego horretan. Hain zuzen ere, Ibargarai kaleko 30. zenbakian dago, palmera handi bat dagoen biribilgunetik gertu. Eta ibarreko enpresa ertain eta txiki guztiendako dago zabalik.

ORAIN ARTEKO DATUAK

> BAZKIDEAK
Elkargik 26 urte bete ditu aurten eta 8.700 enpresa bazkide baino gehiago ditu; horietatik 225 Debagoienekoak dira.

> ABALAK
Elkargik 22,3 milioi euro eman die abaletan ibarreko enpresei. Indarreko abalen %56 da 50 langiletik beherako enpresei emandako kopurua.

> ENPRESA KOPURUA
Elkargik emandako datuen arabera, Debagoiena osatzen duten udalerrietan 4.250 enpresa baino gehiago daude, Gipuzkoa osoko ia %7.

Ibarreko enpresa horiek 32.000 bat langileri ematen die lana, eta hori lurraldeko enpleguaren %12 inguru da.

> SEKTOREAK
Elkargik Debagoieneko enpresekin indarrean dituen abalen sektorekako banaketari dagokionez, %82 industriaren eta eraikuntzaren sektoreei dagokie eta gainerako %18, merkataritzaren eta zerbitzuen sektoreei.

> EURIBORRA + 0,25
Enpresa handiek duten abantaila bera eskaintzen die Elkargik enpresa ertainei eta txikiei: euriborra gehi 0,25 eta epe luzera.

> TELEFONO ZENBAKIA
Ibarrerako zabalik dagoen Bergarako bulegoa Ibargarai kaleko 30. zenbakian dago, palmera handi bat duen biribilgunearen ondoan, eta hauxe da hango telefono zenbakia: 943 77 70 74.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 1	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Domeka, 2	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Astelehena, 3	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Martitzena, 4	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 5	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Eguena, 6	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 7	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30

BERGARA

Zapatua, 1	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 2	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 3	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Martitzena, 4	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguaztena, 5	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguena, 6	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 7	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 1	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 2	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 3	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 5	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 6	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 7	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 1	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 2	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 3	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 5	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 6	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 7	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia) 943 46 11 11
DYA (Antzuola) 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) 943 76 55 76
Suhiltzaileak 943 78 28 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala 943 03 53 00
- Antzuola 943 76 62 23
- Aramaio 945 44 53 40
- Aretxabaleta 943 71 19 59
- Bergara 943 03 54 00
- Elgeta 943 03 54 00
- Eskoriatza 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola 943 76 62 46
- Arrasate 943 79 14 39
- Aretxabaleta 943 71 18 63
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate 943 79 12 22
- Aramaio 945 44 50 33
- Aretxabaleta 943 77 12 64
- Bergara 943 79 12 22
- Eskoriatza 943 71 40 59
- Oñati 943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera 943 76 10 15
Zerga Bulegoa 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate 943 77 11 43
- Bergara 943 76 44 42
- Oñati 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio 945 44 53 35
- Arrasate 943 77 16 77
- Aretxabaleta 943 71 26 28
- Bergara 943 76 56 41
- Elgeta 943 76 82 84
- Eskoriatza 943 71 53 28
- Oñati 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola 943 76 60 65
- Aramaio 945 44 53 74
- Arrasate 943 77 01 05
- Aretxabaleta 943 71 10 27
- Bergara 943 77 91 58
- Eskoriatza 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola 943 76 62 46
- Aramaio 945 44 50 16
- Arrasate 943 79 09 00
- Aretxabaleta 943 71 18 62
- Bergara 943 77 91 00
- Elgeta 943 76 80 22
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	**Aramaio**	**Arrasate**
	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN

Zapatua, 1
Barikuan baino apurtxo bat sargoriago egingo duen arren, ekialdeko haizeari esker, bero jasangarria izango dugu. Eta eguraldi politak segituko du.

Domeka, 2
Zapatukoari eutsiko dio domekan ere. Bero, baina eguzkipean gustura ibiltzeko modukoa. Astelehenean hasiko da nahasten eguraldia.

EUSKAL HERRIAN

Kosta zaio hobetzea, baina apurka-apurka hobera egiten hasi zen eguenean eta asteburuan eguraldi polita geratuko zaigu. Ekialdeko haizea izango dugu protagonista eta hari esker bero sanoa izango dugu. Oraingoan bai, giro aproposa dator eguzkiaz gozatzeko.



TENPERATURAK

MINIMOA Eguena, 22	**14 ºC**
MAXIMOA Zapatua, 24	**28 ºC**
ASTEKO EURIA (l/m²)	**15,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 21	26 ºC	16 ºC	- l/m²
Eguena, 22	20 ºC	14 ºC	- l/m²
Egubakoitza, 23	28 ºC	15 ºC	2,8 l/m²
Zapatua, 24	28 ºC	17 ºC	11,5 l/m²
Domeka, 25	20 ºC	14 ºC	- l/m²
Astelehena, 26	20 ºC	14 ºC	0,8 l/m²
Martitzena, 27	19 ºC	15 ºC	0,3 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA UZTAILEAN

Ilbehera	Ilberri	Ilgora	Ilbete
17	25	3	11

oharrak eta deialdiak

ARRASATE
> Interneteko mintegiak emango dituzte

Honako Interneteko mintegiak emango dituzte KZgunean: Outlook posta programarena (hilak 3) eta *Kutxa* 1 eta 2 (hilak 5 eta 6), denak 11:00-13:00.

OÑATI
> EHNA egiteko aukera izango da

EHNA tramitatzen izango dira bihar, zapatua, gazte bulegoan, 11:00etatik 13:00ak arte.

ESKORIATZA
> Irudi digitalak tratatzen ikasteko aukera

Irudi digitalen tratamendua delako ikastaroaren bigarren zatia emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 18:00-20:00.

BERGARA
> Umeendako margo eta marrazki ikastaroa

5-13 urte bitartekoendako margo eta marrazki ikastaroa antolatu du Beart elkarteak uztail goizetarako. Izenematea: 665 70 31 75 (Oihana) edo 653 71 53 82 (Mayra).

ARRASATE
> Kontsumoaren gaineko erakusketa

Kontsumoaren gaineko eta, zehazki, bidaien eta garraioaren gaineko erakusketa ipiniko du Jaurlaritzako Kontsumo Sailak Monterronen. Hilaren 5ean zabalduko dute, 10:00etan.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
> Udaero programan izena eman daiteke

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteria sailek uztailaren 25era arte luzatu dute Udaero udako aisialdi programan izena emateko epea. Datorren asteburuan, gaztelekuetan eman daiteke izena.

ELGETA
> Arraten jaia egingo dute erretiratuek

Uztailaren 13an jaia izango dute Debabarreneko erretiratuek Arraten, eta Elgetakoek ere izena eman dezakete. Pedro Mari Uberarengana joan behar dute horretarako.

DEBAGOIENA
> III. Ideia eta Proiektu Berritzaileen Sariketa

Landa eremurako ideia eta proiektu berritzaileen sariketa antolatu du Deba Garaiak, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak. 1.000 eta 500 euroko sari bana eta proiektua lantzeko 3.000 euroko beka emango dituzte. Txostenak Deba Garaiaren elkartera eraman behar dira irailaren 22a baino lehen. Argibideak: 943 76 25 47.

ELGETA
> 'Euskara ziberespazioan' ikastaroa

Ikastaro hori emango dute hilaren 5ean, eguaztena, KZgunean, 10:00-12:00.

OÑATI
> Udalekuak astelehenean hasiko dira

Udalekuak hilaren 3an, astelehena, hasiko dira. 2000, 2001 eta 2002an jaiotakoek gaztelekura joan behar dute 10:00etan, eta gainerakoek, berdura plazara, ordu berean.

BERGARA
> Igeri elkartearen zozketaren gainean

Igeri elkartearen zozketako txartelek akats bat dute: zozketaren data ez da 2006-07-15, hor agertzen den moduan, 2006-07-14 baizik.

BERGARA
> Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardunek

Txalaparta ikastaroa emango dute uztailaren 10etik 12ra eta 17tik 19ra. Izenematea zabalik dago Jardunen bulegoan (943 76 36 61).

OÑATI
> Dendariendako Internet ikastaroak

Interneten hezteko 20 orduko ikastaroak emango dituzte uztailean, 14:00-16:00. Bereziki dendariei zuzenduta daude. Ordenagailua erabiltzen, Interneten nabigatzen, informazioa bilatzen… irakatsiko dute. Argibideak: 943 71 83 20.

DEBAGOIENA
> Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak

UEUk udako ikastaroak antolatu ditu, eta informazioa lor daiteke *www.ueu.org* webgunean.

DEBAGOIENA
> Garapen pertsonaleko kluba sortu dute

Garapen pertsonalerako eta aisialdirako kluba osatu du Gestalt Arabak, eta Aretxabaletako kideek parte hartzeko dei egiten dute. Uztailaren 8an batuko dira masajeak, thaia, yoga… egiteko. Izenematea: 692 71 38 21.

OÑATI
> Izenpeko Herritarren Txartela erabiltzen ikasteko jardunaldiak egingo dituzte

Izenpeko Herritarren Txartela egin daiteke KZgunean. Internet bidez herriko eta kanpoko administrazioekin lan egiteko eta dokumentuak eskuratzeko balio du. Horren gaineko informazioa emateko ordubeteko ikastaroak emango dituzte. Argibideetarako, deitu 943 71 83 20 telefono zenbakira.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Ze iruditzen zaizu Elgetarako dagoen etxebizitza kopurua?

Ana Mari Arrieta
Langilea
Elgeta

Hain herri txikia izanda gehiegi dela iruditzen zait. Etxebizitzak egiten ari dira, salmentan ere ipini dituzte. Itxaron egingo nuke eta beharra zenbaterainokoa den ikusi gehiago eraiki aurretik.

Jose Luis Markiegi
Langilea
Elgeta

Larregi da. Beti bizi izan gara 1.000 lagun inguru Elgetan eta hori da kopuru egokia, eta gora doa hori. Bertako jendeak ere erosi ditu etxebizitzak, baina kanpotik dator jende gehiena.

Olga Fernandez
Langilea
Elgeta

Ongi iruditzen zait; etxebizitzak eraikitzen badituzte jende gehiago etortzeko edo bertakoak gelditzeko izango da. Hala ere, ez nuke nahi Elgeta lotarako herria bihur dadin.

Julian Azkarraga
Erretiratua
Elgeta

Etxebizitza larregi egiten ote dabiltzan iruditzen zait. Herria orain dagoen moduan dago polita, eta jendea batetik eta bestetik etortzen bada Elgeta asko aldatuko dela pentsatzen dut.

Miren Arantzeta
Erretiratua
Elgeta

Ondo iruditzen zait. Ohitu gara jende gutxi biziten eta etxe gehiago eginda biztanle kopuruak gora egiten du. Hori komeni zaigu bai negozioa daukagunoi eta ez daukatenei ere.

txaloak eta txistuak

U.M.

Baranda zebra bidera arte

Arrasateko Musakola auzoko erretiratuek eskatu zioten Udalari euren egoitzaren sarreratik zebra bidera baranda ipintzeko. Hala, erretiratu eta bestelako oinezkoak babestuago egoteaz gainera, zebra bidetik gurutzatzen dute errepidea, eta ez lehen moduan, edozein lekutatik.

usteak uste

Mirari Altube

Gero eta gris gehiago dugu inguruan

Aste honetan ez dugu eguzkiaren larua asko ikusi eta ez dakit horren eraginez edo zer, baina iruditzen zait marroi eta gris bihurtu zaizkigula bazterrak.

Autobideak ekarritako kamioi eta hondeatze-makinek sortutako hautsaren marroi koloreak, porlan eta asfaltoaren grisari egiten dio paso leku askotan. Arrasateko Garibai kalea, esaterako, oso aldatuta topatu dut San Juanetara hurreratu naizenean. Dotore bai, dotore geratuko da, baina grisa, oso grisa.

Aretxabaletan hasi dira zelai berdeetatik lur marroia ateratzen etxebizitzak egiteko. Eta Urkulun bertan ere asfaltoaren grisa jarri diote urtegi inguruari. Antzuolan, bestalde, berdea defendatu guran dabiltza, Sagasti parkeko berdea, grisa gailendu ez dadin. Eta beste zenbat halako…

Errepideak, aparkalekuak, etxebizitzak, gizarte eta kultura etxeak… guztiak behar ditugu, bai, baina ondo hausnartuta. Bestela koloreentzat ere berdintasunaren legea atera beharko dute: berdea grisaren pare jartzen ez duena dirulaguntzarik gabe. Barregarria, e? Hala konpontzen ditugu ba guk kontuak.

Berdea itxaropenaren kolorea ei da. Eta guk gero eta berde gutxiago dugu.

5 galdera...

Mari Jose Altuna

Familia ugariko ama
Aretxabaleta

1. Euskadi azkena da familia ugariendako laguntzei dagokienez?

Aretxabaletako Udalak ez ditu larregi ematen. Oso gutxi kobratu behar duzu zergetan-eta, abantailak izateko, beste batzuk gehiago ematen dituzte. Jaurlaritzak, berriz,, bost urtean ematen dizuten laguntzatik aparte, laguntzak baino gehiago ditugu zailtasunak.

2. Eguneroko bizimoduari dagozkien zailtasunak izaten dira horiek?

Esaterako, izan behar duzu automobil bat umeendako aulkiak sartzeko bestekoa eta batzuetan ez dira halako hiru kabitzen. Oporretara joateko, ez dituzte onartzen hiru seme-alaba eta bi heldu… Jaiotze-tasa handitu behar dela diote, baina zailtasun mordoa aurkitzen ditugu. Eta alderantziz beharko luke; esaterako, hezkuntza-dendetan, etxeko-lanak egiteko materialetan beherapenak-edo egon beharko litzateke.

3. Donostiako festan eskatu zuten familia eta lan bizimodua adostea…

Nik, berriz, ez dut etxetik kanpo lan egiten eta ikusten dut erraztasunak dabiltzala ematen etxetik kanpo dabiltzatenendako. Baina ez etxean dagoenarendako. Erraztasunak ematen dizkiete bi soldata dituztenei. Besteok, berriz, soldata bakarra dugu eta, ekonomikoki erraztasun txikiagoak.

4. Familia ugarien kasuan emakumea lanpetuen; edo, biak ibili behar?

Nire etxean, ni geratu naiz, beste gauza batzuk baloratu ditudalako: garrantzitsuagoa da, adibidez, hemen egotea urtean lau bider oporretan joatea baino. Nik aukeratu dut, ez naute behartu.

5. Zer sakrifikatzeko gertu egon behar da familia ugaria izateko?

Gurasoen kasuan, ekonomikoki badakizu ikasketak eman beharko dizkiezula, edo Aretxabaletan, esaterako, udalekuak, musika… ordaindu behar ditugula. Hileko lehen bost egunetan, ezer egin barik, euro mordoa gastatzen ditugu eta hori asko igartzen da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

751.671

Horixe da Arrasateko Udalak 2006ko dirulaguntzetarako emango duen kopurua, jasotako eskaerak aztertu eta gero. Kultura (41.775 euro), Euskara (472.540 euro), Irakaskuntza (230.256 euro) eta Gazte Saileko (7.100 euro) dirulaguntzak dira.

UDALA > ZERBITZU BERRIA ABIARAZI DUTE

Atzo, eguena, inauguratu zuen alkateak, herritarrei harrera egiteko Udal bulegoa

Herritarren zerbitzura bost lagun ariko dira eta eguaztenean hasiko dira lanean, goizez

Abuztuan ere zabalik izango da Biztanleen Arreta Zerbitzua, 08:30etik 14:00ak arte

INAUGURATUTA Inazio Lakuntza alkateak inauguratu zuen atzo Biztaleen Arreta Zerbitzua. IKER BARANDIARAN

UBANE MADERA > ARRASATE

Bukatu dira herritarren joanetorriak udaletxera eta udaletxeko leihatiletara. Izan ere, datorren eguaztenetik aurrera, zerbitzu zentralizatua eskainiko du Arrasateko Udalak: Biztanleen Arreta Zerbitzua.

Atzo, eguena, inauguratu zuten bulegoa eta ekitaldira gonbidatuta zeuden ibarreko alkate guztiak, Jaurlaritzako ordezkariak, Arrasateko auzo alkateak eta, jakina, Arrasateko Udaleko ordezkari eta langileak, tartean, Inazio Lakuntza alkatea.

Edozelan ere, atzo inauguratu arren, eguaztenean hasiko dira lanean, egun batzuk utzi nahi dituztelako, bereziki, instalazio informatikoa probatzeko.

HASIERAKO ESKAERA GUZTIAK

Kontuak kontu, eguaztenetik, herritarrek Maisu Arano kalera jo beharko dute. Han, BAZetik bideratuko dituzte Udalarekin egin beharreko gestio guztiak: obra txikiak egiteko baimenak, errolda ziurtagiriak, bizikidetasun ziurtagiriak, denda bat zabaltzeko baimen eskaera… Udalera sartu gura den edozein idatziri BAZen eman beharko diote sarrera; eta BAZera jo beharko dute, baita ere, Diputaziora edo Jaurlaritzara bidali beharreko idatziei sarrera emateko ere.

Bestalde, kexak eta iradokizunak ere BAZen egin beharko dituzte herritarrek.

TELEFONO BEREZIA: 010

Horrez gainera, telefono zerbitzua izango du bulego berriak: 010. Horra deituta, Udalaren gaineko zein udalerriaren gaineko informazioa eskatu ahal da eta izapide jakin batzuk ere telefono horren bitartez bideratuko dituzte, esaterako, eskatu ahal da errolda ziurtagiria eta gero, BAZetik etxera bertara bidaliko dute, bulegotik pasa barik.

Zerbitzu berriaren helburua da leihatila bakar moduan funtzionatzea, herritarrei errazte aldera Udalarekin izan beharreko harremana.

Eta helburu horrekin, BAZen hurrengo pausoa izango da web orri baten bitartez ere eskaintzea tramiteak egiteko aukera.Era berean, bestelako lanak ere hartzen joango dira. Esaterako, han ipiniko dute gauza galduen bulegoa. Baina hori aurrerago izango da; oraingoz, zerbitzu berria estreinatu beharko dugu.

JAKIN BEHARREKO INFORMAZIOA

Egutegia, ordutegia eta beste

Datorren eguaztenetik aurrera, astelehenetik egubakoitzera bitartean zabalduko dute Biztanleen Arreta Zerbitzua, 08:30etik 14:00etara arte. Ordutegi hori erabiliko dute irailera arte. Eta irailaren 1etik aurrera, berriz, goizez eta arratsaldez zabalduko dute, astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Eta zapatuetan goizez zabalduko dute, 09:30etik 13:30ak arte.

Arrasatetik BAZera deitzeko telefonoa da 010. Arrasatetik kanpo egonez gero, berriz, 943 25 20 50 telefonora deitu beharko da. E-posta honako hau da: *baz@arrasate-mondragon.net*.

ATXILOKETAK

Iturbe eta Larrañaga preso sartu dituzte

Oraingo asteko eguaztenean pasatu ziren biak epailearen aurretik

U.M. > ARRASATE

Kristina Larrañaga eguazten goizean pasa zen askatasuna edo kartzelaratzea erabakitzen duen epailearen aurretik, Soraluzeko Eloi Uriarterekin batera. Epaile horrek bat egin zuen Le Vert epailearen asmoekin eta hala, bi iheslariak presondegian sartzeko agindu zuen.

Angel Iturbe, berriz, arratsaldean hartu zuen epaileak. Baina emaitza bera izan zen: hura ere kartzelara sartzeko agindua eman zuen-eta.

ATZERAPENA ESKATU ZUTEN

Bi arrasatearrak joan den asteko martitzenean atxilotu zituzten, beste hamar lagunekin batera. Bost egunez inkomunikatuta izan eta gero, zapatuan, ekainaren 24an Le Vert epailearen aurretik pasa ziren. Haren ostean, askatasuna edo kartzelaratzea erabakitzen duen epailearen aurretik pasa behar zirenean, arrasatearren konfiantzazko abokatuak atzerapena eskatu zuen. Horregatik eguaztenera arte ez dugu jakin zer gertatuko den bi iheslari horiekin. Gainera, atxilotu eta epailearen aurretik pasa arte, inkomunikatuta izan dituzte, Anjel Iturbe Miarritz-Fresnes-ko kartzelan eta Kristina Larrañaga, berriz, Azkaine-Fleuryko kartzelan.

SUTEA > MULTIFOOD ENPRESAN

Egoerak utzi bezain laster hasiko dira atzera lanean

Gertatutakoa ikertzen eta egoera ebaluatzen dabiltza; %20-30 kaltetu dela uste dute

U.M. >ARRASATE

Multifood-eko gerente Igor Juaristik esan digunez, hasierako itxuraren arabera, enpresaren %20-30ek izan ditu suteak eragindako kalteak. Sua labe batean piztu zela kontatu digu eta oso-oso bizkor zabaldu zela; eta orain guztia ikertzen dabiltzala jakinarazi digu.

Edozelan ere, eta aurreneko balorazio moduan zera gaineratu digu: "Badirudi eraikina bera ez dela kaltetu; badirudi karkasa egonkor dagoela eta ez duela kalte estrukturalik. Dena dela, garrantzitsuena da ez dela egon kalte pertsonalik". Juaristik kontatu digu diagnostikoa egin ostean, lantegia martxan ipintzea gura dutela ahal bezain laster, "egoerak uzten badigu, jakina".

Eskerrak ere eman gura izan ditu: "Herritarrei, gure bezeroei, hornitzaileei… emandako erantzunarengatik eta erakutsi duten ardurarengatik."

GOIZALDEAN Uribarri auzoan dagoen Multifood lantegian martitzenean gertatu zen sutea, goizaldean. GOIENKARIA

UDALA > GELMAREN AUZIA

EAk gobernua utziko du egoera konpontzen ez bada

Alderdi popularrak, berriz, Inazio Lakuntza alkatearen dimisioa eskatu du

UBANE MADERA > ARRASATE

Eusko Alkartasunak jakinarazi digu Gelmaren eta Udalaren arteko batzorde negoziatzailean, EAren presentzia ez dela egokia. "Ines Aldaik salatu dituen irregulartasun urbanistikoen aurrean, Hirigintza eta Alkatetza dituen alderdiak ardurak ez dituela hartu ikusita, eta alderdi horretako ordezkariek Gelma/Obenerrekarekin negoziatzeko orduan erakutsi duten koherentzia eza ikusita, erabaki dugu batzorde negoziatzailea uztea".

Halaber, EAk argi utzi gura izan du bakarrik birritan batzartu dela batzorde negoziatzailearekin eta ez duela beste inolako batzar pribaturik egin.

15 EGUNEKO EPEA

Horrekin batera, gobernua utziko duela ere esan du EAk, udalbatzarrean sortu den egoera konpontzen ez bada: "Ikusita konponbide egokia aurkitzeko ez dela aurrerapausorik egin, EAren udal taldeak eta zinegotziek 15 eguneko epea eman du egoera konpontzeko. Horrela ez bada, EAk ez du ez gobernuan segituko ezta batzorde informatiboen presidentziekin segituko. Bestelako irtenbideak aurkitu beharko lirateke".

DIMISIOA ESKATU DU PPK

Bestalde, PPko Itziar Lamarin bozeramaileak Gelmako auzia dela-eta, Inazio Lakuntzaren dimisioa eskatu zuen prentsaurrekoan, "eta berarekin eraman dezala Ugarte". Informazioa ezkutatu zaiela salatu zuen eta besteak beste, alkateak gardentasun barik jardun duela. Halaber, gainerako udal alderdiek gai horretan ardura badutela adierazi zuen

Bestalde, Cerrajerako etxeak direla-eta, Caixa eta Visesaren proposamenen aurrean Caixaren aldeko erabakia hartzearen arrazoiak argitzeko ere eskatu zuen Lamarainek.

PREBARIKAZIO SALAKETA

EBk, berriz, Auzitegi Goreneanean salaketa aurkeztu du, Lakuntza alkatearen eta Loiti alkate ohiaren kontra. Gura du argitu Gelmaren operazioa gauzatzeko "prebarikazio, fondo publikoen bidegabeko erabilera edo funtzionario-eroskeria delituak egin dituzten".

PRENTSAURREKOA PP-ko Itziar Lamarain eguaztenean. U.M.

AMAIA URIBARREN

Transexualen eskubideen defentsan

Aurtengo Gay Harrotasunaren Eguna (ekainaren 28a) erabili dute, bereziki, transexualen eskubideak aldarrikatzeko. Eta helburu horrekin elkartu ziren zenbait herritar eguazten iluntzean Herriko Plazan, kale agerraldian. Hain zuzen ere, transexualen egoera larria salatu zuten, gizartean uste delako transexualitatea osasun arazo bat dela eta hormonazioarekin eta ebakuntzen bitartez bideratu gura dutelako medikuek. Ikusten den moduan, zenbait alderdik bat egin zuten agerraldiarekin.

OBRAK ETA ZERBITZUAK

Zenbait puntutan argiteria hobetuko dute

U.M. > ARRASATE

Gorostizan, Gesalibarren eta Maalako kantoian argiteria hobetzeko lanak adjudikatu ditu Udalak oraingo astean. Hain justu ere, Aranzabal S. Coop. enpresak egingo ditu 19.035,80 euroko aurrekontuarekin. Eta Udalaren diktamenean zehaztu dutenez, lanak egiteko agindua jaso eta hilabeteko epean bukatu egin beharko dituzte. Gainera, Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailak garrantzi handia eman dio epea errespetatzeari.

OINEZKOEN ARGITERIA

Bestalde, Aranzabal S.Coop enpresari adjudikatu dizkiote, baita ere, oinezkoen pasabideetan argiteria hobetzeko lanak. 23 puntutan egingo dituzte lanok.

> LIBURUTEGIA

Aurten, abuztuan ere, goizez zabalik izango da Monterrongo Udal Liburutegia

Iaz zabaldu zuten aurreneko aldiz Monterrongo Udal Liburutegia udako oporraldian eta aurten gauza bera egingo dute. Hain justu ere, datorren uztailaren 17an hasiko dira udako ordutegiarekin lanean eta hala ibiliko dira irailaren 11ra arte. Tarte horretan goizez zabalduko dute, 09:30etik 13:30ak arte. Era berean, eta oporretara begira, Monterronen ere eskuratu ahal izango dira Jaurlaritzak adin guztietako irakurleendako egiten dituen irakurketa gomendioak *Biblioporrak* izeneko gidan.

Datorren asteari begira, berriz, eguaztenean, Monterrongo erakusketa aretoan Jaurlaritzaren kontsumoaren gaineko erakusketa ibiltaria inauguratuko dute, 10:00etan.

> INGURUMENA

Uraren kontsumoa gutxitzeko proiektua aurkeztu du Ezker Batuak

Arrasate, XXI. mendeko uraren hiria izeneko proiektua aurkeztu du EBk Udalean. Madrilgo Alcobendas hiria adibide moduan ipinita, EBk proposatzen duena da ura aurrezteko mekanismoak abiaraztea Arrasateko etxebizitza, lokal komertzial, eraikin publiko eta bestelako zerbitzuetan. Joseba Ugalderen esanetan, Alcobendasen ura aurrezteko ipinitako mekanismoek "posible egin zuten urtean, 100 milioi litro ur baino gehiago aurreztea, 100 igerileku olinpikoek erabiltzen duten beste ur". Mekanismo horiek ipintzeaz gainera, EBk bestelako neurriak ere proposatu ditu Udalean: herritarren sentsibilizazioa lantzea, publizitate kanpainak egitea eta Uraren Jaia izeneko ekitaldia egitea.

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KONTRATAK
IRVROK S. L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

HISTORIA > ON JOSE LUIS IÑARRA GOGOAN

On Jose Luis Iñarra zenaren biografia batu dute liburu baterako

Josemari Velez de Mendizabalek eta Eusebio Iñarrak egin dute lan hori

On Jose Luis Iñarraren biografia egin dute, haurtzarotik Arrasaten hil zen arte

ZERRAJERAN Daniel Montalban *Folio* biatorista, On Jose Luis Iñarra, (atzean) Juan Manuel Azkoaga, Font Andreu gotzaina eta Zerrajerako Camilo Basterretxea. IÑARRA ARTXIBOA

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Josemari Velez de Mendizabalek eta On Jose Luisen iloba Eusebio Iñarrak egin dute lana. Euskaraz idatzi dute eta Udalari eman diote. Orain Udala gaztelerara itzultzen dabil, bi hizkuntzatan kaleratzeko. Egileek ez dakite noiz kaleratuko duten, baina aproposa deritzote aurten argitaratzeari, urriaren 10ean On Jose Luis Iñarra hil zeneko 30. urteurrena beteko delako.

Iaz On Pedro Salaberri abadearen omenaldiko bazkarian Velez de Mendizabalek eta Eusebio Iñarrak bat egin zuten, eta On Jose Luis Iñarraren gainean lanen bat egiteko ideiari bueltak ematen hasi ziren. Horren ostean, bi lagunak elkartu eta lanean jarri ziren. Iñarrak osabaren gaineko dokumentazio ugari pilatuta dauka (argazkiak, audioa, Super 8 formatuko irudiak, bestelakoak...), eta Velez de Mendizabalek hainbat elkarrizketa egin zituen informazioa osatzeko.

PARROKOAREN BIOGRAFIA

Iñarrak 35 urte egin zituen herrian, baina lan hori egiteko orduan, egileek parrokoaren bizitza osoa aintzat hartu dute. Oiartzunen egindako haurtzarotik Gasteizko seminariora, eta Arabako herritxo batzuetan aritu ostean Arrasateko egonaldia.

Iñarraren bizitza osoari gainbegiratua egin dioten arren, Arrasaten egindako egonaldi emankorrean oinarritu dituzte liburuko orrialde gehienak.

Velez de Mendizabalen esanetan, Jose Luis Iñarrak "bizitza espirituala bultzatzeaz gain, herrian lan erraldoia egin zuen: osasungintzan, hezkuntzan, etxegintzan... Herritarrek asko maite zuten eta bere oroitzapena oso presente dago oraindik".

Velez de Mendizabalen esanetan "ezin daiteke ulertu Arrasateko historia On Jose Luis Iñarra eta On Jose Maria Arizmendiarrieta kontuan hartu barik". Egun bateko aldearekin etorri ziren Arrasatera, eta bata bestearen osagarri izan ziren elizgintzan eta herrigintzan.

ARRASTO HANDIA UTZI ZUEN HERRIAN

Etxeko ateak herritar guztiei zabaltzen zizkien bihotz handiko elizgizona

On Jose Luis Iñarra Oiartzunen jaio zen 1907an. Gaztetxotan Gasteizko seminariora joan zen ikastera, eta horren ostean Gasteizko herritxo batzuetan egon zen abade. 1941ean, Arrasatera etorri zen, On Jose Maria Arizmendiarrieta herrira heldu zen biharamunean. Iñarrak parrokiako ardura nagusia hartu zuen eta elizako lanaz gain, herritarren alde egin zuen alor askotan. On Jose Luisen iloba Eusebiok ondo gogoratzen du "etxeko ateak beti herritarrei zabalik egoten zirela, eta jende asko etortzen zela laguntza eske. Bihotz oso handikoa zen, eta hil zenean mota guztietako herritarrak ezin kabitu egon ziren Herriko Plazan".

MUSIKA > ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Gaur, egubakoitza, Big Band taldeak emanaldia egingo du

Bihar, zapatua, Musika Eskolako Bandak kontzertua egingo du Altsasun

I.B. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Monterron parkean. 22:30ean izango da emanaldia, eta 35 bat musikarik esku hartuko dute. Zuzendaria Zigor Martinez da, eta mota askotako piezak joko dituzte. Aurreko aldietan arrakasta handia izan dute haien kontzertuek eta ziurrenik oraingoan ere jende multzo polita batuko da Monterronen.

BESTE BI EMANALDI KANPOAN

Horrez gain, bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Bandak emanaldia egingo du Altsasun 20:00etan. Iker Olazabalek zuzenduko du banda, eta Altsasuko taldearekin trukea egin dute.

Bestalde, astelehenean, hilaren 3an, Arrasateko Musika Eskolako ikasleak diren aramaioarrek kontzertua egingo dute Aramaioko jaietan. Emanaldi hori 19:00etan izango da, herriko eliza nagusian.

ELGETA Big Band taldeak Elgetan egindako kontzertu baten irudia. ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA **II. LEHIAKETA**

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 2ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria: Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.

2 Talonplán Viajes

3

- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea: kutxa

Laguntzaileak: kiñu argazkilariak · Barceló Bidaiak · GURE AMETSA JATETXEA

ASTELEHENEKO Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedun egiteko: 902 36 38 51



MENDIKO BIZIKLETA > TOLOÑORA IRTEERA

Toloñori itzulia emateko irteera antolatu du Besaide MTBk

Uztailaren 15ean, zapatua, egingo dute Toloño inguruetara irteera. Goizean bizikletan ibili eta gero, Bastidako upelategi batean bazkalduko dute

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Oporretara joan aurretik Besaide MTBk mendiko bizikleta irteera antolatu du. Oraingoan Arabako Errioxara egingo dute, Bastida inguruetara. Jendeak horrenbeste ezagutzen ez duen parajea delako, bizikletan ibiltzeko ibilbide ederrak daudelako, eta zergatik ez esan, inguruan gura beste upelategi daudelako erabaki dute Besaidekoek Toloñora joatea.

LAUGARRENA Arrasateko inguruetan egin zuten Besaidekoek azken irteera; lehenago Izkin eta Gorbeian ibili dira. BERAKA

25 KILOMETROKO IBILBIDEA

Bastidan dagoen San Gines parkean hasiko dute itzulia. Toloñoren magalean, ziklistek eskuin aldera egingo dute, zuzen jarraituz gero malda gogorregiekin egingo lukete-eta topo. Hala, Bastidatik Ribaseko portura egingo dute. Zati hori asfalto gainean egin beharko dute, baina berehala egingo dute mendi aldera, Araba aldean dagoen Zazpi-Iturri ingurura. Toloñoren iparraldean dagoen bailara ederra da hori. Han, gura dutenek Toloñora igo ahal izango dute, baina jakin, bizikletak bizkarrean dituztela egin beharko dutela gora. Tontorreko ikuspegiagatik, eta mendiaren mendebaldetik dagoen jaitsieragatik, merezi du. Salinillas de Buradon aldera egingo dute gero, jaitsiera ederra da, baina herri horretara iritsi aurretik ezkerretara egin beharko dute, San Gines parkera berriro ere.

GERO, BAZKARIA

Goiz partean mendiko bizikletekin itzulia egin eta gero, Bastidan bertan bazkatzea da asmoa, upelategiren batean. Irteera horretarako izena eman gura dutenek uztailaren 10ean (astelehena) edo 11n (martitzena) izango dute horretarako aukera. Mendiko bizikleta taldekoak 19:30etik 20:30era arte egongo dira Besaideko egoitzan.

MENDIA

Besaidek domekan egingo du irteera

Tolosa eta Azpeitia lotzen dituen GR9 edo Zezenen Bidea egingo dute

X.U. > ARRASATE

Normalean baino lehenago aterako dira oraingo domekan Besaideko lagunak Tolosa aldera. 07:00etan egin dute hitzordua, Garibain. Izan ere, udan murgilduta ez da komeni eguneko ordu eguzkitsuenak harrapatzea. Azken egunotako eguraldia ikusita, baina, badirudi hori ez dela arazo izango.

ZAZPI ORDU IBILTZEN

Hori da GR9ko ibilbide hori egiteko behar den denbora. Besaidekoek aurreikusten dute zertxobait azkarrago iritsiko direla Azpeitira, baina presa barik ibiliko dira. Irteera horretara zenbat lagunek izena eman duten jakin barik, aurreko irteeratan batazbesteko 70 lagun inguru animatu dira, eta domekakoa ez da bestelakoa izango.

IRTEERA BERTAN BEHERA

Bestalde, Gazte Ekintzetako irteera bertan behera utzi behar izan dutela esan digute Besaidekoek, bi lagunek bakarrik eman dutelako izena.

> UDAKO KIROL KANPAINA

Uztailaren 6an amaituko da bigarren hamabostaldirako izena emateko epea

Lehenengo hamabostaldirako izena emateko epea agortuta, dagoeneko posible da bigarren hamabostaldirako izena ematea. Kirol eskaintzak ez du behera egin: piraguismoa, patinajea, tenisa, eskupilota... Lehenengo hamabostaldian, adibidez, piraguismoa izan da jendeak gehien aukeratu duen modalitatea. Hala, bigarren txandan ibiliko direnek uztailaren 10etik 13ra bitartean landu ahal izango dute kirol hori. Horretarako, bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 28 euro. Lehenengo txandan moduan, bigarrenean ere Bergarako Beti Busti Elkarteko *Kuxi*k emango ditu eskolak. Udako kirol kanpainako informazio gehiago izateko deitu Arrasateko kiroldegira, 943 77 16 77.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Maria Jose Gil Domina parea ekarri guran

Dagoeneko Murtzian dago Arrasate Atletiko taldeko Maria Jose Gil. Asteburuan egingo dute Beterano Mailako Espainiako Txapelketa, eta Arrasatekoak 1.500 metroko eta 5.000 metroko lasterketetan hartuko du esku. Aurreko edizioetan gertatu den moduan, Maria Jose Gilek kontrario gutxi izango ditu aurre egiteko moduan egongo direnak. Seguruenik, bere burua izango du kontrario handiena, marka pertsonalak gainditzea izango du-eta helburu. Bi lasterketetan esku hartuta, urrezko bi dominen bila joango da Maria Jose Gil.

Joan den astean, berriz, Remi Diosdadok eta Jonathan Perezek zuten ohiko maila erakutsi Anoetan egindako lurraldekako txapelketan.

OIHANA ELORTZA

bote prontuen

Markel Urrutia > DAT tabernie

"Goixetik gabera arte zabalduko dou"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Ezin dou esan Mondraguek taberna barrixe daukonik; izen be, Markelek, Oierrek, Hodeik eta Unaik zabaldu barri dauen tabernie ez da egin barrixe. Lehen Ispilu zana erosi daue, eta aurpegixe aldatute aurkeztu daue. DAT da tabernien izena, eta Markelek emun dusku horren berri.



Zergaittik DAT?

Uf, buelta asko emun dutzou izenan asuntuei. Ideietako bat zan Ispilu biherrien Istilu jartie, baitte Ipurtzulo jartie be. (Barre) Ingelesezko izenak be bageuken, baiñe azkenien euskerazkue erabaki geuen. Taberniei margotzerakuen *western* itxurie emun dutzou. Horren konture, daltondarrak lau anai zien, eta geu be lau gare. Azkenien, Dalton Anaien Taberna: DAT.

Eta, ze asmokin zabaldu dozue tabernie?

Lehen, Ispilu taberniek pub moduen funtzionetan euen. Aste bukaeretan egitten euen lan, eta guk aldatu egin gure dou hori. Goizetan zabalduko dou tabernie, eta gabera arte egongo da zabalik. Azken baten, jente gaztien tabernie izeten bada, ondo; nagusixek etorten badie be, ondo; eta gaztiek eta nagusixek etorten badie, edarto.

Tabernari gaztiek zarie danak, baiñe han eta hemen ibillittakuek.

Bai, *Moe*-k (Unai), *Magu*-k (Oier) eta nik hainbat tabernatan egin izen dou lan. Pentsetan dot *Moe*-k hamahiru urte egin dauela barra atzien. Goiaranen ibilli nitzen berakin, eta gero Lagunillan be ibilli zan; azkeneko urtiek, barriz, Iratin egin dau. Hodeik, adibidez, barra atzien ez dau horrenbeste lan egin, baiñe Elorrixoko Narru jatetxeko sukaldien egon da, eta ondo ezaguketan dau lana.

Inaugurau eta gero, San Juanetarako zabaldu dozue atiek; zelako jaixek izen die?

Gu pozik geratu gare, publizidaderik egin barik jente asko ibilli dalako tabernan. Egubakotxa izen zan egun fuertiena, eta zapatue bajutxuaue izen zan. Domekan jente gutxiau, eta astelehenien ba... Egixe esateko, geruau eta jente gutxiau ibiltten da San Juanetan, jentiek oporrak eukitte kanpora egitten dauelako.

txutxu-mutxua

ALBERTO ENCINAS

Jai Zale tabernako mahai futbol txapelketan, Haimar eta Txolo txapeldun

Erretratuko seikotea sailkatu zen Jai Zaleko mahai futbol txapelketako finalera, baina konturatuko zinetenez (daukaten irribarrea ikusita), buru gainean txapela dutenak izan ziren irabazleak, noski. Hiruko torneo modukoa egin zuten finalean, baina inork espero ez zuena gertatu zen, bikote bakoitzak partida bakarra irabazi zuela, eta guztiak 9-6, gainera. Hala, berriro jokatu behar izan zuten finala. Irabazleek txapelekin batera txanpan botila eta opari mordoa eskuratu zituzten, baita ondo afaltzeko 150 euro ere.

bere ustez

Ander Etxeberria

Idatzi eta ulertu

Kanpoan ikasten izan nintzenean gutun bi idazten nituen astero. Bata etxekoei eta bestea lagun minari. Biak eskuz, garai hartan e-maila deskubritzeke baikenuen. Euskara batuan idazten nituen. Bigarren gutunean, baina, lagun minak esan zidan oso arraroa egiten zitzaiola gure artean batuan egitea. Eta eskatu zidan hitz egiten genuen bezala idazteko. Hala egin nuen. Orain ez dut gogoratzen edukia baina horrelako zerbait izango zen: "*...ia otza itxen asi da ta laister erropa senduekin urten bikonaz. Gogua daukot gañera erragalaustezun jersea ipintxeko. Eztakitx zegaitxik ez nauen ekarriko geixau...*". Hamar bat lerroren ostean: "*...seguru kantsau zarela. Ni be bai. Ortaz, batuai eldukotzat*". Eta batuan joan ziren beste esaldi eta gutun guztiak. Nahita idatzi nuen fonetikoki, modu jatorra asmatzen ibiltzea baino errazagoa baitzen.

"Bigarren gutunean lagun minak esan zidan oso arraroa egiten zitzaiola batuan egitea"

Gaur, e-mailarekin izugarri areagotu dira gertukoen arteko idatzizko komunikazioak. Baina, urteak daramatzan Badihardugu elkarteari esker (bere web gunea aberastu berri du), gero eta aitzakia gutxiago daukat testu horiek bertako euskaran ere fundamentuz idazteko.

Aitor Belardenda
Dietetika eta elikadura

- *Produkto dietetikoak*
- *Sendabelarrak*
- *Kirol dietetika*
- *Elikadura naturala*
- *Kosmetika naturala*
- *Dieta pertsonalizatuak*

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

SAN MARTZIAL EGUNA > UDALAK UTZITAKO MAHAIAK

1.300 lagunek hartu dute tokia San Martzialen bazkaltzeko

Euskal Herriak Bere Eskola taldea arduratuko da kantinaz domekan eta txosnan Presoen Lagunak taldekoek egingo dute lan

MAHAIAK Zapatu arratsaldean hartu behar dira mahaiak kantina ondotik. GOIENKARIA

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Domekan da San Martzial eguna eta 1.300 lagun baino gehiagorendako mahaiak eta aulkiak hartu dituzte herritarrek kultura etxean. Domekan, hala ere, jende gehiago elkartuko da San Martzialen.

Bazkaltzeko hartutako mahai eta aulki horiek bihar, zapatua, hartu behar dituzte kantinaren ondotik 17:00etatik 20:00etara. Entregatu ere toki horretantxe entregatu behar dira, domekan, arratsaldeko erromeria bukatu ondoren, 19:00etatik 21:00etara. Entregatzerakoan, eskaera orria aurkeztu behar dute, han seilua botako diete orrian eta horrekin, emandako fidantza berreskuratu ahal izango dute. Fidantza jasotzera kultura etxera joan behar da datorren astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

LAU TALDE TABERNETARAKO

Aurten herriko lau taldek eman dute izena San Martzialeko kantinan eta txosnan lan egiteko. Talde bat berehala utzi zuten kanpoan, duela bi urte kantinaz arduratu zelako eta baldintza batek ez dielako lana errepikatzen uzten azken bi urteetan ardura izan duten taldeei. Beste hiru taldeen artean zozketa egin zuten: Euskal Herriak Bere Eskola taldekoak egongo dira kantinan eta Presoen Lagunak, txosnan.

URIK EZ BOTATZEKO DEIA

Aurten ere autobus zerbitzua egongo da San Martzialera joateko. Bestalde, jatekoa daramaten ibilgailuak sartu ahal izango dira bakarrik zelaira eta eramandako materiala utzi ondoren, ibilgailua kendu egin beharko dute. Jaitsieran, urik ez botatzeko eskatu dute, musika tresnak ez hondatzeko; errepidea itxita egongo da une horretan.

TRANBIA

Udalaren aukera onartu du Jaurlaritzak

Datorren hilean proiektuaren erakusketa publikoa zabalduko dute

O.E. > BERGARA

Bergarako Udalak tranbiaren proiektuari egindako proposamena aztertzen ari zirela esan zuen joan den astean Nuria Lopez de Gereñu Garraio sailburuak Elgetan. Victoriano Gallastegi alkateak, aldiz, datorren hilean proiektuaren erakusketa publikoa egingo dutela aurreratu du aste honetan, "eta horrek esan nahi du Udalak aurkeztutako alternatiba onartu duela Jaurlaritzak".

ZENTRALA, SAN JOXEPERA

Gabiria inguruan ditu tranbiak zailtasun handienak. Gune hori zeharkatzeko proiektua zen Udalak hasierako proiektuari aurkeztutako alternatiba landuena. Iberdrolaren zentrala, adibidez, San Joxepe auzora eramateko plana ere eginda dute. Horrez gain, "Algodoneran egingo dituzten etxebizitza berrien ondoan geltokia jartzea ere eskatu genuen, adibidez", dio alkateak.

GIZARTE ZERBITZUAK > 2006KO DIRULAGUNTZAK

22.591 euro onartu ditu Udalak gizarte zerbitzuen arlorako

Gutxituei, hirugarren adinekoei edo baztertuei zuzenduta egon behar dute programek

O.E. > BERGARA

Gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten taldeendako 22.591,26 euroko dirulaguntza onartu du Udalak asteleheneko osoko bilkuran. Bergaran gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei laguntzeko da onartu duten diru kopuru hori eta, hain zuzen ere, herrian egiten dituzten jarduera zehatzak finantzatzeko erabiliko dute.

BALDINTZAK

Dirulaguntzak jaso ahal izateko, elkarteak antolatuko dituen jarduerek hiru multzo hauei zuzenduta egon behar dute nagusiki: bazterketa arazoak dituztenei, gutxituei, hirugarren adineko herritarrei edo zerbitzu sozialen beharra duten beste batzuei.

Udaletxean egin behar da eskaera dirulaguntzak jasotzeko, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratu eta 30 egunean.



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

margolan margoak

- margo orokorra
- margo dekoratiboa
- margo industriala
- umeentzako dekorazioak
- erreformak orokorrean

Sagasti auzoa Zª 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

ARAU SUBSIDIARIOAK > 44 ALEGAZIO

Datorren astean emango die erantzuna Udalak arau subsidiarioen alegazioei

Erantzunak eman ostean, arau subsidiarioen plana jendaurrean jarriko dute berriz, alegazioak aurkezteko

O.E. > BERGARA

Datorren astean erantzungo ditu Udalak herritarrek arau subsidiarioei jarri dizkieten 44 alegazioak. Berez gaur, ekainak 30, eman behar zituen Udalak erantzun horiek ezohiko osoko bilkuran, baina datorren asterako atzeratu dute hitzordua. "Datu batzuk aztertzeko eta argitzeko genituen oraindik eta horiek garbi izan arte ez genuen erantzunik eman nahi", argitu nahi izan du Victoriano Gallastegi alkateak.

Aurkeztu dituzten 44 alegazioen artean daude, adibidez, Zabalotegiko errepideari jarritakoak. Asteleheneko udalbatzarrean, proiektu horrekin ados ez daudela esan zuten berriro Bolu eta Zabalotegiko auzotarrek osoko bilkuren aretoan eta errepide horrek ez dituela auzoak hobetuko esan zuten.

DEPORTIVO TABERNA, KOLOKAN

Bergara Aurrera herri plataformak salatu zuen arau subsidiarioen prozedura ez dela ona izan. "Osoko bilkura egitear gaude eta oraindik ez dugu ez gure ez Aralarren alegazioen erantzunik jaso", esan zuen Jesus Mari Garitanok. Bestalde, Deportivo tabernako lanak ez direla legezkoak gogorarazi zion Udalari. Alkateak erantzun zion proiektua epe barruan aurkezten ez badute, "taberna itxi" egingo dutela.

TABERNAK > HIRUGARRENA AZAROAN ZABALDUKO DUTE

Hiru taberna berri izango dira herrian hemendik azarora

Hamaika taberna jaietan zabaldu zuten, Espaloian; eta asteon ireki dute Iparragirre kalean Paulaner Beer

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Azkenaldian gau giroak behera egin duela dirudien arren, ostalaritzak bestelako joera erakutsi digu. Izan ere, hainbat taberna zabaldu dituzte.

Pazkoetarako Hamaika taberna zabaldu zuten Espaloian; asteon, berriz, Paulaner Beer taberna zabaldu dute Iparragirre kalean. Inaugurazio ekitaldian alkateak hartu zuen parte. Alemaniako ohitura omen da garagardotegi berri bat zabaltzean lehen tragoa herriko agintari nagusiak ateratzea, eta hala egin zuten. Paulanerren garagardoa norberak atera ahal izango du eta horretarako mahaian bertan ipiniko dituzte makinak. Gasolindegietan bezala bakoitzak ipin dezake prezioa edo nahi beste zerbitzatu eta gero ordaindu.



ALKATEA Lehen garagardoa alkateak zerbitzatu zuen Paulanerren. GOIENKARIA

ALEMANIAKO JATEKOA

Frankizia izanik, garagardo alemanaz gain, bertako janaria ere jan ahal izango da; saltxitxak eta txerri-ukondoa, esaterako. Pintxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak ere izango dira.

Sei hilabetean hiru taberna berri ikusi ahal izango ditugu herrian. Izan ere, zabaldu berri diren Hamaika eta Paulaner tabernez gain, Etxenagusia taberna zegoen lekuan beste bat irekiko dute azaroan.

IGERILEKUAK > IRAILAREN 16TIK ABENDURA BITARTEAN

Igerileku berrietara sartzeko tasak onartu dituzte

Mankomunitateko kirol txartela duenak aurten ez du gehiago ordaindu behar

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Irailaren 16an zabalduko dituzten igerileku berrietara sartzeko txartelaren prezioak, tasak, onartu dituzte. Abendura bitarteko tasak dira eta prezioak ezberdinak dira aurretik txartela zutenendako eta ez zutenendako. Erabiltzaileak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago edo gehiago kobratzen duten, ikasleak diren edo familia txartela duten hartu dute kontuan, besteak beste, prezio berriak jartzeko.

Bestalde, Mankomunitateko kirol txartela duenak ez du beste ezer ordaindu behar urtea bukatu aurretik.

Kirol txartelaren prezioak

Kirol txartela 2006.09.16 aurretik dutenendako	
18 urtetik beherakoak	24,50 €
18 urtetik gorakoak	41,50 €
Langabeak, ikasleak <LGS	24,50 €
Erretiratuak (65 urtetik gora), gutxituak (>%65)<LGS	24,50 €
Erretiratuak (65 urtetik gora), gutxituak (>%65)>LGS	41,50 €
Familiarra (20 urtetik beherako seme-alabekin)	64,20 €

Kirol txartela 2006.09.16tik edo ondoren dutenendako	
18 urtetik beherakoak	28,50 €
18 urtetik gorakoak	48,40 €
Langabeak, ikasleak <LGS	28,50 €
Erretiratuak (65 urtetik gora), gutxituak (>%65)<LGS	28,50 €
Erretiratuak (65 urtetik gora), gutxituak (>%65)>LGS	48,40 €
Familiarra (20 urtetik beherako seme-alabekin)	75,00 €

Mizpirualdekoek Altzasura egin dute irteera

Mizpirualde egoitzako lagunak Altzasu elkarte gastronomikora joan ziren eguna pasatzera hilaren 17an. Altzasu elkarteak berak gonbidatu zituen Mizpirualdeko lagunak.

60 bat lagun joan ziren guztira eta bazkari ederra egin zuten elkarrekin Altzasu elkartean. Bapo bazkaldu ostean, kantuan eta dantzan egiteko denbora ere izan zuten guztiek.

Mizpirualdeko lagunek eskerrak eman nahi dizkiete Altzasu elkarteari irteera antolatzeagatik.

GOIENKARIA

FRONTOI
TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

GAI LIBREA Partaideek film laburra, abesti baten bideo-klipa edo iragarki bat aurkezteko aukera izango dute. GOIENKARIA

IKUS-ENTZUNEZKOAK > LEHIAKETA

Film laburren lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Zerbitzuak

Lanak entregatzeko epea irailaren 15era arte zabalik; 300 euroko saria irabazlearentzat

EDU MENDIBIL > BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzuak film laburren lehiaketa deitu du. Debagoienean bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak, bakarka zein taldeka. Gaia librea da: film laburra, abesti baten bideoklipa, iragarkia, irudi muntaia, esketxa, dokumentala…

Lanak (VHS edo DVD formatuan) edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira irailaren 15era arte kultura etxean, Errotalde jauregian. Gaztelania edo euskara ez den hizkuntza batean egina badago, azpitituluak izan beharko ditu. Bestela, bi hizkuntza horietako batean idatzita azaldu beharko da paperean.

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta bigarren saria 250 eurokoa da. Lehenengo bi sarietan bergararrik egon ezean, bergarar onenari 100 euroko saria emango zaio.

Epaimahaiaren erabakia irailaren 29an emango da jakitera, egun horretan egingo den sari banaketa ekitaldian. Edozein argibidetarako kultur etxera, 943 77 91 60 telefono zenbakira jo dezakezue.

UDAKO GAUAK

Bestalde, *Udako gauak* egitarauaren barruan, hainbat emanaldi izango dira Espoloian uztailean: Rafa Rueda hilaren 7an, Malatu taldearen jazz kontzertua uztailaren 14an, Bilboko Four Fiends hilaren 21ean etorriko da eta Ortophonk funky taldea uztailaren 28an. Uztailean zehar herriko hiru taldek emanaldiak egingo dituzte: Orfeoiak uztailaren 8an abestuko du Mariaren Lagundiko elizan, Bandaren kontzertua hilaren 16rako iragarrita dago eta Aritzetak emanaldia egingo du Santa Marina egunean.

Aire librean zine emanaldiak egongo dira abuztuko eguenetan San Martin plazan, 22:00etan.

ONDAREA > PINTURA

Nikolas Muxika margolariaren bi koadro erosi ditu Bergarako Udalak

Formatu txikiko bi olio dira aipatutako koadroak, eta Udalak 580 euro ordaindu ditu lanongatik

E.M. > BERGARA

Udalak Nikolas Muxika margolari bergararraren (1885-1948) bi koadro erostea erabaki zuen joan den asteko udalbatzan. Iruñeko Ricardo Frances antikuario etxea Udalarekin harremanetan jarri eta aipatutako bi margolan erostea eskaini zizkion. Margolanak *Zarautzetik Getariara* eta *Getaria* izenburukoak dira, olioz eginak, formatu txikikoak biak (18x23 cm), eta Udalak 580 euro ordaindu ditu lanongatik. Erosketa aho batez onartu zen joan den asteleheneko osoko bilkuran.

PAISAJISTA BIKAINA

Nikolas Muxika 1885eko abenduaren 6an jaio zen Bergaran, San Pedro kaleko 21.zenbakian (gaur egun 19.a dena hain justu). Alejandrino Irureta maisuarekin hasi zen pinturan.

Paisajista bikaintzat hartu du nazioarteko kritikak. Bere lan ederrak Euskal Herrian egin zituen eta haiekin arrakasta artistiko eta ekonomiko handiak lortu zituen Ameriketan. Erakusketarik onenak Argentinako Errepublikan, Txilen, Mexikon, Uruguayn eta abarretan egin zituen eta ia bere koadro guztiak herrialde horietan daude, bilduma partikularretan. Muxika 1948ko martxoaren 1ean hil zen, Donostian.

> MARGOLARITZA

Usoa Mendikute bergarar margolariaren erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin

Usoa Mendikute (Bergara, 1976) margolariaren erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

Usoa Mendikutek Arte Ederretako ikasketak egin zituen Leioako fakultatean eta azken urteotan Londresen bizi da.

Erakusketa uztailaren 30era arte izango da zabalik: aste barruan 18:30etik 21:00etara; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara, eta domeketan arratsaldez bakarrik, 18:30etik 21:00etara.

Usoa Mendikute. GOIENKARIA

Orkestraren emanaldia gaur San Pedron

Bergarako Orkestra Sinfonikoak ikasturte bukaerako emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, San Pedro parrokian, 20:00etan. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduta, Bandako kideek honako piezak joko dituzte: *Adagio en sol menor* (Tomasso Albinoni), Mozarten *41. Sinfonia (Jupiter)*, *La vida es bella* filmeko soinu banda (Nicolai Piovani), *The mask of Zorro* (James Horner) eta, bukatzeko, *Hijo de la luna* (Cano anaiena). 62 lagunek osatzen dute Orkestra gaur egun.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Neurriak
38tik 60ra

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

%50 erainoko
deskontuak

Aramaio, Elgeta eta Eskoriatza jaietan

SAIO BEREZIA
Martitzenean, uztailaren 4an, 21:15ean.
Eguaztenean, uztailaren 5ean, 15:00etan eta 23:15ean.

BABESLEA: HEMEN GARBIKETAK

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

ESKERRAK Asierrek eskerrak eman gura dizkie Sumoficeko Josebari eta Ibani, eta baita JMAko Antxoni ere. XABIER URTZELAI

TXIRRINDULARITZA > GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO ITZULIA

"Podiumera amorratuta igo nintzen, erorketengatik haserre"

Sumofic taldean dabilen Asier Penabad hirugarren sailkatu da Gipuzkoako Itzulian; azkeneko etapan galdu zuen maillot horia

XABIER URTZELAI > BERGARA

Astelehenean, Urnietako podiumeko hirugarren maldara amorratuta igo zen Asier Penabad bergararra. Egun batzuk igarota, baina, Sumofic taldeko txirrindularia lasaiago dago, beste ikuspuntu batekin: "Proba baino lehenago gustura sinatuko nuke postu hori. Egia esan, aurrealdean ibili naizela da garrantzitsua, podiumera igo naizela eta maillot horia jantzita izan dudala".

LAN TXUKUNA

Izan ere, Bergarakoak harro egoteko moduko txapelketa egin du. Eguaztenean Donostian hasi zuten Gipuzkoako Itzulia, erloju kontrako igoera batekin: "Lehenengo egunean txarto ibili nintzen, 16 segundo galdu nituen". Hasiera makal hori, baina, bigarren etapan konpondu zuen: "Olabarrian bigarren sailkatu nintzen, atzetik zetozenei 3 minutuko aldea aterata. Motibazio handia eman zidan horrek, lasterketako faboritoak atzean utzi nituen-eta".

Domekan, Andoainen egindako hirugarren etapan, berriz, ihes egindako taldetxo baten atzetik helmugaratu zen Asier, orduan ere aurreko postuetan. Eta horri esker jantzi ahal izan zuen Bergarakoak maillot horia. Asierrek dioenez, maillot hori jantzita korritzea ezberdina da: "Asko erasotzen duen txirrindularia naiz, eta lider izanda ardura handiagoarekin ibili nintzen".

Urnietan egin zuten laugarren eta azken proba: "Euri apur bat bota zuen, eta errepide estuak ziren. Hala, birritan lurrera erori eta beldurrez ibili nintzen. Gainera, erorketen ondorioz aldagailua ere ez zebilen behar den moduan. Azkenean bi minutu galduta hirugarren sailkatu nintzen. Maillot horia galtzeagatik eta erori ez banintz lehenengo sailkatu zenari eusteko gauza nintzelako amorratu nintzen".

LUXENBURGORA JOATEKO AUKERA

Gipuzkoako selekzioak bost txirrindulari eramango ditu bi aste barru Luxenburgon egingo duten txirrindularitza probara: "Hamar lagunei azterketa medikua egin digute, eta bost eramango dituzte Luxenburgora".

Gazte mailan azken urtea du Asierrek, datorren urterako talderen baten deiaren zain dago: "Ez badut probatzen pena hartuko dut, baina Azpiru taldean dabiltzanek esan didate asko entrenatuta ere, proba amaitzearekin konformatu beharko naizela".

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

FUTBOLA > IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

Gaur, A mailako neskak eta seniorrak finaletan

18:30ean jokatuko dute A mailako nesken finala; seniorrak, 20:00etan

X.U. > BERGARA

Ipintzako Futbol Txapelketa ez da geratzen. Neskek, adibidez, gaur bertan jokatuko dituzte finalak. A mailako neskek jokatuko dute gaur arratsaldeko lehenengo finala. 18:30ean hasita neurtuko dituzte indarrak Lagundia A taldeak eta San Martintxok. Lehenago, baina, finalera heldu ez diren taldeek jokatuko dute. 17:45ean hasita, bosgarren postuagatik lehiatuko dira Lagunak eta Wazemank, eta ordu berean, hirugarren postua eskuratzeko botako dute izerdia Lagundia Txiki eta Pin Pols taldeek.

SENIORRAK ERE FINALETAN

Senior mailako neskek ere gaur arratsaldean jokatuko dute finala (20:00). Arrano eta Ostruka taldeak izango dira nor baino nor gehiago. Azken txanpara sailkatzeko, Arranok 2-1 hartu zuen mendean Gamak Informatika taldea. Ostrukak, berriz, 3-2 irabazi zion Potzu eta Zapaburuei.

Gizonezko beteranoek, berriz, uztailaren 4an, martitzena, jokatuko dituzte finalerdiak (20:15ean).

PILOTA > UDABERRIKO ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA

Gaztetxoek zazpi final jokatuko dituzte bihar

Euririk egiten ez badu Osintxuko pilotalekuan jokatuko dituzte partiduok

X.U. > BERGARA

Benjamin mailan hiru final, alebin mailan bi final, infantil mailan beste bi final eta kadete mailan finalerdi bat. Horiek dira bihar goizean Osintxun egingo duten pilota saioaren hitzorduak. Bergarako gaztetxoek Udaberriko Eskola Arteko Txapelketa jokatuko dute, 10:00etan hasita.

Euria egiten badu, seguruenik Uberan jokatuko dituzte partiduok. Joan den astean, Osintxuko pilotalekuan zeuden itoginen ondorioz Uberan jokatu zituzten finalerdiak.

> FUTBOLA

Neka Galan arrasatearrak izango du Bergara Preferente mailara bueltatzeko ardura

Josu Zubiarekin laguntzaile lanetan ibili da aurten Neka Galan. Aretxabaletakoak ez du Bergaran jarraituko, beste asmo batzuk dituelako, eta Neka Galanek beteko du haren lekua. Mondrako maila txikietan eta Aretxabaletan entrenatzaile lanetan ibilitakoa, esperientzia handiko gizona da Neka. Azken ordura arte Preferente mailara igotzeko ahaleginetan ibili eta gero, bigarren denboraldia egingo du Bergarak Erregionalean.

Neka Galan. GOIENKARIA

> MENDIA

Pol-Pol Mendi Elkartea itxita egongo da uztailean, lanak egin behar dituzte-eta

Uztailean itxita egongo dira Pol-Pol Mendi Elkarteko ateak, hainbat obra egin behar dituzte-eta egoitzan. Hala, Pol-Pol Gaztek iraileko lehenengo egunetarako gertatu duen irteeran izena emateko, interesatuek 605 746 732 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Esandako moduan, irailaren 1etik 3ra Urbasara joango dira gazte sailekoak, asteburua igarotzera. 14-18 urte bitarteko gazteendako antolatu dute irteera hori, eta eguraldiaren arabera erabakiko dute Urbasan egingo dituzten egun horiek zelan aprobetxatu. Uztailaren 21a baino lehenago eman behar da izena.

nire bidaia hura

Irene Agirre
New Yorkera > 2006ko Aste Santuan

"Filmetan agertzen den moduko hiria da New York; beste mundu bat aurkitzen da bertan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Astebete igaro zuten New Yorken Irene Agirrek eta beste hiru lagunek Aste Santuan. Bidaian joan zirenetako hiru egonak ziren, baina asko gustatu zitzaien eta berriz joan ziren bueltan.

Ireneren lagun bat New Yorken bizi izan zen urtebetez eta hura bisitatzera joan zenean hiria hainbeste gustatu zitzaion, berriz joatea erabaki zuen. "Azken aldiz joan ginenetik bederatzi urte pasa dira eta New York da hiri bat noizean behin bisitatzekoa, eta hala egingo dugu gainera. Hurrengo joaterako ez dut uste beste bederatzi urte pasako direnik", esan digu Irenek.

Hiria ezagutzeko modurik onena New York guztia erakusten duten autobus horietako bat hartzea da, Ireneren ustez. "Lehen aldiz joaten den batentzat Manhattanen nondik nora dabilen kokatzeko modurik egokiena da. Edozein lekutan daude geltokiak eta tokirik interesgarrienetan jaitsi eta berriz igo daiteke autobusera".

KONTRASTEAK

New Yorkek hain berezia izateko zer duen galdetuta argi erantzun digu Irenek: "Denetarik egin daiteke bertan eta askotariko jendea eta aukerak daude: jatetxeak, ikuskizunak...".

Irene eta lagunak oso musika-zaleak dira eta ikuskizun batekin baino gehiagorekin gozatu dute: "*El fantasma de la opera* musikala ikusi genuen eta txundituta geratu ginen; munduko abeslari eta orkestrarik onenak daude bertan".

Hirian dauden kontrasteak ere ikusgarriak direla esan digu Irenek: "Etxe-orratzak dauden inguruan jende eta argi pila bat daude, eta gauez ikustea txunditzekoa da; era berean, Greenwich ingurua oso bohemiarra da. Sute-eskaileradun eraikinak, jatetxe txiki eta bereziak... Beraz, aukera dago erdigune zaratatsuan ibiltzeko edo baita lasai egoteko ere".

Irene Agirre.

"Erosketak egiteko leku aproposa da Soho ingurua; prezio eskuragarriak daude"

"Hotelaren inguruan Broadwayko antzokiak zeuden, eta Julia Roberts ikusi genuen"

TOKI GOMENDAGARRIAK

New Yorkera joanda zer ikustea gomendatuko ligukeen galdetu diogu Ireneri eta esan digu onena dela kalean oinez ibiltzea: "Merezi du Brooklyngo zubia oinez zeharkatzea, Empire State gora igo eta ikuspegiaz gozatzea, musikalen bat ikustea, gaueko giroan murgiltzea, Central Parken paseatu eta bazkaltzea...".

Hiriko sinboloa izanik Askatasunaren Estatua derrigorrez ikusi beharreko zerbait dela uste du askok, baina "oraingoan joan ere ez gara egin, estatua txiki bat baino ez da eta sekulako ilarak egoten dira; guk desengainua hartu genuen".

Erosketak egiteko ere aprobetxatu dute egonaldia. "Soho inguruan hemen baino merkeagoak diren gauzak aurki daitezke; bakeroak eta kirol arropa, esaterako. Manhattaneko boutiqueetan, aldiz, askoz garestiago daude gauzak".

Egonaldia erdiguneko hotel batean egin dute. "Hotelaren inguruan Broadwayko antzokiak zeuden eta egun batean Julia Roberts ikusi genuen".

Hotela turistikoki leku egokian kokatuta zeukaten eta garesti ordaindu behar izan zuten, eta jatekoa ere ez dela oso merkea esan digu Irenek: "Gauero jateko ezberdinak probatu ditugu: mexikarra, japoniarra, brasildarra... Aukera zabala da. Aurrez Internet bidez begiratu genituen jatetxeak, eta prezioaren arabera bagenekien nora jo".

Filmetan agertzen den moduko hiria dela esan digu Irenek: "Taxi horiak, estoldetatik irteten den kea, metroa, jendea kalean kantari... Beste mundu batekin egingo du topo New Yorkera joaten denak".

Aitziber Azkondo, Maria Angeli Zaitegi eta Irene Agirre Brooklyngo zubian.

bere ustez

Jose Angel Mikeo

I eta y, bi hizki ikasi beharrekoak

Bi hizki hauek ikastea tokatu zaie aurten hurbileneko eskolako umeei. "I" latinoarekin "itxi" ikasi dute esaten, eskola itxi egingo dutela, bailara autopistak itxi egin zuen modura, tunel bat utziz jendearen eskaperako eta beste bat errekarentzat. Eskola itxi egun batetik bestera, jendearen etorkizun proiekturik kontutan hartu barik. Ilusioaren "I" itxituraren i-az ordezkatu eta herriak protesta egin zuen isilean, isiltasunaren i-a umeen koloretako eskuek aldarrikatuz: gure eskola ez itxi, herri bat egiten dihardugu eta, etorkizun bat eraikitzen.

"Y grekoa letra dotorea da; etorkizunaren hizkia omen Euskal Herri honetan"

Y grekoa letra dotorea da, kontsonante erdia, bokal gogokoa. Etorkizunaren hizkia omen Euskal Herri honetan. Abiadura biziko letra, bazter hondamendi adierazlea. Bilbotik eta Gasteiztik etorriko diren trenbideek herri ondoan egingo dute topo eta orain arteko Y handiena sortu. Lau urtetan eraikiko omen letra erraldoia eta Angiozar bailara hau Europako paso-nibel bihurtu.

Bailara itxi, Y-aren bi adarrak tunel banatan sartuz, hondatutako bailararen izena ere lurpean geratuko da. Bitartean eskola itxi egingo dutenaren kezkaz egongo gara, eskolan bi i-en arteko diferentziaberdintasuna umeei erakutsiz.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ARRITXU OLIDEN Eguneroko lan jarduna udaletxean gogorra dela esan zuen alkateak, zerbait lortzeko borrokan egin behar delako eta erabakiak ez direlako denen gustuko izaten. M.A.

UDALA > ALKATEA GOITB-KO 'DEBARRI' SAIOAN

Uztail erditik aurrera tranbiaren ibilbide berriaren proiektua ikusgai

Kirol-gunea egiteko ideiarik onena uztailean hautatu eta lau urtean eraikitzea gura dute

Zaharren egoitza berriaren kontua ideia bat besterik ez da, ikusiko da aurrera egiten duen

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Eguaztenean, ekainak 28, GOITB-ko *Debarri* saioan izan zen Arritxu Oliden alkatea. Alberto Gorritiberea esatariak eta aretxabaletarrek egindako hainbat galdera erantzun behar izan zituen.

KIROL-GUNEA LAU URTEAN

Kirol-gunea egiteko Udalak kaleratutako lehiaketaren gainean hasi ziren berbetan. 19 ideia aurkeztu ziren lehiaketara, eta orain bosten artean hautatu behar dute. Uztailean hartuko dutela erabakia aurreratu zuen Arritxuk. Aukeratutakoak proiektua egingo du, betiere Udalak proposatutako moldaketak onartuta, eta orduan aurrekontuari begira hasteko ordua izango dela gaineratu zuen alkateak. "Aldundiarekin borrokan hasi beharko dugu dirua lortzeko. Datarik ez dut eman gura, baina lau urtean eginda balego asko poztuko nintzateke".

TRANBIA ETA BIDEGORRIA

Tranbiaren azken berriak ekarri zituen Arritxuk: "Ibilbidearen aldaketa onartu dute, nahiz eta alegazio guztiak ez onartu teknikoki ezinezkoak zirelako", esan zuen: "Uztaileko bigarren hamabostaldian jarriko dute udaletxean, herritarrek ikus dezaten, eta bi hilabetez egongo da ikusgai".

Arrasatetik datorren tranbiak bi bide hartuko ditu musika eskola parean. Bata, Bedarreta auzune ingurutik pasatuko da eta Lausitta kaletik Belorrietaraino joango da ibaiaren beste aldetik. Bestea Otalora kaletik Errekabarrenera sartuko da Belorrieta parean beste aldetik datorrenarekin bat egiteko. "Bi bide egin ditugu leku batzuetan ez zegoelako beste aukerarik eta, gainera, Durana kalean ez genuelako gura zirkulazioa egoterik".

Eskoriatzak daukan adinako bidegorria noiz izango dugun jakin gura zuen aretxabaletar batek, eta halaxe erantzun zion Arritxuk: "Arrasate eta Aretxabaleta arteko pasabidea egiten hasita dago Aldundia. Gainera, autobideko lanen ordain gisa Aldundiak berak hartu zuen gure herriko bidegorria egiteko konpromisoa". Hala ere, herri erdigunetik pasatuko den bidegorria Udalak egingo du, eta gainerakoa egiteko sinatu gura du hitzarmena Aldundiarekin.

ZAHARREN EGOITZA BERRIA

Zaharren egoitzaren inguruko kontuak ere argitu zituen. "Debagoienerako modelo berezia egiteko asmoa dago, baina oraindik ideia bat besterik ez da". Egileor baserri alboko lursail baten kalifikazioa aldatzeko prozedura hasi zuen Udalak orain hilabete batzuk, jakinik Urats Gain egoitzak hainbat arazo dituela: baldintza teknikoak eta finantzaketa eta konpetentzia mailakoak. "Hortaz, Urats Gain itxi egin beharko da, baina lasai egon daitezke langileak, berriz diot ideia bat besterik ez dela". Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagakoentzat izango litzateke egoitza berria eta MCC edo ingurukoek eraikiko lukete. "Eguneko zentroa ere izango luke eta enpresa pribatu moduan eman arren zerbitzuak plaza batzuk Aldundiarekin kontzertatuta izango lituzke".

EDUKIONTZIAK LURPERATU

Eroski inguruko edukiontziak gainezka egoten direla aipatu zioten herritarrek, eta lurperatu egingo dituztela horiek jakinarazi zuen: "Bizilagunentzat nahikoa daude, baina dendetako zakarrak pilatu egiten dira; Eroskiri lehen ere jarri dizkiogu kexak. Horregatik lurperatzea erabaki dugu edukiontziok, eta aurten egiteko asmoa daukagu".

ALKATEAREN AHALMENAK

Udal gobernuak zela funtzionatzen duen ere azaldu zuen: "Osoko bilkurak erabaki ahalmen batzuk ditu eta alkateak beste batzuk. Aretxabaletan gobernu batzordea beti izan da aholku emailea eta ez erabakitzailea; hala ere, erabakiak ia beti batzordean hartu izan dira. Baina aldatu egin dugu kontu hori, orain dela 15 egun erabakitzeko ahalmena eman nion gobernu batzordeari eta zinegotzi batzuei ere bai".

ARETXABALETARRA MUNDUAN

Egileor baserriko Damaso Zuazua

Karmeldarren elkarteko misio arduraduna da, eta Erroman bizi da azken urteotan. Alberto Gorritibereak telefonoz agurtu gura izan zuen, eta kanpotik zela ikusten duen Aretxabaleta galdetu. "Beti daramat barruan, bihotzean eta buruan, eta gero eta maiteago dut nire herria", erantzun zion Damasok.

Laster 69 urte beteko ditu, baina hara eta hona ibiltzen da, Afrika, Amerika eta Europa ekialdera karmeldarrei bisita egin eta euren lanak, kezkak eta poztasunak bertatik bertara ezagutzera. Haren gomendioa: "Pozik bizi behar dugu, baina besteei lagunduz beti".

DIRULAGUNTZAK > KIROL TALDEEI

Kirol taldeek laguntzak jasotzeko arauak argitaratuta

Ohiko kirol jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituzte Udalak argitaratutako oinarriek

MIRARI ALTUBE> ARETXABALETA

Herriko kirol taldeek dirulaguntza eskaera egiteko epea zabaldu du Udalak. Ekainaren 22ko GAOn argitaratu zituzten oinarriak, eta orain hilabeteko epea izango dute taldeek eskatutako agiri eta txostenak aurkezteko.

KIROL SAILAREN ESKUETAN

Kirol taldeen jarduera arruntarentzat dira aipatutako dirulaguntzak. Aretxabaletakoa bertakoa izan beharko da taldea, edo bestela bailaran izan kirol jarduera eta kirolarien %15 Aretxabaletan bizi. Udaletxean aurkeztu behar dira eskatutako agiri guztiak eta Kirol Sailak bideratuko ditu aipatutako laguntzok. Hain zuzen Kirol Sailak ezarrita dauzka eskabideak baloratzeko irizpideak eta dirulaguntzak banatzeko aplikatu beharreko baremoa; ezagutu gura dituenak GAOn aurkituko ditu guztiak.

Eskaerak uztaila bukatu baino lehen aurkeztu behar dira, eta urriaren 31 baino lehen dokumentazio gehiago eskatuko die Udalak taldeei: kirol modalitate bakoitzeko talde kopurua, kirol federatuen kopurua eta zerrenda, eta lizentzia duten entrenatzaile edo arbitroen kopurua eta zerrenda. Horiez gain, Udalarekin egindako kolaborazioak, herritarrentzat antolatutako kirol jarduerak eta ikastetxeekin lankidetzan jardun dutela ziurtatzen duten agiriak ere eman beharko dizkiote urrian.

17 mila euroko aurrekontua dauka Udalak kirol taldeei jarduera arruntengatik dirulaguntzak emateko gordeta.

> DIRULAGUNTZAK

Errotuluak, irudi korporatiboak eta web orria euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak

Jarduera ekonomikoa Aretxabaletan duten pertsona edo enpresek errotuluak, irudi korporatiboak eta web orriak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak eska ditzakete. Bestalde, euskaltegian euskara ikasten duten edo Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetara doazen ikasle eta langabeei ere emango dizkiete dirulaguntzak. Bi deialdien oinarriak ekainaren 22ko GAOn datoz.

> LIBURUTEGIA

Udako ordutegia du liburutegiak irailaren 8a bitartean, eta abuztuaren 7tik 27ra, itxita

Ekainaren 19an hasi zuen udako ordutegia liburutegiak Udaleko beste zerbitzu batzuekin batera, eta irailaren 8a bitartean izango du: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik; martitzen eta eguenetan 10:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:00etara.

Abuztuan, ostera, oporrak hartuko ditu liburutegiko arduradunak 7tik 27ra bitartean, eta itxita egongo da.

INFOGRAFIA Bruesa enpresak duen bulegoan ikusgai daude etxebizitzen infografia eta planoak. M.A.

OBRAK > KIROL ETXE INGURUAN HASI ETA LAUSITTA KALERA BITARTEKO ETXEAK

Etxeak eraikitzeko gunea txukuntzen dabiltza

Kontratua sinatzerakoan babes ofizialeko moduluak daukan prezioa bider 1,8 hartuko dute oinarri etxebizitzen prezioa ateratzeko

M.A./ U.M. > ARETXABALETA

Horixe zen errekaren beste aldean eraiki behar dituzten etxeen gainean piztu den kezketako bat: ea etxeak eraiki arte urteak pasatu arren, etxeen prezioek gora egingo duten. Bada, Arritxu Oliden alkateak GOITBko *Debarri* saioan jakinarazi duenez, kontratuak sinatzerakoan babes ofizialeko moduluak daukan prezioa bider 1,8 hartuko dute oinarri. Bestalde, Bruesa enpresarekin hitzartu dute prezioek ez dutela aldaketarik izango lehenengo eraikitakoen eta azkenen artean.

Kontua da alkateak hori ahoz hitzartu duela Bruesarekin eta orain, idatziz jaso gura du hori horrela izango dela. Guk Bruesa enpresari galdetu diogu hori horrela izango den, baina esan digute oraingoz ezin dutela halako ezer konfirmatu.

Bestalde, *Debarri* saioan Arritxu Olidenek bestelako datu batzuk ere eman zituen: 2004an zozketa egin zenetik jabe batzuen egoera aldatu egin bada ere (ezkondu, adibidez), ez dute inor atzera botako. Gainera, dagoeneko 12.000 euro jarrita daukate jabeek.

AURRETIKO LANAK

Etxeak eraikitzeko lanei dagokienez, dagoeneko makina hondeatzaileak hasi dira kirol etxe ingurutik Lausitta kalera bitarteko lursailean lanean. Bruesatik jakinarazi digutenez, urbanizazioko aurretiko lanak dira horiek, etxeak eraikitzeko beharrezkoa daeta ingurua egokitzea. Urbanizazio proiektu hori maiatzean onartu zuen udalbatzarrak.

Hortik aurrera, Bruesakoek ez digute beste eperik aurreratu, ezin digutelako ezer "zehatzik" esan. Hori bai, "lanak aurreikusitako moduan" doazela jakinarazi digute.

GUZTIRA 428 ETXEBIZITZA

Errekaren beste aldean 428 etxebizitza eraikiko ditu Bruesa enpresa sustatzaileak, honela banatuta: 100 babes ofizialekoak; 187 Udalak finkatutako preziodunak; 43 sustatzailearen eskuetan geratuko dira lursailen jabeendako; 80 prezio libredunak izango dira eta 18 familia bakarrekoak edo txaletak.

Hasiera batean babes ofizialekoak %65 izango zirela esan bazuten ere, orain portzentaje hori babes ofizialekoen eta finkatutako prezioa dutenen artean banatu dute.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

Angelines
AUTOZERBITZUA
Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

ZINEMA > UZTAILEKO EGITARAUA

Martitzenetan eta egubakoitzetan, 22:30ean, emango dituzte filmak plazan

Atzegik antolatutako film laburren lehiaketan sariak lortu zituztenak ere emango dituzte

MIRARI ALTUBE> ARETXABALETA

Azken urteotan bezalaxe uztailean filmak emango ditu Kultura Sailak Herriko Plazan. Martitzen eta egubakoitzetan izango dira, 22:30ean.

EUSKARAZ GUTXI

Umeentzat eta helduentzat diren filmak tartekatuko dituzte antolatzaileek. Martitzenean, uztailak 4, emango dute lehena, zeresan ugari eman duen Ang Lee zuzendariaren *Brokeback mountain*. Hilaren 7an, egubakoitza, Atzegi elkarteak antolatutako film laburren lehiaketan sariak lortu zituztenak emango dituzte: *Bilintx*; *Portal 12, 5-Izda*; *La espada de la cobra voladora*; eta hirugarren saria jaso zuen Aretxabaletako Aratzek egindako *Bidaia baten ametsa*. Herriko aktoreek egindako lana ikusteko paregabeko aukera eskainiko digute. Gainera, urrian Italiako Gorgonzola herrian egingo duten film laburren lehiaketan hartuko dute parte aipatutako filmok.

Uztailaren 11n, martitzena, Ridley Scott zuzendari ingeles ospetsuaren *El reino de los cielos* emango dute; eta egubakoitzean, hilak 14, Roman Polanskiren *Oliver Twist*. Azken hau euskaraz izango da, eta 7 urtetik gorakoentzat dago gomendatua. Uztailaren 18an, martitzena, John Le Carre Ingalaterrako idazlearen best-seller baten oinarritutako *El jardinero fiel* eskainiko dute. Hilaren, 21ean, *Las crónicas de Narnia*; 25ean, *Memorias de una Geisha*; eta azkena, uztailaren 28an, ume zein helduentzat *Madagascar* marrazki bizidunak.

Kultura Saileko arduradunek argi utzi gura dute eguraldia dela-eta film emanaldia bertan behera gera daitekeela.

'BIDAIA BATEN AMETSA' Aratz taldekoek egindako film laburra emango dute uztailaren 7an, egubakoitza. GOIENKARIA



M.A.

Tenisak eta patinajeak izan dute arrakasta

Kirol Zerbitzuak ume eta gaztetxoei eskaini dizkien ikastaroak abian dira. Astelehenean bertan hasi zituzten, eta tenisak izan du arrakasta handien. Hain zuzen, 18 lagunek eman du izena, eta hiru talde osatu dituzte. Patinetan ibili gura dutenak datoz hurrengo, zortzi lagun, eta multikirolean bost gaztetxo dabiltza. Txikienek, bestalde, 4 eta 7 urte bitartekoek, igerian egin eta psikomotrizitatea lantzeko taldea osatu dute.

Kirol Zerbitzuaren ardura duen Goiena Sport enpresako Bixen Calzonen esanetan, bigarren txandara, uztailaren 10ean hasiko den txandara, gazte gehiago etorriko da. Oraindik zabalik dago izena emateko epea.

MAPFRE

FONDMAPFRE 607 BERMATUA

FONDO BERMATU BERRIA

BURTSAN INBERTITU, DIRURIK GALTZEKO ARRISKU BARIK

• SEGURTASUNA %100
• ERRENTAGARRITASUN BERMEA %130

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

> EUSKARA

Eskualdeko zuzendariek egindako film laburren emanaldia eskainiko du Loramendik hilaren 5ean

Debagoieneko zinemagileek egindako film laburrak eskainiko ditu Loramendi Euskara Elkarteak datorren eguaztenean, uztailak 5. Bost film labur emango dituzte Herriko Plazan, 22:30ean hasita, eta zinemagile horietako batzuk bertan izatea gura dute antolatzaileek, filma zergatik eta zela egin zuten eta beste hainbat konturen berri emateko ikusleei. Euskaraz dira bost film laburrak.

Bestalde, ekainaren 16rako *Aupa Etxebeste* euskal filmaren emanaldia zuen antolatuta Loramendi EEk, baina eguraldi txarraren erruz atzeratu beharrean izan ziren antolatzaileak. Hala, uztailaren 19an, eguaztena, 22:30ean, botako dute Herriko Plazan Asier Altuna bergararrak eta Telmo Esnal donostiarrak egindako filma. Ea oraingoan eguraldiak laguntzen duen aretxabaletarrek ere ikus dezaten.

mingainari tiraka

Maider Revalo > Poxpolin Aisialdi Taldeko kidea

"215 ume eta gazte ibiliko dira udalekuetan"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Udalekuen ardura dauka Poxpolin Aisialdi Taldeak Kultura Sailarekin batera. Astelehenean hasiko dituzte eta inoiz baino ume eta gaztetxo gehiago elkartuko dira uztailaren 21a bitartean.

Zenbat umek eman du izena aurten?

Ume eta gazteen artean 215 izango dira, inoiz baino gehiago. Beste urte batzuetan ez bezala DBHko lehen eta bigarren mailakoak etorriko dira aurten.

Eta zenbat begirale izango zarete?

28, eta hiru zuzendaritzako kideak.

Egitaraua urterokoa izango da?

Bai, oso antzekoa. Hiru egun berezi egingo ditugu: San Fermin eguna hurrengo egubakoitzean, Poxpolin eguna eta azken eguneko jaia.

Zer da Poxpolin eguna?

Lehen Euskararen eguna egiten genuen, baina apur bat aldatzea erabaki dugu. Aurten Poxpolinen etorrera ospatuko dugu, abestia ere asmatuta daukagu

iaztik eta euskal jokoak egingo ditugu beste ekitaldi batzuen artean.

Eta irteerarik egingo duzue?

Bai, txikienak Eskoriatzako igerilekura joango dira, eta Lehen Hezkuntza eta DBHkoak Arrasateko igerilekura eta Galartzara gaua pasatzera. Nagusienek beste irteeraren bat ere egin dezakete, hala erabakiz gero taldean.

Eguraldi txarra eginez gero, zer?

Egitaraua aldatuko genuke, baina dagoeneko pentsatuta dauzkagu beste aukera batzuk.

Gurasoak lasai egon daitezke, ezta?

Bai, horixe. Udalekuetarako gertatzeko bi eguneko ikastaroa egin dugu begiraleok aditu batekin, eta harekin gertatu dugu egitaraua.

Orain Iralabarri plazan daukazue egoitza?

Materiala bai, kultur etxe inguruko lokaletan daukagu, baina umeekin beti bezala Herriko Plazan elkartuko gara.

PILOTA > DEBARRO TXAPELKETA

Errasti anaiek zortzigarren aldiz jokatuko dute Debarroko Txapelketako finala

Arrasateko Axpe eta Uribarrenen aurka jokatuko dute finala uztailaren 9an, Aretxabaletan; hortaz, etxean jokatzearen abantaila izango dute

M.A. > ARETXABALETA

Debarroko Pilota Txapelketa iritsi da bukaerara. Joan zen astean sailkatu ziren azken bikoteak, tartean Errasti anaiak, eta orain finalaren zain daude.

SEIGARREN TXAPELAREN BILA

Aurten aretxabaletarrek antolatu dute txapelketa eta senior mailako finalean aretxabaletarrak izango dira. Elgoibarko Lagunak elkarteko pilotariak izan dituzte aurrez aurre finalerdian, eta partidu gogorrak jokatuta gailendu zitzaizkien aretxabaletarrak.

Errasti anaiek zortzigarren aldiz jokatuko dute Debarroko txapelketako finala. Iaz eskoriatzarrei irabazi zieten eta bosgarren txapela lortu zuten. Aurten, ostera, Arrasateko Axpe eta Uribarren izango dituzte aurrez aurre. Ez da partidu samurra izango, Axpek partidu bikainak egin dituela ikusita, baina etxean jokatzearen abantaila izango dute, eta herritarren berotasunarekin seigarren txapelaren bila aterako dira bi anaiak.



ERRASTI ANAIAK Unai eta Ibon anaiak seigarren txapelaren bila aterako dira uztailaren 9ko finalean. GOIENKARIA

KADETEEK EZIN

Akizu eta Gardoki kadeteek ere txapelketa polita egin dute. Finalerdietan Arrasateko Zubizarreta eta Bolinaga izan zituzten aurrez aurre, eta uste baino partidu txarragoa egin zuten aretxabaletarrek Arrasaten, 22-8 galduta. Hala, bueltakoan ez zuten ezer egiterik izan, eta finalerako txartelik gabe geratu ziren.

Final guztiak Aretxabaletako Iturrigorri frontoian jokatuko dituzte, uztailaren 9an.

PARROKIA

Uztailean Aozaratzan esango dute meza

Baita Mendiolan ere; abuztuan, ostera, auzoetan ez dute mezarik esango

M.A. > ARETXABALETA

Udako ordutegia daukate herrian bertan zein auzoetan esaten dituzten mezek. Hala, uztailean bi auzotan bakarrik esango du meza abadeak: Aozaratzan, 11:30ean; eta Mendiolan, 12:30ean. Abuztuan, ostera, oporrak hartuko dituzte eta ez dute esango mezarik. Hala ere, auzo batzuetan otoitzaldiak antolatuko dituzte auzotarrek.

DOMEKETAN BI

Herrian bertan ere mezek udako ordutegia daukate orain dela aste batzuk ezkero. Astelehenetik egubakoitzera 19:00etan dira, Agustindarren komentuan; zapatuetan, 19:30ean, parrokian; eta domeketan, 09:00etan, komentuan, eta 11:30ean, parrokian.

> KULTURA

Uztailaren 5ean hautatuko dute jaiak iragartzeko kartela

Gaur, ekainak 30, bukatu da Andramaixak iragartzeko Kultura Sailak antolatutako kartel lehiaketa. Era berean, esaldi lehiaketa deitu zuen Prebentzio Zerbitzuak, eta gaur izan da esaldiak aurkezteko azken eguna.

Kultura batzordearekin batera hainbat herritar elkartuko dira kartelik politena aukeratzeko. Esaldiei dagokienez, Jai batzordeak eta Prebentzio teknikariak izango dute lana egokienak aukeratzen. Bai kartelaren, bai hautatutako esaldien berri uztailaren 5ean jakinaraziko diete herritarrei.

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • ARETXABALETA • 943 79 10 14

MÖLLER
TRAITEMENT SUÏSSE
POUR HOMME

GAZTERIA > GAZTETXEAREN GAINEKO HAUSNARKETA

Egungo gaztetxea itxi eta geltoki zaharra gazteendako egokituko dute

Egungo eraikina egoera txarrean dago eta bizilagunek kexa asko aurkeztu dituzte

Udalak hainbat batzar egin ditu gazte batzarrarekin eta egungo erabiltzaileekin

EGOERA TXARREAN Udala, bizilagunak eta gazteak bat datoz: eraikina egoera txarrean dago. I.B.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Aspaldian, Santa Ana auzoan dagoen mojen zinemaren eraikinak zeresan handia eman du. Orain dela bospasei urte Udalak utzi zion eraikin hori gazte batzarrari gaztetxe moduan erabil zezan. Garbitasun eta zarataren gaineko akordio batzuk egin zituzten, eta han ekimenak antolatzen hasi ziren.

Iaz gazte berri asko sartu ziren gaztetxera eta gazte batzarraren eta berrien artean tirabira handiak izan ziren. Horren ondorioz, ordura arteko gazte batzarrak alde egin zuen.

BIZILAGUNAK OSO HASERRE

Santa Anako bizilagunak aspalditik daude kezkatuta eraikinaren egoerarekin (oso zaharra da, ez dago egoera onean eta, gainera, egurrezkoa da). Are gehiago, bizilagunen esanetan, gazte batzarrak alde egin zuenean egoerak txarrera egin zuen. Horregatik, Udalera jo izan dute hainbat alditan.

Udalak eraikinaren bi azterketa egin ditu. Horregatik, egun eraikinean dauden gazteei kontzertuak egitea galarazi die. Horrez gain, 00:00etan elektrizitatea eteten die, egunero.

TREN GELTOKIA GAZTEENDAKO

Egoera hori ikusita, Udaleko Gazteria Sailak gazte batzarrarekin eta gaur egun eraikinean dauden gazteekin hainbat batzar egin ditu. Udalaren asmoa da gazteendako egoitza berria tren geltoki zaharrean jartzea. Eta eraikinaren egoera kaskarrak, bizilagunen presioek eta gazteek eraikin berria egokitzat hartzeak azkartu egin dute asmo hori.

Santa Ana auzoan dauden gazteek azaldu digute eraikina egoera txarrean dagoela eta badakitela bertan ezin dituztela kontzertuak eta bestelakoak egin. "Hainbat ekimen egiteko asmoa daukagu, baina hemen ezin dugu halakorik egin. Gazteendako geltoki zaharra emateari ideia ona deritzogu, baina arduratzen gaituena da hori egokitu bitartean kalean gelditukoote garen".

GAZTE BATZARRA, KONFORME

Joan den urtera arte gaztetxea kudeatzen zuen gazte batzarra ere konforme dago geltokia erabiltzearekin. Haren ustetan, aproposena litzateke gaztetxe izena erabili beharrean, herriko hainbat elkarte eta taldek erabiliko luketen topagune bilakatzea.

URRIRAKO, GELTOKIAN

Udaleko Gazteria Saileko arduradunek jakinarazi digute azkeneko asteotan gaztetxearen gaineko erabakiak eta egin beharrekoak azkartzea erabaki dutela. "Aspalditik gabiltza horrekin bueltaka eta geltokia ematea edo ez ematea zalantzan egon gara. Baina eraikinaren egoera, bizilagunen ardura eta gazteen konpromisoa kontuan hartuta, horren alde egingo dugu".

Udalaren asmoa da udal brigada industrialdera eramatea, eta geltokian oinarrizko lan batzuk egin ostean, urrian hango giltzak ematea gazteei.

Gaztetxe berriaren aldeko punk jaialdia antolatu dute biharko, zapatua

Gaur egun eraikinean dauden gazteek erabaki zuten kontzertu bat antolatzea. Irabazirik balego, gazteen asmoa da diru hori etorkizunean gazteen topalekuko lanak egiten gastatzea. "Jaialdi honekin ez ditugu poltsikoak bete gura. Udalak egokitu gura duen gaztetxerako dirua batu gura dugu. Horretarako antolatu dugu jaialdia".

Baikor dira jaialdiaren arrakastarekin. "Aspaldi ez da herrian halako kontzerturik egin, aspaldi egiten ziren modukoak. Jaiak direla baliatuta, uste dugu jende dezente batuko dela".

Jaialdia bihar, zapatua, izango da eta HUHEZIko aparkalekuan egingo dute. 21:30ean hasiko da eta sarreran 10 euro ordaindu beharko dira. Honako taldeek esku hartuko dute: Madrilgo Taquicardia, Kaos Urbano eta La Broma de Ssatan taldeek eta Aguraingo Katapunk-ek. Talde gehienek punka egiten dute, eta nabarmendu beharra dago La Broma de Ssatan taldea oso ezaguna dela punkaren mugimenduan. Izan ere, 1978a ezkero dago taldea eszenatokien gainean.

Argazkian, La Broma de Ssatan taldeko egungo musikariak. LA BROMA DE SSATAN

Txalaparta
taberna

Ondo ibili San Pedroetan!

Aranburuzabala 26 • ESKORIATZA • TEL.: 943 71 50 46

Marian Aranburuzabala > Amuska emakumezkoen elkartea

"Emakume nagusiendako, batez ere, oso garrantzitsua da kalera irteteko ekimenak izatea"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Amuska elkartekoek urteroko batzarra egin dute orain dela gutxi. Elkartearen gainean berba egiteko Marian Aranburuzabalarekin elkartu ginen.

Marian Aranburuzabala Amuskako batzarreko kide da. IKER BARANDIARAN

Denboran atzera egingo dugu. Noiz eta zelan sortu zenuten Amuska?

Orain dela 20 urte baino gehiago izan zen. Etxetik kanpo lan egiten ez zuten emakume batzuek erabaki zuten bat egitea, antolatzea eta herriaren alde lan egitea. Horrek batu zituen, herrian ekimenak egiteko asmoak.

Eta zeintzuk izan ziren elkarteak egin zituen lehenengo ekimenak?

Lehenengo bi urteetan, batez ere, berbaldiak, irteerak eta Emakumeen Eguna ospatzeko ekitaldiak egin zituen elkarteak. Hirugarren urtean, berriz, jaietako danborrada egunean elkarteetan gizonezkoekin batera afaltzeko asmoa erakutsi zuten. Gizonezkoek ez zuten onartu gura izan, eta tirabira handiak izan ziren, baina azkenean emakumezkoek lortu genuen gure helburua. Hori baino gehiago, danborradan ere esku hartzen hasi ginen. Gaur egun karrozak eta guzti egiten ditugu.

Zenbat bazkiderekin hasi zineten eta zenbat lagun zarete gaur egun?

Hasieran 20 bat emakumezko hasi ziren, eta gaur egun gutxi gorabehera 140 bat bazkide gara. Hala ere, elkarteko batzarra zortzi lagunek osatzen dugu, eta batzarrekook hartzen dugu ekimenak antolatzeko ardura handiena.

Zer adineko emakumezkoak zabiltzate taldean?

40 urtetik 70 urtetik gora bitartekoak. Eta gehienek 50 urtetik gora daukate. Emakumezko batzuendako, batez ere nagusienendako, Amuska elkartean eta antolatzen ditugun ekimenetan esku hartzea oso garrantzitsua da. Horietako batzuek ez daukate lagunekin kalera irteteko ohitura handirik, eta deseatzen egoten dira halako aukerak izateko. Adibidez, nagusienak afarietara eta ikastaroetara joaten dira.

"Elkartearen helburuak dira ekimenak egitea eta emakumezkoak motibatzea"

"Edozein ekintza egitera zabalik gaude, eta gizonezkoek ere esku har dezakete"

Zeintzuk dira Amuskaren helburu nagusiak?

Herrian ekimenak egitea eta giroa sortzea. Horrez gain, emakumeek euren kasa antolatzea eta motibazioa lantzea.

Emakumezkoek bakarrik osatutako elkartea da, ezta?

Bai, batzarrean emakumezkoak bakarrik gaude eta bazkide egiteko ere ezinbestekoa da, baina gure ekimenetan gizonezkoek ere esku har dezakete.

Zer esango zenioke herritar bati elkartean esku hartzeko?

Elkarteko beteranoekin asko ikasiko duela, eta oso ondo pasatuko duela. Nik, behintzat, hala bizi izan dut.

Zer ekitaldi mota egiten dituzue urtean?

Ikastaroak eta Emakumezkoen Eguneko ospakizunak antolatzen hasi ginen. Aspaldian, hilabetero bestelako ekintzak egiten hasi ginen, eta herriko jai guztietan esku hartzen dugu. Orain dela gutxi, Habori ikastaroa abiarazi dugu. Edozein ekintza egitera zabalik gaude, proposamenak gura ditugu.

KULTURA ONDAREA > JAIETAKO ARGAZKIAK

Jaietako argazki zaharren erakusketa jarri dute Ibarraundi museoan

Ibarraundiko artxibotik hartu dituzte, eta 50eko hamarkadatik gaur egunera arteko jaiak daude erakusgai

I.B. > ESKORIATZA

Joan den urtean Leire Parrak Udalerako egin zuen argazki artxiboa baliatuta, erakusketa interesgarria jarri dute Ibarraundin. Eguaztenean zabaldu zuten eta San Pedro jaien gainekoa den arren, uztailean eta abuztuan ere ikusgai egongo da goizez eta arratsaldez, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Erakusketa 30 bat argazkik osatzen dute, eta guztiak San Pedro jaien gainekoak dira. Hain zuzen ere, txistulariak, dantzariak, danborrada, karrozak, sari banaketak eta beste jasota daude irudietan.

HERRITARREI LAGUNTZA ESKE

Ibarraundiko arduradunen asmoa da herritarrek erakusketa ikustea, eta irudi horien gaineko informazio gehiago izanez gero, jakinaraztea.

Argazki zaharrenak 50eko hamarkadakoak dira, baina badira 60, 70 eta 80koak ere.

I.B.

Domekara arte, jai giroan

Eguazten arratsaldean bota zuten jaietako txupinazoa, eta ordutik hona ez da atsedenik egon herrian. Musika Eskolako Bandaren eta buruhandi eta txistularien kalejirekin jarraitu zuten, eta nagusien danborradak jende asko batu zuen gauean. Aurten, danborradan sei konpainiak esku hartu dute; iaz baino bat gutxiago izan da.

Zorionak guztioi!

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI

- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

EGURREZKOA Aurrefabrikatutako zubia kamioi batean ekarri eta garabi batekin ipini dute. USOA AGIRRE/VALEN MOÑUX

HIRIGINTZA > ZUBI BERRIA

Oinezkoendako zubia ipini dute Beheko Auzoan

Eguaztenean ipini zuten zubiarekin, guztira 12 zubi izango dira aurrerantzean herrian

Kolatutako egur xaflaz egindako zubia 23 metro luze eta 2,50 metro zabal izango da

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Beheko Auzoa Uzarragako bide berriarekin lotuko duen zubia ipintzeko lanek ikusmin handia sortu zuten eguaztenean. Izan ere, 23 metro luze dituen egurrezko zubia pieza bakarrean ekarri zuten eta garabi batekin jarri zuten dagokion lekuan. Zubia aurrefabrikatutakoa izanik trailer handi batean Antzuolara ekarri eta egun bakarrean amaitu zituzten muntaketa lanak.

Aristi baserritik Egurrebaira bitartean oinezkoendako zein autoendako 11 zubi zeuden orain artean eta hemendik aurrera 12 izango dira.

Zubi berria kolatutako egur xaflaz egina dago (frontoian erabili zuten material bera), eta tratamendu berezia eman diote, kanpoan egonik eguraldiari aurre egiteko. Era horretako zubia zergatik aukeratu duten galdetuta, Udaletik zera esan digute: "Zubi mota hau nahiko berria izateaz gain (Antzuolan aurrez ez da horrelakorik ipini), itxura aldetik egurra burdina baino egokiagoa da; eta ingurunerako inpaktua saihesteaz gain, bistarako ere politagoa da".

Zabaleran 2,50 metro izango ditu; altueran, berriz, 1,40 metro. Altuera horrekin, hain zuzen ere, ez da arriskurik egongo, euri asko eginda ere, urak zubia eramateko. Zubiak arku itxura izango du, nahiz eta arkua bera oso zorrotza ez izan. Bestalde, zubiaren habeek beteko dute baranda funtzioa.

BEHEKO AUZOKOEN ONERAKO

Zubia oinezkoendako izango da eta hura ipintzeak erraztasunak emango dizkie Beheko Auzoko bizilagunei. Izan ere, aurrerantzean autoa modu erosoan laga ahal izango dute errekaren beste aldeko aparkalekuan eta zubitik auzora joan. Orain artean autoa auzoan aparkatzeko arazoak izan dituzte, leku gutxi dagoelako bertan.

Hasierako asmoa zen zubi berria autoendako ere izatea, baina, besteak beste, hidraulikoki ezinezkoa zen asmo hori bideragarri egitea.

Zubiaren proiektua Uzarraga eta Lizarraga arteko errepidearekin eta Beheko Auzoko etxe berrien promozioarekin bat dator.

Uzarraga eta Lizarraga arteko errepide berrian asteon jardun dute azken lanak egiten, eta pintaketak amaitutakoan, aurki bidea zabaltzeko asmoa dutela esan digute Udaletik.

Horrelakoak izango dira Eguzki auzoko sustapen publikoko etxebizitzak. UDALA

> HIRIGINTZA

Abian diren hirigintza proiektu nagusien gaineko erakusketa ipiniko dute udaletxean

Udalak erakusketa antolatu du, bere planifikazioan abian dauden proiektuei buruzko informazioa herritarrei emateko. Osoko bilkuren aretoan ipiniko dute erakusketa hau eta bertan ikusgai izango diren proiektuak dira Sagastiko gizarte etxea eta Eguzki auzoko sustapen publikoko etxebizitza berriak. Erakusketa uztailaren 3an, astelehena, zabalduko dute eta bulego orduetan egongo da irekita. Bi proiektu hauen planoak eta infografiak jarriko dituzte; eta honetaz gain, proiektuak azalduko dituen ikus-entzunezkoa ere gertu izango da bertan. "Konturatu ginen herritar askok ez dituela ongi ezagutzen bi proiektu hauek. Beraz, erakusketa honen asmoa da antzuolarrei ahalik eta modu argienean informazioa ematea", esan digu Valen Moñuxek, udal aparejadoreak.

MUSIKA

Hezkuntza musikaleko eskolak Antzuolan

I.A. > ANTZUOLA

Udalak, Musika Eskolak eta zenbait gurasok akordioa lortu dute datorren ikasturtean Antzuolan hezkuntza musikaleko eskolak emateko. Orain artean, trikitixa eta pandero eskolak baino ez dituzte eman Antzuolan; aurrerantzean, baina, hezkuntza musikal, ahots teknika eta koraleko eskolak herrian jasoko dituzte eta Bergarara musika tresnak jotzen ikastera baino ez dira joango.

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Gurasoen esanetan, "Bergarara bueltaka ibili beharrean abantaila handia da eskolak herrian bertan jasotzea". Horregatik, umeak animatu nahi dituzte datorren ikasturterako izena eman dezaten lehenbailehen, taldea sortu ahal izateko.

> ARGITERIA PUBLIKOA

Gauerditik aurrera herriko hiru faroletik bat itzali egingo dute energia aurrezteko

Udalak argiteria publikoko energia aurrezteko sistema berezi bat ipini du abian. Gutxi gorabehera 400 farol daude herrian eta 00:00ak ondoren hiru faroletik bat itzali egingo dute gastua murrizteko. Gainera, neurri hauek hartzeagatik Energiaren Euskal Erakundeak dirulaguntzak emango dizkio Udalari; hain zuzen ere, sistema berriaren kostuaren %20 ordainduko du.

Aurrez ere hartu izan ditu Udalak energia aurrezteko neurriak. Farolen argi potentzia txikitzeko sistema ezarria dute aspalditik. 220 W-ko bonbillak 170 W-ra pasatzen dira gauerditik aurrera. Berez, farolek argi txikiagoa ematen badute ere, herritarrek ez dute apenas sumatzen ezberdintasunik dagoenik.

> AISIALDIA

Uztailaren 3an hasiko dira 5 eta 12 urte bitarteko 110 ume udaleku irekietan

Udan aisialdiaz gozatzeko izango dute nahiko aukera herriko umeek. Uztailaren 3an hasi eta jaiak hastearekin batera, uztailaren 13an, amaituko dute aurtengo udaleku irekien txanda. 5 eta 12 urte bitarteko 110 umek eman dute izena aurten eta astegunetan 09:30etik 13:00etara jardungo dute. Bederatzi taldetan banatu dituzte umeak eta euren ardura bederatzi begiralek eta koordinatzaile batek izango dute. Udalekuetako ohiko jarduerez eta jolasez gain, aurtengorako berrikuntzak gertatu dituztela aipatu digu koordinatzaileak. *Kluedo* jokoa, *play back*-a, antzerkia, ipuin kontaketa, txantxa jokoa... izango dituzte; eta horrez gain, egun bereziak ere izango dira: Antzararen Eguna, San Fermin Eguna eta egun bateko irteera igerilekura edo mendira.

UDALA > DIRUZAINTZA ERAGIKETA ONARTUTA

Inbertsioei aurre egiteko Udalak 700.000 euro eskatu ditu

Aurreikusitako diru sarrera batzuk atzeratu egin direlako diruzaintza eragiketa egitea onartu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Martitzenean egin zuten udaletxean osoko bilkura eta beste gai batzuen artean diruzaintza eragiketa egiteko eskaria izan zen mahai gainean. Aldeko hiru boto eta aurkako beste hiru izan zituen eskariak; azkenean, alkatearen botoarekin onartu zen puntu hau.

Hainbat inbertsio egin ditu Udalak eta aurrekontuetan inbertsio hauek ordaintzeko diru sarrerak aurreikusi arren, oraindik ez ditu jaso. Beraz, ordainketei aurre egiteko 700.000 euro eskatu ditu. Aurreikusitako sarrerak iristean bueltatuko du dirua.

ARALARREK EZETZ

Sarrerak Torrealdeko garajeen salmentatik, Ibur Errekako industria-gunearen ustiapenetik eta eraikuntza zergetatik jasoko ditu Udalak. Alkateak esan digu oraindik zehaztu gabe dagoela noiz jasoko duten falta den diru kopurua.

Aralarrek ezezko botoa eman zuen, eta gai honen gainean zera esan du: "Udala zorretan dago. Ondorioz, EAJ-EAk 700.000 euroko diruzaintza eragiketa eskatzea beste aukerarik ez du izan. Ez dira bete 2006ko aurrekontuetan onartutako diru sarrerak. Aurrekontuen eztabaidan esan genuen diru sarrerak ez zirela errealak eta denborak arrazoia eman digu. EAJ-EAk ez du ardurarekin jokatu, gestio aldrebesa ezkutatzeko lehen pausoa diruzaintza eragiketa eskatzea da; bigarrena mailegu bat eskatzea izango dela sumatzen dugu. Inbertsioak egitea garrantzitsua da; ezinbestekoa da, ordea, horiei aurre egiteko modua topatzea eta ez du horretan asmatu eta etorkizunera begira Udala hipotekatzen dihardu".

argazki zaharra

Erretiratuen bazkaria jaietan

Jaietako egubakoitzean erretiratuek bazkaria izaten dute. Orain Espaloian izaten bada ere, Ozkarbi elkartean egiten zuten lehen eta hainbat emakumek fin jarduten zuten erretiratuendako bazkaria gertatzen; 25 urtetik gora jardun zuten langintza honetan. Gaur egun zerbitzari lanak egiten dituzte hauetako batzuek. Erretratuan legatza gertatzen agertzen diren lau emakumeok talde handi baten ordezkari dira. Ezkerretik eskumara: Maria Jesus Lete, Begoña Ardantza, Asun Arruabarrena eta Arrate Elkoro.

Argazkia: Maria Asun Agirre.
Testua: Maria Asun Agirre.

bere ustez

Sebas Arantzabal

Dantzatu, gozatu, ligatu... euskaraz

Urtea arin igaro ondoren, berriro ere hemen ditugu herriko jaixak. Ez dira denen gustukoak izango, baina badago zerekin gozatu.

Eguena herritarren gaua da, batzuk majo luzatuko zuten gaua eta bariku eguerdian oraindik bueltaka ibiliko dira, gazte izandakoak agertzen hasten diren arte, hauek, plazan pixka bat agoantatu eta bazkaltzera, aspaldi ikusi gabekoekin gaztetako abenturak gogoratzeko aukera ederra.

Iluntzean ohetik jausten direnean agertzen dira berriro gazteak. Aipatzekoa gaztetxekoek egiten duten lana, egunero kontzertuak eta gazte diren eta sentitzen direnentzako jai gune aproposa sortuz.

"Gogoratu jaixetan euskara erabiltzea eskatzeko, eskaintzeko, ligatzeko..."

Badaude herritarren partaidetzari esker aurrera egiten duten ekimenak: danborrada, asto karrera, bolo txapelketak eta abar.

Domekan baserritarrak nagusi. Barazki eta ganadu tartean herrixa lepo betez. Gogoratu jaixetan ere euskara erabiltzea eskatzeko, eskaintzeko, ligatzeko...

Tabernetan kaña euskal musika eskatuz, tabernariak aspertu arte.

Ezin ahaztu herritik urrun daudenak. Ostiral iluntzean plazan Ane Miren eta beste guztiak gogoratuko ditugu; hurrengo urtean baietz.

> OMENALDIA

'Errementariko ahizpa' jostunak omendu dituzte

Jaietako erretiratuen eguna da gaurkoa. Bazkaritan elkartu dira erretiratuak Espaloian, baina aurrez ekitaldi berezi bat zegoen iragarrita eurendako. Maria Luisa eta Maria Angeles *errementariko ahizpek* omenaldia jaso dute. Urte luzetan jostun onak izandakoak dira bi ahizpak. Madrilen eta Sevillan ikasketak egin ostean, jantzi dotoreak josi zituzten. Eurek egindako lanak ikusgai ipini dituzte plazan, eta bide batez euren ibilbidea saritu nahi izan dute Jai batzordekoek.

HEZKUNTZA > GURASO ELKARTEAREN BATZARRA

Datorren ikasturtean ez du zaintza zerbitzurik eskainiko guraso elkarteak

Zabalik dago psikomotrizitate saioetarako eta ingeles eskoletarako izena emateko epea

I.A. > ELGETA

Ikasturte amaierako batzarra egin du Maala guraso elkarteak. Bertan, ikasturtean barrena egindako ekintzen balorazioa egin dute, besteak beste.

Zaintza zerbitzuak interesik piztu ez duenez, hurrengo urtean ez dute eskainiko.

Eskola barruko zein kanpoko ekintzak ere izan ziren hizpide. Barrukoetan, igeriketa ikastaroa Eibarko igerilekuetan egin dute; bestalde, ikasleek baratzean jarduteko gurasoak arduratu dira garbitu eta mantentzeaz.

Eskolaz kanpo psikomotrizitate saioak eta ingeles, soinu eta pandero eta musika eskolak egon dira eta hurrengo ikasturtean ere berriz eskainiko dituzte.

KANPOKO EKINTZAK

Bestalde, Gabonetarako jarduerak antolatu zituztela gogorarazi zuten, baita eskola publikoaren jaiaren alde egindako ekintzen berri eman ere. Umeen dantza saioak, inauterietako merienda eta igandetako zinema ere aipatu zituzten. Gurasoendako hitzaldi eta tailerrez eta Udalarekin elkarlanean egindako gauzez ere jardun zuten.

Irailean egingo dute hurrengo batzarra, besteak beste zuzendaritza aldatzeko.

((112))
SOS DEIAK

OSPAKIZUNA > SAN MARTIN EGUNA

Meza, mokadutxoa eta dokean jokatzeko aukera domekan

Goierri auzoko San Martin ermitan jaiegun handia da, eta garai bateko ohiturari eutsiz gatzagar asko elkartuko dira

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Uztaileko lehenengo domekan egiten dute San Martin ermitako ospakizuna gatzagarrek, eta aurten ere lagun asko elkartuko dira etzi, uztailak 2. Jaieguna aprobetxatuta 28. Dorletako Ama txirrindulari proba egingo dute.

MEZA ETA PINTXOAK

Etxafuego hotsek emango diote hasiera ospakizunari Goierri auzoko San Martin ermitan, eta 12:30ean, meza esango dute. Gatzagan bizi direnekin batera kanpotarrak etorriko dira ermita ingurura, garai baten egiten zuten antzera.

Meza ostean mokadutxoa eskainiko dute: pintxoak eta ardo freskoa. Batzuk jaten geratuko dira, beste batzuk aspaldiko lagunekin kontu kontari, eta dokean jokatzera joango denik ere egongo da. Izan ere, ohiturari jarraituz doke txapelketa egingo dute ermita inguruan. Izena ez da aurrez eman behar; hortaz, jokatzen dakien edonor hurreratu ahal izango da.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Bestalde, San Martinen ospakizunetako bat, orain arte Andramari jaietan, irailean, egin izan den txirrindulari proba izango da. Hura aurreratzea erabaki dute antolatzaileek, eta domekan jokatuko dute. 23 urtez azpiko eta elite mailako gazteak elkartuko dira 10:00etan, Gatzagan, Dorletako Ama 28. txirrindulari probari hasiera emateko. Bailaran gora eta behera hainbat buelta egin ostean, 12:40 inguruan bukatuko dute lasterketa txirrindulariek herrian bertan.



ERMITA Gatzagar asko elkartuko dira San Martin inguruan. GOIENKARIA

Hamabi lagun dabiltza pintxo eta kazolatxoak zela egin ikasten

Toki Eder gastronomi elkarteko sukaldea beteta egoten da astelehen eta eguaztenetan, joan den astea ezkero. 12 lagun dabiltza –gizonezkoak bi– Zumarragako Ana Albisua sukaldariaren esanetara pintxo eta kazolatxo goxoak zela egin ikasten. Eta dagoeneko hainbat jaki gertatu eta dastatu dituzte: arrain budina, patatak aliolirekin eta piperrak bakailaoz beteta, besteak beste. Astelehen honetan makatza eta hirugiharra ogi txigortu gainean egiten jardun zuten.

M.A.

> ONGIZATEA

Etxez etxeko laguntza araudia ikusgai dago

Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal erregelamenduari hasierako onespena eman zion udalbatzarrak ekainaren 1ean egindako osoko bilkuran. Gipuzkoako herri guztietan dabiltza onartzen, Foru Aldundiak proposatutako araudia delako. Ezintasunak dituztenei ematen dizkieten laguntzak arautzen ditu, eta zehazten du laguntzok jasotzeko zein baldintza bete behar dituzten.

Ikusgai jarri du araudia Udalak eta hilabeteko epea dute gatzagarrek alegazioak eta iradokizunak aurkezteko, ados ez badaude. Uztailaren 26a bitartean alegaziorik jasotzen ez badute udaletxean behin betiko onartuta geratuko da araudia.

Uztailaren 3a: 093 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, uztailak 3, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

092 zozketako saridunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Cruz Maria Galdos Urkia (Oñati)
- Pili Otadui Agirrezabala (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Josu Ezkurdia Santamaria (Eskoriatza)
- Ramon Azkarate Lizarralde (Arrasate)

093 zozketako sariak

Baldintzak

- *Astelehenekoa Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko: 902 36 38 51 09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota: 24 euro 2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa

ABIADURA HANDIKO TRENA > KEZKA HANDIA DUTE BASERRITARREK

Erreferenduma eskatu dute herriko baserritar gazteek

Informaziorik ez dutela salatu eta adierazi dute AHT inposaketa dela eta Aramaio erdibitu egingo duela; moratoria ere eskatu diote Jaurlaritzari

UBANE MADERA> ARAMAIO

Kezka erakutsi zuten baserritarrek AHTk ekarriko dituen ondorioengatik. Euren esanetan, trenak arriskuan ipiniko du baserritik bizitzen jarraitu ahal izatea. Hala adierazi zuen Jose Luis Lasagak. "Oso mugatuta geratuko gara; lursailak hartzen ditu, mordo bat erdibitu egiten ditu. Guri, zelai mordoa apurtzen digu, eta behiendako belarra kanpotik ekarri beharko dugu. Ubideak arriskuan daude eta bistarako ere eragin handia izango du, egundoko zubiak eraiki behar dituzte-eta".

"INPOSAKETA"

Hori horrela, besteak beste, baserritar gazteek nahi dutena da tren horren gainean herritarrei galdetzea: "Tren hau egin baino lehen eztabaida egon beharko litzateke, trena behar den edo ez. Eta behar bada ere, badira beste alternatiba batzuk, adituen esanetan: *U*-a, *H*-a… Garbi dugu hau inposaketa hutsa dela. Ez dute kontuan hartu ez gure iritzirik eta ez ezer ere".

Hala, aurrera begira, Aramaion protesta ekitaldi gehiago iragarri dituzte eta jaietan, esaterako, trenaren ibilbidea erakusten duen panela aterako dute, zapatuan eta domekan.

BASERRITARRAK Baserritik bizi direnek kezka erakutsi dute euren bizimoduarekin jarraitzerik izango duten. U.M.

U.M.

Haur eskola badoa itxura hartzen

San Martin Eskolaren ondoan egiten dabiltzan eraikinaren lanak oso erritmo bizian dabiltza egiten; besteak beste, eguraldiak lagundu egin du-eta eraikinaren zimendatze-lanak egiten. Hala adierazi digu eskolako zuzendariak. Aurreikusitako moduan, Gabon ingururako bukatuko dute Haur eskolarendako eraikin berria.

> UDALEKO OHARRAK

Helbideak ipini behar dira etxeko postontzietan; bestalde, helarazi digute udalekuen ordutegia

Udaletik atzera ere ohartarazi gura diete herritarrei postontzietan etxebizitza horretako bizilagunen datuak ipini behar dituztela lehenbailehen. Kontua da orain arteko herrikoak ibili direla posta etxez etxe banatzen, baina datorren astetik aurrera kanpokoak ibiliko dira. Hori horrela, izenak ipini ezean, gutunak bueltan joango dira.

Bestalde, uztailaren 5ean hasiko diren udalekuetako ordutegiari dagokionez, 10:00etatik 13:00etara bitartean dute hitzordua gaztetxoek. Hori horrela, auzoetako umeek honako orduetan izango dute autobusa: Uribarri (09:15-13:05); Arrikoitxi (09:20-13:15); Arraga (09:25-13:20); Eguzkierripa (09:30-13:25); Untzilla (09:45-13:30); Zabola (09:50-13:35) eta Azkoaga (09:55-13:40)

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Aramaioko Udalbatzak San Martin jai zoriontsuak opa dizkizue aramaiar guztioi.

Bixente Goikoetxea enparantza, z/g • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

dukiena
JATETXEA

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

agurra

Mertxe Mondragon > Alkatea

Asko dira egunez egun aurrera atera behar izaten ditugun proiektuak, planak, arazoak, eta abar. Baina bidean geldiune bat egiteko eta deskantsu apur bat hartzeko hementxe ditugu aurten ere herriko San Martin jaiak.

Aramaioko Udalak ekintzez betetako programa osatu du, eta horietan parte hartzera animatzen zaituzte biziki.

Badakigu, ordea, jai hauetan ez garela guztiok egongo, baina gure herrian sortu den egoera berriarekin itxaropentsu gaude eta benetan espero dugu laster batean guztiok elkar konpartitzea jaiak eta baita bestelako ospakizunak ere.

SAN MARTINAK > HERRIKO JAI NAGUSIAK, ASTELEHENERA ARTE

Herritarren laguntzarekin, era askotako ekitaldiak daude jaietan

Jaietan bi omenaldi egingo ditu Udalak: omenaldia antolatu dio Oldarki taldeari, domekan 13:00etan; eta egitarauan, Micaela Portilla historialaria izan dute gogoan.

UBANE MADERA > ARAMAIO

Udalak antolatuta eta herriko talde gehienen laguntzarekin prestatutako egitaraua dago San Martin jaietan. Hori horrela, gaur, barikua, hasi eta datozen lau egunotan, adin eta gustu guztietako ekitaldietan parte hartu ahal da.

PUNK OI! ESTILOKO KONTZERTUAK

Hala, gaur, 19:00etan bertsolariek lagundutako bertso-triki-poteo eta Zirkus Mirkus kale antzerkia daude. Papargorri gazte abesbatzak, berriz, jardungo du 20:00etan. Eta nabarmentzekoak dira kontzertuak, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak (ATGA) antolatutakoak: Brigada Criminal (Lazkao), Never Surrender (Arrasate) eta Against the Rapits (Bergara), 23:00etan dira, plazan.

ATGAk biharamunerako ere antolatu ditu kontzertuak, txosnetan, 23:00etan. Joko dute: Ozen (Arrasate), Lost Girls (Arrasate), Agressive Combat (Arrasate) eta Five Twisters (Zaldibar) taldeek.

TXIRRITOLINPIADAK Aurten ere, *olinpiadak* hasi baino lehen, proba berezi bat gainditu beharko dute lehiakideek. A.G.

PLATER TIROKETA, KURTZETAN

Zapatuari begira, berriz, Kurtzeta-Gain taldea plater tiroketa egiten ahaleginduko da, eguraldiak uzten badio. 15 plateretara izango da lehiaketa eta 20tik gora tiratzaile espero dituzte, Aramaiokoak eta elkarteko bazkide direnak. Parte hartzeko Kurtzetara joan beharko da 16:30ak aldera. Plater tiroketa 17:00etan hasiko da.

Eta zapatuan baita ere, Txirritola Euskara Elkartekoek dei egin dute Txirritolinpiadetan parte hartzeko, 18:00etan, Bañeran. Lehiakideak hirunako taldeetan banatuta, parketik atera eta iazko ibilbide bera egin beharko dute bizikletan zein korrika. Txirritolak honako sariak prestatu ditu irabazleendako: 12-16 urtekoen arteko lehenengoari 175 euro; bigarrenari 75 euro eta hirugarrenari 40. Eta 17tik gorakoen artean, lehenari 175 euro, 125 bigarrenari eta 75 hirugarrenari. Izenematea tabernetan egin behar da.

NAFARROA ETA BIZKAIA, PLAZAN

Eta bestelako ekitaldien artean, nabarmentzekoak dira bi ekitaldi: batetik, domekan, Nafarroako doinu indartsuak izango dira plazan, 18:00etan, Alma Navarra jotarien eskutik. Bestetik, domekan ere bai, Bizkaiko haizeak ibiliko dira Los Cinco Bilbainos taldearen eskutik, 22:30ean, plazan.

ITURRIOSTE
GARAJEA
Nekazaritza makinen eta autoen salmenta eta konponketa.
Olio, gurpil eta balazten konponketa
Ondo ibili jaixetan!!
Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

UXARTE
• Bost logela komunarekin
• Afariak
• Internet WI-FI sistemarekin
Nekazalturismoa
Untzilla (Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 Faxa: 945 44 59 10 • Uxarte@euskalnet.net

BEHI-ALDE
ERKOP
BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Mondragon
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA
Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15

UNZUETA JATETXEA
NEKAZALTURISMOA
Zabola auzoa • Tel.: 945 44 50 95

Askotariko hitzorduak San Martinetan

30, barikua
19:00: Jaien hasiera, plazan. Ondoren, bertso-triki poteoa.
19:00: Kale antzerkia: Zirkus Mirkus.
20:00: Papargorri, kultura etxean.
23:00: Brigada Criminal, Never Surrender, Againts the Rapits, plazan.
23:00: Jon Gardoki (goian).

1, zapatua
12:30: Espuma jaia, plazan.
17:00: Tiro Platue, Kurtzetan.
17:00: Mus eta briska, erretiratuenean.
18:00: Txirritolinpiadak.
19:00: Txaranga herrian zehar.
22:00: Pilota partiduak kiroldegian: Ariznabarreta-J.Gomez vs L. Aldai-Gorriti eta Barberito VI-Errandonea vs Antxia-Arretxe.
23:00: Rock kontzertuak txosnetan: Ozen, Lost Girls, Agressive Combat eta Five Twisters.
23:30: Kiñurekin erromeria, plazan.

2, domeka
12:00: Meza Santue.
12:00: Herriko trikitilariak kalean.
13:00: Oldarki dantza taldeari omenaldia; eta gero herriko dantzarien saioa, plazan.
16:30: Jolas parkea, Bañeran.
18:00: Alma Navarra jotariak plazan. Ondoren bertso jaialdia: Iñaki Viñaspre, Julen Zelaieta eta Oihana Bartra.
19:00. kalez Kale txaranga.
22:30: Los Cinco Bilbainos, plazan.
22:30: Kontzertua, txosnetan: Dimako aeromutilak.

3, astelehena
11:30: Ume jolasak, parkean.
12:00: Meza Santue
16:30: Kuadrilen arteko pikie
17:00: Txan Magoa plazan.
19:00: Arrasate Musikal, elizan.
19:00: Akelarre txaranga.
21:00. Herri afaria.
22:30: Ohiergi taldearen erromeria.
00:00: DJ festa txosnetan; eta gero, kaltzontzilo-kulero-tanga lasterketa eta playback txapelketa.

PRESOEN ALDEKO TXOSNA
30, barikua
19:30: Azken barikuko agerraldia, plazan.
20:00: Txosna zabalduko dute.

1, zapatue: Amnistiaren alde
18:00: Txosna zabalduko dute.
19:30: Presoen aldeko ekitaldia.
00:30: Manifa burrunba, txosnatik.

2, domeka: Kuba festa
17:00: Mus eta Partxis lehiaketak.
18:00: Bizikletan poteue.

3, astelehena
01:00: Presoen aldeko brindisa
06:00: Txokolatada.

NEVER SURRENDER Arrasatekoek barikuan joko dute. GOIENKARIA

Inaxio Errandonea > Frontis enpresako jabea eta pilotaria

"Frontisen, pilotariak kantxa barruan egiten dituen lorpenak errespetatzen ditugu"

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Badira bi urte Inaxio Errandoneak, Barberitok, Armendarizek eta Ariznabarretak Frontis Pilota Enpresa sortu zutenetik. Dagoeneko 19 pilotari dituzte nominan; horietako zortzi ikuskizuna ematera etorriko dira bihar Aramaiora, 22:00etan.

Barberitok eta Errandoneak Antxiaren eta Arretxeren kontra jokatuko dute. FRONTIS

Asegarce eta Aspetik kanpora ere badago bizitzerik?

Baietz uste dugu. Martxo amaieran bete zituen Frontisek bi urte, eta gustura gabiltza. Egun 19 pilotari daude gurekin, eta pilotatik bizi dira gehienak. Gutako bakoitzak urtean 50 partidu inguru jokatzen ditu.

Zelan antolatzen dituzue txapelketak?

Jaialdiekin batera gure txapelketa propioak antolatzen ditugu. Lau t'erdikoa, Buruz Burukoa... Eta, txapelketa horietan guztietan egindako lorpenekin rankinga osatzen dugu. Azken urtean, adibidez, Jorge Nagore izan da onena.

Enpresa handietan ikusi izan dugu jaialdietan edo txapelketetan beti ez direla pilotariaren lorpenak kontutan hartzen.

Frontisen bai, pilotariak kantxa barruan egiten duena errespetatzen dugu-eta. Horrekin batera, gu izan gara lehenak pilotariak Gizarte Segurantza barruan sartzen. Alde horretatik, jendea pozik dabil.

> **"Lehenak izan ginen pilotariak Gizarte Segurantzan sartzen"**

41 urterekin, ilusio berberarekin jarraitzen duzu pilotan?

Egia da orain beste zeregin batzuetan ibiltzen naizela gehiago, baina gorputzaldi onean egoteko entrenatzen naiz. Ikustekoa da, adibidez, Arretxek zelako ilusioarekin jarraitzen duen entrenatzen eta jokatzen.

Zer ikusiko dugu Aramaion egingo dugun jaialdian?

Enpresako zortzi pilotari joango gara Aramaiora, eta ikuskizuna ematera goaz.

PROMOCIONES ARAMAIXO
11 etxebizitza berri Aramaion
Informazio gehiago:
630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65
Nardeaga kalea 26

Berehala hastekoak!
Ondo pasa San Martin jaiak

FINALERDIAN Gorka 22-4 gaindituta egin zuen Peñasek aurrera. JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA > ELGETAKO LAU T'ERDIKO ETB KANTXA SARIA

Elgetako finalean lau pilotari gazte, baina bi txapel baino ez

Gonzalez-Ollo senior mailako finala domekan; aurretik Peñasek eta Elezkanok jokatuko dute kadete mailako finala, 12:00etan

XABIER URTZELAI > ELGETA

Iritsi da ordua. Kontrario mordoa atzean utzi eta gero domekan jokatuko dute lau finalistek Elgetako Lau t'erdiko ETB Kantxa saria. Ez izan dudarik, pilotari horiek izango dira etorkizunean Atanoko, Labriteko edo Ogetako pilotalekuetako ikusleak aulkitik altxaraziko dituztenak. Hasteko, baina, nahikoa dute domekan Elgetako pilotalekuan dituzten dohainak erakusten badituzte, eta txapela janzten badute, hobeto.

Kadete mailako partiduarekin hasiko dute pilota jaialdia. Hala, Peñas nafarrak eta Elezkano bizkaitarrak neurtuko dituzte indarrak lehenengo norgehiagokan. Antolatzaile lanetan dabilen Juan Luis Uberak eman dizkigu xehetasunak: "Akaso, Peñas izango da faboritoa. Atzelaria da, ez du pilota bakarra ere galtzen eta gainera, sake ona du. Elezkanoren jokoa, berriz, ikusgarriagoa da. Defentsan ez da horren ondo moldatzen, baina erasoan dominatu egiten duenez gutxitan ibiltzen da defentsa lanetan. Kontrarioa mendean izatera ohituta dago, ikusi egin behar".

SENIORRETAN ERE PAREAN

Andoaingo Gonzalez eta Goldaratzeko (Nafarroa) Ollo izango dira seniorretan txapela eskuratzeko lehian. Partidu horretan ere gauza gutxi daude garbi: "Ollok oso aurrelari fina dela erakutsi du. Txoria bezala ibiltzen da kantxan, hara eta hona, beti ondo kokatuta, eta atera ere ondo egiten du. Gainera, bera izan da txapelketan ezuste handiena eman duena, inork ez zuen-eta faboritoen artean ikusten. Baliteke, baina, Gonzalezek sakearekin min egitea. Andoaindarrak lehenengo kolpea oso ona du, eta akaso, errestoan du Ollok hutsune handiena; gainera, Gonzalez gorputzaldi oso onean dago".

DEBARROKOAK UZTAILAREN 9AN

Debarroko Txapelketa ere dagoeneko iritsi da finalera. Hiru kategoriatan banatuta, guztira 12 pilotari izango dira datorren uztailaren 9an Aretxabaletan. Hamabi pilotari horietatik hamar debagoiendarrak dira.

TXIRRINDULARITZA > DORLETAKO AMA LASTERKETA

Bi hilabete aurreratuta dator Gatzagako proba

Joan den urtekoa ez errepikatzeko erabaki dute lasterketa domekan egitea

X.U. > LEINTZ GATZAGA

Oraingo domekara aldatu dute Dorletako Amako lagunek Gatzagako jaietan egiten zuten lasterketa. Iaz 19 ziklista aurkeztu ziren lasterketara, eta zuzendaria proba bertan behera uztekotan ibili bazen ere, herriko antolatzaileek erabaki zuten lasterketa egitea. Hala, 19 ziklista horietatik hamar izan ziren gauza Gatzagako maldak hirutan igotzeko, gainontzekoak erretiratu egin ziren-eta.

GOGOTSU BERRIRO ERE

Kolpe hura eta jaso gero, orain dela hilabete Euskal Bizikletako etapa ederto antolatu izanak itzuli die gatzagarrei ilusioa eta lanerako gogoa, eta herriko lasterketak ere arrakasta izan dezan proba domekara aurreratzea erabaki dute: "Denboraldi amaieran inork ez du lasterketa gogorrik gura izaten, eta lasterketa aurreratzea erabaki dugu. Domekan, ziklistak 10:00etan irtengo dira Gatzagatik, eta Bergararaino joango dira lehenengo itzulian; hurrengo bi itzuliak, berriz, Arrasatetik egingo dituzte. 12:40ak inguruan helmugaratuko dira", esan digu Alberto Altubek. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariak izango dira.

GOIENKARIA

Torreauzoko Herri Lasterketa, domekan

Domeka goizean egingo dute Torreauzoko 9. Herri Lasterketa (7,6 km). Joan den urtean 120 lasterkari izan ziren nagusien proban, eta aurten ez dituzte gutxiago espero. Gainera, antolatzaileek uste dute korrikalari ezagunen bat edo beste ere izango dela tartean. 10:30ean gaztetxoek egingo dute korrika. 11:00etan hasiko da nagusien proba.

Has zaitez Konfort *testagatik*™**

Erakuts ditzakegun gorespen eta argazki erakargarriek ezer gutxirako balioko lukete, inoiz ez baitzenuke ezagutuko Stressless® besaulki edo sofa baten benetako erosotasuna. Arrazoi sinple bategatik: probatu egin behar dituzulako! Stressless® baten eseri bezain pronto, beste besaulki eta sofekin konparatuta, eskaintzen dizun aparteko bermea sentitu eta ulertuko duzu. Zuk zeuk frogatu! Gertuen duzun Stressless® dendara hurrera zaitez eta Konfort testa™ egin ezazu.

Besaulkiak eta sofak **www.stressless.es**-en

Stressless® EKORNES®
THE INNOVATORS OF COMFORT™*

* Konfortaren berritzaileak
** Konfort testa

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • **GASTEIZ**
Tel./Faxa: 945 21 42 24

> KONTZERTUA
Niko eta Dominika Etxarten emanaldia gaur Antzuolan > 45

> ADOX
Komunikazioaren barruan hainbat arlo lantzen ditu Adox enpresak > 51

> AMAIA TXINTXURRETA
Betizu-ko karaokeak txikienen artean ezagutzera eman zuen eta gaur egun Basajaun taldeko abeslaria da gazte oñatiarra > 50

MONTERRONEN Nazioarteko Folklore Jaialdia ospatuko da uztailaren 27an. GOIENKARIA

BERGARAN Rafa Ruedaren emanaldia Espoloian, uztailaren 7an. GOIENKARIA

Musika eta zinema udako gauetarako

Ibarreko hainbat udalek udako kultur programazioa kaleratu dute

Zine emanaldiez gain, kontzertuak izango dira Arrasaten, Bergaran eta Oñatin

EDU MENDIBIL > BERGARA

Heldu da uda eta ibarreko hainbat udalek datozen asteotarako kultur programazioa kaleratu dute. Udako gau epeletan izango da aisialdiaz gozatzeko aukera: musika emanaldiak eta aire libreko zine emanaldiak nagusi dira han eta hemengo programazioetan. Oñatiko Gaztelekuko arduradunek, esaterako, hainbat kontzertu antolatu dituzte herriko hainbat txokotan; Bergaran jazz edo funky musikarako tartea izango da uztaileko egubakoitzetan, Espoloian; eta Arrasaten, Monterronen, Nazioarteko Folklore Jaialdia ospatuko da uztailaren 27an, Togoko Balafon taldearekin eta Vietnamgo Hué hiriko dantza eta kantuekin.

Bestalde, ibarretik gertu, Elorrion, uztailaren 28ra bitartean Musikaire jaialdia ospatuko da. Musika, antzerkia, dantza eta magia ikuskizunak izango dira han. Gaurko, esaterako, *Psitt!! Psitt!!* dantza garaikideko ikuskizuna izango da Gelabert-Azzopardi taldearen eskutik. Bihar, zapatua, Teatro Corsarioren *La barraca de Colón* antzezlana ikusteko aukera dago eta domeka gauerako Benito Lertxundiren emanaldia iragarrita dago.

Ibarrean zein inguruko herrietan badago non aukeratu. Doaneko emanaldiak, eskura.

Udako gauak herriz herri

Bergara

UDAKO GAUAK
Uztaileko egubakoitzetan musika emanaldiak Espoloian, 22:30ean.

Uztailak 7.	Rafa Rueda
Uztailak 14.	Malatu taldearekin jazz kontzertua
Uztailak 21.	Four Friends Bilboko taldearekin jazz kontzertua
Uztailak 28.	Ortophonk taldearekin funky musika

UDAKO ZINEMA
Abuztuko eguenetan, herriko plazan, 22:00etan.

Abuztuak 3.	Charlie y la fábrica de chocolate
Abuztuak 10.	Obaba (euskaraz)
Abuztuak 17.	Bajo cero
Abuztuak 24.	Koruko mutilak (euskaraz)

Arrasate

MUSIKA ETA DANTZA

Uztailak 14.	Igelaren trikimailua. Ferrerias kaleko plazatxoan, 23:00etan
Uztailak 23.	Campell Brothers Monterronen, 22:30ean
Uztailak 27.	Nazioarteko Folklore Jaialdia Monterronen, 22:30ean

UDAKO ZINEA
Monterronen, 22:30ean.

Uztailak 7.	Volver
Uztailak 14.	El código Da Vinci
Uztailak 21.	X-Men: La decisión final
Uztailak 28.	Scary Movie 4
Abuztuak 4.	El juego de los idiotas
Abuztuak 11.	Novia por contrato
Abuztuak 18.	Aupa Etxebeste!
Abuztuak 25.	Fearless: Sin miedo

Aretxabaleta

UDAKO ZINEA
Uztaileko martitzenetan eta egubakoitzetan, herriko plazan, 22:30ean.

Uztailak 4.	Brokeback Mountain
Uztailak 7.	Atzegik saritutako film laburrak
Uztailak 11.	El reino de los cielos
Uztailak 14.	Oliver Twist
Uztailak 18.	El jardinero fiel
Uztailak 21.	Las crónicas de Narnia
Uztailak 25.	Memorias de una geisha
Uztailak 28.	Madagascar

Eskoriatza

UDAKO ZINEMA
Uztaileko astelehen, eguazten eta egubakoitzetan, herriko plazan, 22:30ean.

Uztailak 5.	El reino de los cielos
Uztailak 7.	Las crónicas de Narnia
Uztailak 10.	Crash
Uztailak 12.	Batman begins
Uztailak 14.	Oliver Twist
Uztailak 17.	Brokeback Mountain
Uztailak 19.	Aupa Etxebeste!
Uztailak 21.	Wallace&Gromit
Uztailak 24.	En la cuerda floja
Uztailak 26.	16 calles
Uztailak 28.	Shin-Chan: Abenturak Henderland-en

Oñati

KALEAN

Uztailak 8.	Sexty Sexers, Los Chuloputas eta Monky Day
Uztailak 29.	Sugan talde goierritarra plazan
Irailak 2.	Danni Leigh rock-country talde estatubatuarra
Irailak 3.	TrapuZaharra taldearekin kale-antzerkia
Irailak 9.	Randy the Band talde suediarra, Rabia Positiva eta Oñatiko beste talde bat
Irailak 23.	Hotdogs taldearen kontzertua Gaztelekuan

Eskaintza honek ekainaren 29tik uztailaren 8ra balio du janari-edarietan eta drogerian.
Bazar, etxetresna elektriko eta ehunkietan, uztailaren 29ra arte balioko du eskaintzak.

Prezio freskonomikoak

Apo-azaleko meloia, kg
0,59€

2. alea
SALNEURRI ERDIAN

Eta, gainera,sustapenarekin seinalatutako ehunka produktu

EROSKI
Erosten jakin

MUSIKA > ZUBEROAKO KANTU TRADIZIONALAK

Niko Etxartek Zuberoako kantuak eskainiko ditu Antzuolan

Niko eta Dominika Etxart aita-semeak eta Robert Larrandaburu arituko dira alde batetik, baina Mikel Markez ere izango dute alboan

IKER BARANDIARAN > ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, 22:30ean kontzertua egingo dute Antzuolako Antigua baselizan. Udalak antolatu du eta sarreran 7 euro ordaindu beharko dira. Niko eta Dominika Etxart aita-semeek Robert Larrandabururen laguntzarekin esku hartuko dute. Horrez gain, Mikel Markez ere izango da taula gainean.

Bi taldeek euskal kantu tradizionalean oinarritutako kantuak eskainiko dituzte: *Eperra, Anaia etxen da ezkontü*...

Niko Etxart eta Dominika Etxart Altzürükükoak dira eta Robert Larrandaburu Larraingoa. Lehenengo biak aita-semeak dira, eta Larrandaburu Nikoren koinatua da. Hiru zuberotar horiek *Eperra* diskoan oinarritutako emanaldia egingo dute. Lan hori Elkar diskoetxeak argitaratu zuen 2004an, eta oso harrera ona izan zuen.

ZUBEROAKO KANTUAK

Hiru musikariek ahozko kultura transmisioa lantzen dute eta Zuberoan kantua zelan lantzen den erakusten dute. *A capella* abesteko gaitasun handia dute.

2002. urtea ezkero dabiltza herriz herri Zuberoako kantari zaharren lanak ezagutzera ematen. Hainbat musikariren kantuak batu dituzte: Ligeix Etxahun, Attuli, Latxikana...

Bestalde, hiru lagunek, behin baino gehiagotan, azpimarratu dute Pirinioetako lehenengo artzainen *bortü botza* teknika erabiltzen dutela. Hau da, inolako sofistikazio berezi barik, euren ahots indarrez bakarrik baliatuta, amodioari, herri-minari eta euskarari ozen abesten dietela.

ETXART FAMILIA Niko Etxartekin batera, aita Dominika eta Robert Larrandaburu koinatua arituko dira. GOIENKARIA

MUSIKARI POLIFAZETIKOA

Oso bitxia da Niko Etxarten ibilbidea. Urte berean gai da kantu tradizionalen lan bat eta rockean oinarritutako beste bat, biak hala biak, aldi berean kaleratzeko. Euskarazko rockaren espiritua Iparraldean bizirik mantendu duen ezinbesteko musikarietako bat da, eta aldi berean tradizioari ez dio inoiz uko egin.

MIKEL MARKEZ

Horrekin batera, Mikel Markez ere izango da Antzuolako Antigua elizako taula gainean. Errenteriako musikari hori oso gaztetan hasi zen abestiak idazten. Dagoeneko hainbat disko kaleratu ditu, eta azkenekoa, *Erabil nazazu,* Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak kaleratu zuen. Niko Etxart eta Mikel Markez aspaldiko lagunak dira, eta Markezek ere Zuberoako musikaren gaineko ezagutza handia du. Hortaz, Markezek Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin grabatutako laneko kantu batzuk eskaintzeaz gain, hainbat kantutan Etxarten hirukotea lagunduko du gitarra alboan duela. Emanaldi guztia akustikoa izango da.

OSPAKIZUNA > GAZTETXE EGUNA OÑATIN

Bihar, zapatua, Gaztetxe Egunaren bigarren edizioa egingo dute Oñatin, ETEOn

Herrian gaztetxe bat izatea aldarrikatzeko, kontzertu ugari, herri bazkaria, manifestazioa eta jokoak egingo dituzte

I.B. > OÑATI

Bihar, zapatua, II. Gaztetxe Eguna egingo dute Oñatin. Iazko edizioaren arrakasta ikusita eta gabezia berarekin jarraitzen dutenez, Oñatiko gazte batzarrak jaialdi hori berriro egitea erabaki du.

Oztopo guztien gainetik lelopean, gaztetxe baten aldeko aldarrikapena egingo dute gazteek Oñatin. Gazteen asmoa zen jaialdi hori pilotalekuan egitea, baina Udalak ez die baimenik eman. Horren ondorioz, egunerako antolatutako ekitaldi guztiak ETEOko Larraña futbol zelaian egingo dituzte.

MUSIKA BARRA-BARRA

Egitaraua 10:30ean hasiko dute txupinazoarekin eta jarraian triki-bertso txikiteoa egingo dute. 13:00etan, berriz, jokoak, eta 14:30ean, herri bazkaria.

Musika taldeen bi kontzertu egingo dituzte. Bata, 17:00etan, eta honako taldeek esku hartuko dute: Lukrezia, Bitz eta Patxi Katarro y los Vagueza Cronica.

Ondoren, 19:00etan, manifestazioa egingo dute, eta 20.00etan kanpoko taldeak arituko dira: Banda Batxoki, Manifa, Subversion X, Manolo Kabezabolo eta Josu Distorsion y los del Puente Romano, hain zuzen ere.

MUSIKA

Goikobalu abesbatza Madrilen lehiatuko da

I.B. > ARRASATE

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Coros de Rivas Espainiako Abesbatzen Vaciamadrid lehiaketa egingo du Goikobaluk Madrilgo probintziako Coros de Rivas herrian.

Espainiako Estatuko talde ugari aurkeztu dira lehiaketa horretara, baina, azkenean, lau besterik ez da sailkatu.

EUSKAL HERRIKO BI TALDE

Arrasateko Goikobalu abesbatzaz gain, Hondarribiako Eskifaia, Madrilgo bi talde eta Granadako beste bat lehiatuko dira asteburuan.

Arrasatearrek eskola handia dute, eta maila altua emango diote txapelketari.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Sukia eraikuntza. Prezio oso ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 55 m². Berrituta.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Ibargarai 109 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Martoko 85 m². Oso ondo
- Zubiaurre 70 m². Ondo.

Antzuola:
- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza. Aukera ona.
- Sagasti 90m². Prezio ona.

ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANÍSTICOS
INMOBILIARIA
T:943 698404

Behar duzun etxebizitza daukagu.
Zure etxebizitzaren salmentan lagunduko dizugu.
Informa zaitez.

943 69 84 04
648 05 56 90

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Duplexa salgai. Eraikuntza berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

Antzuola. Etxebizitza ia berria. 90 m². Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, halla, despentsa eta bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzita. Eguzkitsua. 655 70 97 14.

Arrasate. Doneztebe Portuko kalean. 69 m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bi soto. Arratsaldez deitu. 652 77 87 71.

Bergara. Bidekurutzetan etxebizitza saltzen da; bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. 60 metro koadro ditu eta altzariekin utziko dugu. Eguzkitsua da eta bista ederrak ditu. Prezio interesgarria. 647 64 86 74.

Bergara. Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden: hiru logela, bi bainugela, berogailua, garajea eta trastelekua. Eguzkitsua eta bista ederrak ditu. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

Bergara. Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi gela. Igogailua. Berogailua. Balkoi handia. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 664 73 49 60.

103. ERRENTAN EMAN

Baztan. Uztail eta abuzturako ematen da errentan. 636 49 46 87.

Benidorm. Etxebizitza emango nuke errentan Levanten. Bi logela, igerilekua eta aparkalekua ditu. 666 67 06 94.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87m². Ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m² . Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

Cambrils. Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik oso gertu. Igerilekua eta lorategia ditu. 610 79 47 29.

Conilen (Cadiz) etxebizitza emango nuke errentan. 615 75 11 47.

Donostia. Etxebizitza ederra. Gros hondartzatik gertu. Familiarako gertatua. Uztaileko bigarren hamabostaldetik irailera. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Donostia. Hiru logelako etxebizitza alokatzen da udan. Berritua eta altzari berriekin. Hondartzatik, alde zaharretik, erdialdetik eta Kursaaletik 10 minutura oinez. 639 37 25 89.

Elizondo. Etxebizitza errentan ematen da. Leku lasaia, herrian bertan. Garajea. 630 08 33 85.

Gandia. Uztail, abuztu eta irailerako apartamentua, hondartzaren ondoan. Urbanizazio pribatua. Igerileku eta guzti. 645 71 05 83.

Jaca. Apartamenta errentan uztailean eta abuztuan. Bi gelakoa. Garajea. Urbanizazioa igerilekuarekin eta tenis pistekin. 665 73 95 65.

Noja. Duplex polita hondartzan. Itsasora begira. Hamabostaldiak edo hilabete osoak. 944 61 43 78 edo 696 90 94 43.

Peñiscola. Apartamentua errentan uztailean eta irailean. Hondartzatik gertu. Aparkalekua eta igerilekuarekin. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Salou. Uztaila eta iraila. Lau lagun. Itsasora begira. Jaime I pasealekuan. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Santa Pola (Alacant). Gran Playa hondartzatik eta klub nautikotik 100 metrora. Uztaileko lehen hamabostaldian eta abuztuan. Auto batentzako garajea du uztailean. 605 02 05 22.

Torremolinos (Malaga). Apartamentua uztaileko lehen hamabostaldirako. Hondartzatik 5 minutura. Bi logela, etxetresnaz horniturа, aire girotua, itsasora begira, merkea. (Mari Carmen). 943 76 33 58 edo 657 01 18 16.

Torrevieja. Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela. Hondartzatik gertu. 687 22 75 41.

Vera (Almeria). Apartamentua errentan ematen da. Hondartza eta urbanizazio naturistan. Jantzia. Igerilekua. 657 73 94 25.

Villanua (Pirinioak). Igerilekua. Garajea. Uztaileko bigarren hamabostaldia eta abuztuko lehena. Deitu gauez. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

Zumaia. Estreinatzeko 80 m²-ko etxebizitza berria. 943 01 93 46 edo 606 56 47 14.

Zumaian 90 m²-ko apartamentu berria. Udan alokatzen da (asteak, hamabostaldiak edo hilabeteak). Oinez hondartzetatik 10 minutura eta erdigunetik 2 minutura. Ramon. 645 70 51 87.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaletan bikote batek etxebizitza (estudioa...) alokatu nahi du irailetik aurrera. 645 72 58 41.

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta. Etxebizitza errentan hartuko luke familia batek. 665 75 52 11.

Bergara. Emakume batek bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko luke errentan. Karine. 618 17 17 89.

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 616 45 00 20.

Aretxabaleta. Lagun bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxebizitza handia eta eguzkitsua da. Eneritz. 645 70 11 03.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE
Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.
618 76 34 40
605 76 08 29

BERGARA
Duplex berria eta garaje itxia salgai.
699 49 14 14

BERGARA
Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko.
651 70 88 54

ARETXABALETA
Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.
647 05 42 75

ARETXABALETA
Neska bat behar da taberna batean mahaiak zerbitzatzeko egubakoitz eta zapatuetan. 21:00etatik gauerdira arte.
943 79 02 25

ANGIOZAR
Ortzi erretegia alokatzen da.
943 78 22 80
665 72 24 46

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia saltzen edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

Oñati. Garaje itxia salgai San Lorentzo auzoan. 658 75 22 37.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje itxia. 38 metro koadro. 656 73 79 54.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokala salgai Sagasti auzoan. 65 m². Telefonoa: 657 77 97 52.

Arrasate. Lau logelako etxebizitza bat osatzeko langileak behar dira. 605 77 51 66.

Bergara. Bolun etxea osatzeko lagun bat behar da. Andoni. 605 76 98 97.

Bergara. Barruti industrialdean lokala salgai. 176 m². 943 76 35 09.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko. 630 98 08 57.

Arrasate. Sukaldaria behar da pintxoak egiteko taberna batean. 943 77 30 29.

Arrasate. Umea zaintzeko pertsona bat behar da. Irailean hasteko izango litzateke eta arratsaldez. Deitu 09:00etatik 15:00etara bitartean. 665 71 22 15.

Bergara. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 667 31 37 45.

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 616 26 18 84.

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska gazte euskaldunak zerbitzari moduan edo umeak zaintzen lan egingo luke. 695 74 27 95.

Bergara. Esperientzia eta gomendio eskutitza daukan neska ondorengo lanak egiteko prest: garbiketa, pertsona nagusiak eta umeak zaintzea, etxeko lanak, sukaldari laguntzailea, zerbitzaria. Etxeetan orduka edo bertan bizitzen. 690 84 72 92.

Bergara. Esperientziadun mutila ondorengo lanak egiteko prest: pertsona nagusiak zaindu, tailerreko laguntzaile, galdategian, soldadore, garbiketan, zerbitzari, uzta jasotzen, baserrian lan egiten eta igeltsero laguntzaile moduan. 639 42 82 80.

Bergara. Neska gertu jende nagusia zaintzeko. Irailetik aurrera. 605 75 75 08.

Bergara. Neska lanerako prest 09:00etatik 12:00etara. 639 88 67 83.

Debagoiena. Garbiketa lanak egiteko edota pertsonak nagusiak zaintzeko prest nago. 943 03 45 94.

Neska. Goizetan hiru ordutan lan egiteko prest. Garbitzen, nagusiak zaintzen... 618 91 33 30.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut. Telefonoa: 943 79 03 83.

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Bergara. Ingeles eskolak ematen ditut. 618 91 32 89.

Bergara. Lehen Hezkuntzako eta DBHko eskolak ematen ditut. 627 75 69 30.

Bergara. Unibertsitateko ikaslea DBH eta batxilergo bitarteko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu. 645 71 81 84.

Bergara. Uztailean Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu. 676 22 82 56.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Golf GT gorria salgai. Oso egoera onean, 1991koa ,133.000 km eta aire girotuarekin. 1.500 €. 661 96 62 70.

Golf GTI autoa salgai. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Harley-Davidson Sportsters Custom 53c modeloa. Estrak. More kolorekoa. 677 83 47 29.

Honda CB 500S motorra salgai. Egoera onean. 3.000 euro. 605 72 92 40.

Opel Astra 2.0 16v autoa salgai. 8 urte, 118.000 km. 696 56 04 87.

Opel Corsa 1.7 DTI salgai. 31.000 km. CDa, aire girotua, aire-zakuak... 7.300 euro. 665 74 91 28.

Opel Kadett 1.600 gasolioa salgai. 649 84 05 06.

Quad Kymco Kxr 250 cm³. Gorri kolorekoa eta parrilarekin. 1.900 km eta egoera onean. 3.000 euro. Bi quad erramateko erremolkea ere salgai. 615 78 05 01.

Scooter Peugeot Trekker motorra salgai. 50 cc. 605 75 53 27.

Seat Ibiza 1.4 autoa salgai. 100 ZP. 29.000 km. CDa eta aire-girogailua. 17:00etatik aurrera deitu. 656 74 53 90.

Seat Ibiza autoa. 11 urte, 92.000 km, 1.000 euro. 943 76 45 81 edo 653 71 77 67.

Suzuki Vitara. Erremolkea eramateko lotura eta aurreko paratxokea. Bi gurpil joko. 1993koa. IAT pasatuta. 699 85 49 58.

Yamaha Aeros motorra salgai. 50 cm³. 615 78 05 01.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Baxua bere maletinarekin. 615 78 05 01.

Egurrezko mahaia salgai. Izkina egiten duen eserlekua, bi aulki, taburete bat, guztiak kuxinekin. Txokorako aproposa. 943 76 21 79.

Haur-aulkia salgai, Jane markakoa. Hiru gurpileko Powertrack 360 dauka. Erabili bakoa. 619 28 62 47.

Kanpin denda salgai. Auto gainean eramatekoa. Inesca Liberty markakoa. 653 73 08 04.

Karabana. Zaharra da, baina oso ondo zainduta dago. Aterpe berria du. 656 78 23 19.

805. TRUKATU

Bizikleta estatikoa aldatuko nuke mini stepper batengatik. 943 76 21 96.

806. GALDU

Bergara. Urrezko eskumuturrekoa galdu nuen ekainaren 18an, zapatua. Madura eta Txikipark artean. Eskertuko da. 943 76 22 23.

Jertse berdea galdu nuen domekan Bergaran, parking publikoaren gainean dagoen parkean. Gizonezkoendako jertsea da. 943 76 03 31.

MP3 gorria galdu nuen ekainaren 19an Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan antzerkia ikusten nengoela. Inork ezer baleki deitu, mesedez. Telefonoa: 649 55 48 10.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutilekin. Xabi naiz, arrasatearra. 20 eta 35 urte bitarteko mutilekin harremanak eduki nahiko nituzke. Asmo bera baduzu, bidal iezadazu SMS bat. Erabateko zuhurtasuna. Telefonoa:665 75 58 74.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS EH2 SORGIN4 AIZKORAK
TARTALO IKURRI3 LORA BABAK
BASAJAUN IKURRI5 LAU2 ARRANAK

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ESKELA

Amparo Bengoa Ezkibel

Manuel Arkauz Elkororen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2006ko ekainaren 29an, 84 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, ekainak 30, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko parrokian.

Zure familia.
Aretxabaletan, 2006ko ekainaren 30ean.

URTEURRENA

Gregorio Garai Txintxurreta

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 2an, 12:30etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Beñat Sanchez Garitaonandia

Donostian hil zen 2005eko ekainaren 30ean, 14 urte zituela.

Irribarrea zenuen ezpainetan, alaitasuna begietan. Betirako egongo zara gure bihotzean.

Aita eta ama.
Bergaran, 2006ko ekainaren 30ean.

URTEURRENA

Markos Lete Urtzelai

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 1ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Adolfo Carmona Alonso

Lehen urteurreneko meza eguaztenean, uztailaren 5ean, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Beñat Sanchez Garitaonandia

Donostian hil zen 2005eko ekainaren 30ean, 14 urte zituela.

Beti izango dugu gogoan zure irribarrea.

Amatxoren lagunak.
Bergaran, 2006ko ekainaren 30ean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate
Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. / Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio
Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta
Mariasun janari-denda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 85 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.

bila-bila 7





hitz gezidunak



Paradisu biblikoa
Kemena, balorea
Nafarroako herria
Sari, pagu
Aire-korron-tea
Harritu
Murmuri-katu
Etsai, kontrako
Azienden intsektu
Ote-mota gogor
IRUDIKO MENDIA
Emeak ez direnak
Landare mota
Lama
Kanta zaharra
Korroka
Sodioaren ikurra
Futbolean, tanto
Oinarrizko edari
Lanabesa
Pare
Bururatu
Energia
Ur izoztu

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Berandu arte esna

Telefonoz elkarrekin geratzeko lekua eta ordua hitzartu ondoren, Imanol Gorkarekin bildu da Benitaren tabernan. Baxoerdiak eskatu eta bazterreko mahai batean eseri dira:

- Zer moduz, aspaldiko? —galdetu dio Gorkak, bizkarrean zapladatxoa emanez—.

- Ez oso ongi, motel…, nazkanazka eginda nagok emaztearekin —erantzun dio Imanolek, goibel—.

- Etzak esan! Eta jakin al daiteke zergatik?

- Sekula ez dik lorik hartzen goizeko hirurak baino lehen!

- Eta, jakin al daiteke zer egiten duen ordu horietan esna?

– Nire zain egon!

sudokua

	3				2	4		
			4	5				6
2		1	8			5		
7						8	2	
	8			3			9	
	5	4						3
		7			9	6		2
3				7	4			
		6	2				8	

hieroglifoa

Emakumezkoen izena



hizki salda

Alemaniako mundialean ari diren bost selekzio

A	B	R	I	T	O	D	O	E
A	R	G	E	N	T	I	N	A
S	D	X	I	A	L	F	A	I
E	A	I	L	F	R	A	D	Z
O	L	I	S	A	R	B	I	T
S	E	A	B	R	T	U	D	N
A	N	Z	L	H	E	U	O	A
L	A	G	U	T	R	O	P	R
A	I	N	A	M	E	L	A	F

soluzioak





6	3	5	1	9	2	4	7	8
8	7	9	4	5	3	2	1	6
2	4	1	8	6	7	5	3	9
7	6	3	9	4	1	8	2	5
1	8	2	5	3	6	7	9	4
9	5	4	7	2	8	1	6	3
5	1	7	3	8	9	6	4	2
3	2	8	6	7	4	9	5	1
4	9	6	2	1	5	3	8	7

Jeroglifikoa: Emeterria.
M T erria.



bono fotoa

GALDERA: Ze langintza edo lanbideren omenetan jarri zuten Antzuolako Zurrategi plazako eskultura 1998ko uztailean?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....
.....
IZEN-DEITURAK .....
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Maria Fontaneda galletak
800 gramoko kaxa

1,49 € 248 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IÑAKI LEGUINArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Arantzazu.

MATRIKULAZIO EPEA
ekainaren 30etik uztailaren 6ra

LANBIDE HEZIKETA
heziketa zikloak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

zure etorkizunerako
biderik onena

Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

BEHERAPENAK
dasta itzazu

Beherapen hauek zapore freskagarria utziko dizute. Izan ere, 20 eurotik gorako erosketako tiket bakoitzeko, Boulevardek eta Helados Nestlek, astelehenetik ostegunera, Extreme Gold Vainilla kono ederra ematen dizute opari. Zatoz informaziogunera.

Dasta ezazu!

Amaia Txintxurreta > Abeslaria

"Sasoi baten umeek kalean gelditzen ninduten autografoak eskatzeko"

Amaia Txintxurreta oso gaztetan hasi zen abesten, eta *Betizu*-ko karaokeak txikienen artean ezagutzera eman zuen. Horren ostean, *Show BT*-ko telebista akademian ere ibili zen, eta gaur egun Basajaun taldeko abeslaria da. Bestalde, Ikus-entzunezkoak ikasten hastear dago, eta dagoeneko hasi da Goiena Telebistako jaietako saioan praktika hartzen.

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Amaia Txintxurretak oso ondo antolatzen du denbora. Oso txikitatik abesten eta dantzan ibili da, igeriketa egin du, eskolan nota onak ateratzen ditu eta orain kontzertuak ematen dabil.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Abeslari. Txikitatik gustatu izan zait. Txikitan aitak mikrofono bat oparitu zidan, eta ama aspalditik dabil abesbatzan. Etxekoek asko lagundu didate, eta askotan taxi-gidari lanean ibiltzen dira, ni hara eta hona eramaten.

Pentsatzen dut gurasoek beste zerbait ikasteko ere esango dizutela...

Bai, hori beti azpimarratu izan didate: lehenengo ikasketak egiteko, eta gura badut zaletasun moduan abestu eta telebistan aritzeko.

Ikasle ona zara?

Bai, orain arte nota onak atera ditut. Kontua da antolatzea, eta gauza bakoitzari zenbat denbora eman erabakitzea.

Oraindik 18 urte dituzu. Zer ikasteko asmoa daukazu?

Ikus-entzunezkoak. Ikasketa horiek telebistarekin lotuta daude, eta horren aldeko apustua egin dut. Ingelesezko Irakaskuntza ikasteko puntuan ere izan nintzen, berez hizkuntzak ikasteko erraztasuna daukat-eta.

Ikasketak Eskoriatzan egingo dituzu? Ez daukazu kanpora bizi izatera joateko irrikarik?

Zalantzan egon naiz Leioara edo Eskoriatzara joan, eta kanpora bizi izatera joateak erakarri egiten nau, baina azkenean Eskoriatzan gelditukо naiz.

Abesteaz gain, dantza ere egiten duzu...

Bai. Txikitan euskal dantzak ikasten ibili nintzen. Horren ostean, nire kontu ibili naiz bestelako dantzak ikasten. *Betizu*-n ibili nintzenean konturatu nintzen dantza gero eta gehiago gustatzen zaidala.

Zer gurago duzu, abestea ala dantza egitea?

Abestea. Abesteak asko laguntzen dit. Edozein lekutan abesten hasten naiz gogoz nagoenean.

Zer musika duzu gustukoen?

Popa. Batez ere gaztelaniaz abestutakoa: Amaral, La Oreja de Van Gogh... Eta baita ere, Mn Ezten...

JOSETXO ARANTZABAL

Etxean musika jartzen duzu ala zeuk abesten duzu?

Askotan musika jartzen dut, baina neuk abesten bukatzen dut.

***Betizu*-ra aurkeztu zinen. Zelako esperientzia izan zen?**

13 urte nituenean Oñatira karaokea ekarri zuten eta izena eman nuen. Eman zidaten puntuazioagatik bideoklipa grabatu nuen, eta zortzi bat hilabetean zerrendetan egon nintzen. Horren ostean, *Betizu*-ko castingera joan nintzen eta hartu egin ninduten. Egubakoitz arratsaldero Miramonera eta zapatu goizero Durangora joaten nintzen. Abestiak prestatu, dantza egin, interpretazio eskolak jaso... Lehenengo *BT:0* saioan eta bigarren urtean *Show BT*-n. Musikal bat egin genuen eta disko bilduma kaleratu genuen.

Zer moduzkoa da telebista barrutik?

Polita da eta merezi du hor aritzea, baina gogorra ere bada: lehiakortasun handia dago.

Ezagun egingo zinen. Ondo moldatu zara?

Sasoi baten umeek kalean gelditzen ninduten, autografoak eskatzen zizkidaten... Umeena pozgarria da, eta ondo moldatu naiz.

Jai-zalea zara?

Bai, zapatuetan lagunekin irtetea asko gustatzen zait. Herrian giro oso ona egoten da, baina dantza egiteko taberna gutxi daude.

Aspaldian dantzaldietako talde baten zabiltza...

Bai, aurten Tolosako Basajaun taldearekin abesten nabil. Aurretik, iaz, Ermuko Tucan taldean ibili nintzen ordezkapen bat egiten; eta aspalditik Ganbara abesbatzan ere banabil. Gustura nabil Basajaun taldearekin, baina lan gogorra da: hiru ordutik gorako emanaldiak egiten ditugu, muntatzen denbora luzea ematen dugu..., baina ondo pasatzen dut, jende asko ezagutu dut eta ondo ordaintzen dute. A, uztailaren 14an Oñatiko Triana auzoko jaietan arituko gara Basajaun taldearekin.

Emango zenuke izena 'Operación Triunfo'-n?

Bai. Badakit oso zaila dela sailkatzea, baina egingo nuke proba gustura. Publizitate handia ematen du saio horrek, eta asko ikasten da akademia horretan.

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 18 urte. **Ikasketak:** Batxilergoa. **Zaletasunak:** Abestea, dantza egitea eta igeriketa. **Zure bizitza aldatu duen musika talderik?** Laura Pausini. Txikia nintzenean ahizpak entzuten zuen sarritan. **Nora egingo zenuke bidai bat?** Polinesiara. **Zure bizitzako leloa da:** Momentuan momentukoa bizi. **Zelan ikusten duzu zure burua 30 urte barru?** Gaur egun baino gauza gutxiago egiten. Telebistan edo ikuskizunetan lanean. **Oñatiko jairik onenak?** San Migelak. **Inoiz ez ditut ahaztuko:** Benidormeko lagunak.



IRUDIA Hori da Adox Komunikazio enpresako ardatzetako bat, irudia ondo lantzea. Argazkian, Ibai eta Jon. XABIER URTZELAI

ENPRESA > ADOX KOMUNIKAZIOA

"Gure lanean diseinuari berebiziko garrantzia ematen diogu"

Lau laguneko lantaldeak osatzen du Adox Komunikazioa; sormenari berebiziko garrantzia emanez, komunikazioaren barruan hainbat alor lantzen dituzte

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jon Etxeberriarekin eta Ibai Bengoarekin Arrasateko Sampry tabernan egin dugu hitzordua, non hobeto, diseinu grafikoa Adoxek landu duen tabernan baino.

KOMUNIKAZIOA, ARLO ZABALA

Orain momentuan zertan dabiltzan galdetu diegu: "Hemengo enpresa batendako webgune korporatiboarekin lanean eta hainbat denda birtualen proiektuekin gabiltza, gidoiak lantzen. Normalean enpresa txiki eta ertainendako egiten dugu lan, baina ez dugu mugarik, besteak beste, Ipar Euskal Herrian eta Valentzian ditugu bezeroak", esan digu Jonek.

Baina, zein da zehazki Adoxen egiten duten lana? "Gauza asko egiten ditugu: aholkularitzatik hasi eta webguneak egin, irudi korporatiboak diseinatu, katalogoak landu, enpresako komunikazio estrategiak bideratu... Alde horretatik, enpresa bakoitzak dituen beharrak ikusi eta horren arabera komunikazio alorrean emaitza onena zerk emango zukeen aztertzen dugu. Alde horretatik, bezeroei esan lehenengo aholkularitza zerbitzua doan egiten dugula". Ibaik jarraitu du berbetan: "Enpresa askok marketing eta diseinu aldetik hutsuneak izaten dituzte. Dirua inbertitzen dute horretan, baina planifikazio barik. Hala, inbertsio horrek errendimendu hobea izan dezan egiten dugu lan". Horretarako zerbitzu integrala ala zatikatua eskaintzen dute.

DISEINUAREN GARRANTZIA

Egiten dutena egiten dutela, bai paperezko lanetan (katalogoak, triptikoak...) edo bai multimedian (webguneak...) diseinuari berebiziko garrantzia ematen diote: "Produkzioaren izenean ez du balio gauzak edozein modutan egitea. Gure jardunean bereziki zaintzen dugu diseinua, baina era berean, egindakoa funtzionala izan behar da derrigor".

Adox komunikazio enpresa ezagutzeko modu onena euren webgunea bisitatzea da: *www.adoxnet.net*.

teknologia berriak

> ZYPAD WL 1000

Eskumuturrerako konputagailuak ikusiko ditugu aurki, baina udaltzainek erabiltzeko?

Dagoeneko errealitatea da Zypad WL 1000 izeneko ordenagailua. Eskumuturrean erabiltzeko da, eta ukipen-pantailarekin erabiltzen da.

Windows edo Linux-ekin erabili ahal izango da: 3,5 hazbeteko (pulgada) pantaila, 300 gramo, 8 ordu irauten duen bateria, Wi-Fi, Bluetooth eta baita GPS sistema ere. Badirudi emergentzietako taldeendako edota poliziendako aproposa izan daitekeela. Denborak esango du udaltzainek hori erabiliko duten...

Ordenagailu txiki hori eskumuturrean eramateko diseinatu dute. 300 gramo baino ez ditu.

> CCD SENTSOREA

111 megapixeleko bereizmena izango duen sentsorea landu du Dalsa etxeak

Hamaika zentimetro koadro ditu sentsore horrek, eta 10.560x10.560 pixeleko bereizmena (erresoluzioa).

Hala, badirudi US Naval Observatory erakundeak erabiliko duela bereizmen erraldoia duen sentsore hori. Zertarako? Galdetuko dute askok. Diotenez, zeruko izarren eta gainontzeko elementuen jarraipena egiteko erabiliko dute. Poltsikoko telefonoek ez dute, behintzat, horrelakorik ekarriko, momentuz.



Bereizmen handiko sentsoreak hamaika zentimetro koadro ditu.

> TELEFONIA

Poltsikoko telefonoaren bateria kargatzeko, Motorolak PB 970 aurkeztu du

Telefonoaren bateria kargatzea du helburu PB 970ak, baina entxuferik erabili barik. USB bitartez konektatzen da kargadore hori telefonora, eta ez da Motorola etxeko telefonoendako soilik.

Egia esan, baina, hainbat kritika ere jaso ditu produktu horrek, izan ere, adituek ez dute uste oso erabilgarria denik. Azken batean, gaur egungo poltsikoko telefonoko bateriek hainbat egun irauten dute, eta edonon karga ditzakegu. Egun askorako mendira joan behar duenarendako edo...

Motorolaren produktu berriarekin, telefonoaren bateria kargatzeko ez dugu inguruan entxuferik behar.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak
/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /joseba
/BZ-sistemas /dragon-oriental /dukiena /ego /elejalde
/ezkutuorly /gallastegi /ganesha /garaia /gorkagarai /gorkataxi
/guztizeder /irudisport /korozabaleta /maulanda /mayte /merkeopari
/multiopticas /ohiak /okipark /vitoria /pando /richimaier
/udalatx /udalaitz /urdeki /markiegi

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.

berriak

> UDAKO IKASTAROAK

Goiena, tokiko telebisten gaineko ikastaroan

Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, *Tokiko telebistagintzaren ereduak eta programak. Euskarazko tokiko telebistaren azoka* ikastaroa izango da Eibarren, uztailaren 3an eta 4an.

Goienak ere parte hartuko du Eibarko jardunaldietan. Hain zuzen, Inazio Arregi Goienako zuzendariak eta Oihane Agirre GOITBko zuzendariak hitzaldi bana egingo dute Eibarren.

> GOITB

Puntukako gidabaimena gaur 'Behazulo' saioan

Goiatz Arana kazetariak aurkezturiko *Behazulo* saioan puntukako gidabaimenaren gainean jardungo dute gaur, egubakoitza, 21:15ean.

Hain zuzen ere, zapatuan, uztailaren 1ean, jarriko dute indarrean zeresan ugari eman duen puntukako gidabaimena. Arreta handiagoz ibili beharko dute gidariek aurrerantzean. Horren gaineko argibideak eskainiko dituzte gaur *Behazulo*-n.

> ARRASATE IRRATIA

Antonio Oteitzaren ibilbidea Mendizabalen eskutik

Antonio Oteitza eskultorearen brontzeko lanen erakusketa ikusgai dago Arrasateko Arregi galerian, uztailaren 22ra arte. Jorge Oteitzaren anaia da Antonio, monje kaputxinoa da eta arte erlijiosoan oinarritu du bere ibilbide artistikoa. Juan Bautista Mendizabalek ondo ezagutzen du Antonio Oteitzaren lana. Mendizabali egindako elkarrizketa domekan, *Asteko gainbegiratua* saioan.

> ARRASATE IRRATIA

Berrikuntzak HUHEZIn datorren ikasturterako

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatea indartu egingo dute datorren ikasturterako. Hain zuzen ere, goi mailako lau profesional ekarriko dituzte: Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Eneko Olasagasti eta Jone Larrañaga. HUHEZIko Aitor Zuberogoitiak horren gainean jardun zuen irratian martitzenean. Zuberogoitiari egindako elkarrizketa emititukо dute berriz asteburuan, Arrasate Irratian.

'DEBARRI' > EGUAZTENEAN, 21:45

Juan Carlos Bengoari elkarrizketa 'Debarri' saioan

Eskoriatzako alkatea izango da datorren asteko gonbidatua Alberto Gorritiberearen saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Dagoeneko ibarreko bederatzi alkate igaro dira Alberto Gorritiberea kazetariak aurkezturiko *Debarri* saiotik. Eguaztenean, uztailaren 5ean, Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkatearen txanda izango da, 21:45ean.

Bengoa EAJ-EA koalizioko zerrenda-burua izan zen 2003ko udal hauteskundeetan eta ordutik hona ari da alkatetzan. Aurretik Elizateetako zinegotzia izan zen Eskoriatzako udaletxean. Besteak beste, Santa Anan, Dorletan eta Santa Marinan egiten ari diren obren gainean jardungo dute *Debarri* saioan.

HERRIA Eskoriatzan egindako lana aztergai izango da saioan. GOIENKARIA

'JAIAK 2006' > MARTITZENA, 21:15

Eskoriatza, Elgeta eta Aramaioko jaien gaineko saioa martitzenean

GOIENKARIA > ARRASATE

Jaiak 2006: Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio saioa ikusteko aukera izango da martitzenean GOITBn, 21:15ean.

Eskoriatzan San Pedro jaiak ospatzen ari dira egunotan eta Aramaion San Martin jaietan murgilduta daude. Elgetan, berriz, Azoka Nagusiko jaiak hasi ziren atzo, eguena, eta domekara arte ekitaldi ugari izango da han.

Jaietako giroa jasotzen ahaleginduko dira GOITBko kameralariak eta kazetariak egunotan. Zalantzarik ez, Eskoriatza, Aramaio eta Elgetako herritarrek izango dute protagonismoa jaietako ekitaldietan. Haur eta helduendako aukera zabala izango da han eta hemengo jaietan. Horrela, ekitaldi nagusietako irudiak eta protagonisten iritziak jasoko dituzte jaien gaineko saio berezian.

Esan bezala, martitzenean jaiekin berriro gozatzeko aukera izango da GOITBn. Ordubeteko saio berezia 21:15ean eskainiko da. Era berean, aipatutako saioaren errepikapena emango dute astean zehar.

telebegi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Denboraldi berria

Urte sasoi honetarako, telebista kanal guztiek erabakita daukate datorren denboraldirako programazio-taula nolakoa izango duten. Aurkezleak edo antzezleak kontratupean, ekoizpen-etxe bakoitzak egingo dituen programak zehaztuta eta, gehiago ala gutxiago, audientziaren eta publizitate fakturazioaren simulazioak amaituta. Beharrezkoa dute halako aurreikuspenarekin aritzea goitik behera lehiakorra suertatzen ari den telebista merkatuan leku bat eduki nahi badute. Antzera ari dira kanal pribatuak eta publikoak, industrializatuta dagoen telebistaren negozioan.

Dakitenek diote betiko bidetik joko duela programa eskaintzak 2006-2007 denboraldian: entretenimendua eta ikuskizuna nagusi. Nola bestela, lehendik ere telebista pribatuek joera markatzen zuten eremuan bi berri daudenean: Cuatro eta La Sexta. Ikusiko dugu nola joango diren gauzak. Munduko futbol txapelketarekin apustu gogorra egin du La Sextak eta Espainia uste baino lehenago kanporatu dute. Mundiala amaitzen denean ea zein ibilbide hartzen duen kanal berriak.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.
Musikaire udako jaialdia da abian Elorrion. Mikel Irizarren azalpenak. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearen asmo berriak datorren ikasturterako, Aitor Zuberogoitiaren eskutik. Antonio Oteitza eskultoreak erakusketa du Arrasaten; Juan Bautista Mendizabalek Oteitzaren lana erakutsiko digu irratian. Uztailaren lehenean puntukako karneta jarriko dute abian; Lagun Aro aseguru etxeko Xabier Yañizekin izan gara. Lorategia, Irene Zenitagoiarekin.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda Giroa!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Bainurako tokien egoera.
Elkarrizketak.
Ateraldiak egiteko proposamenak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepikapena).
17:00,19:00,21:00,23:00 Albistegi laburra
17:15 Zorion Agurren tartea (errepikapena)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 30
13:15 Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza: Peru. **15:30** M1. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu: Oier Sarasua **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire 2 **17:30** Eltze beroa: Legatz betea **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean: Rafa Rueda **18:15** Teknopolis. **18:45** Albiste aurrerapena . **19:00** Klipak. **19:15** Jazz. **19:45** Albisteak. Julen Iriondo **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Berriak. **21:15 Behazulo 21:45** Albisteak. Julen Iriondo **22:15** Ilunpean: Javier Muguruza **22:45** Berriak. Deiane Arrieta **23:15** Didjeridu : Oier Sarasua **23:45** Albisteak **00:15** Emisio amaiera.

Zapatua, 1
07:55 Emisio hasiera **08:00** Marrazki bizidunak bilduma **10:50** Astekoak. Informazio saioa **11:00** Jazz **11:30** Klip **12:00** Didjeridu: Oier Sarasua **12:30** Mkt **13:00** SanJuanak2006 **13:30**Eltze beroa: Legatz betea **14:00** Astekoak **14:15** Jaiak 05Eskoriatza,Aramaio,Elgeta **15:15** Marrazkiak. Snorkeldarrak **16:00**Bihurkorrak **17:00** Debarri. Aretxabaleta **18:00** Teknopolis **18:30** Berbaire. **19:00**Sustraia. **19:30**Munduari bueltaka **20:00** Astekoak **20:15** MKT. **20:30** Behazulo **21:00** Ilunpean **21:30**Harmaillatik **22:00** San Juanak 2006 **22:30** Didjeridu: Oier Sarasua **23:00** Klipak **23:30** Debarri. Aretxabaleta **00:30** Emisio amaiera.

Domeka, 2
07:55 Emisio hasiera. **08:00** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Behazulo **11:30** Ilunpean: Javier Muguruza **12:00** Berbaire. **12:30** Harmailatik **13:00** Debarri. Aretxabaleta. 14:00 San Juanak 2006. **14:30** Klip **14:45** Sustraia **15:15** Erreportaia: Satur Goia **15:45** Marrazki bizidunak. Card /Snorkeldarrak. **17:15** Didjeridu: Oier Sarasua. **17:45**Astekoa **18:00** Iparorratza **18:30** Jazz **19:00** Elkartasunaren bideak **19:30** Harmailatik. **20:00** Debarri. Aretxabaleta **21:00**Jaiak 2005. **22:00** Berbaire **22:30** Behazulo **23:00** Ilunpean **23:00** Eltze beroa: Legatz betea **00:00**Didjeridu **00:30** Astekoak **00:45**5Amaiera

Astelehena, 3
13:15 Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo **14:15** Eltze beroa: Berdura egosia **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** Munduari bueltaka **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Ilunpean: Javier Muguruza **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Didjeridu: Oier Sarasua **17:30** Zera dio. Zabaleta/Arretxe **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire **18:15** Sustraia **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Behazulo **19:45** Berriak. Deiane Arrieta. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** BerriakGoiatz Arana. **21:15** Harmailatik . **21:45** Berriak **22:15** Harmailatik. **22:45** Berriak **23:15** Jazz **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

Martitzena, 4
13:15 Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunakCard **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz **14:15** Zera dio **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Harmailatik **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Jazz **17:30** M2.Danbaka. Sharon Stoner. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Behiak belatzen **18:15** Munduari bueltaka**18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Harmailatik **19:45** Albisteak. Julen Iriondo **20:15** Marrazki bizidunak eta zorion agurrak. **20:45** Berriak. **21:15** Jaiak: Eskoriatza,Aramaio,Elgeta. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Jaiak: Eskoriatza,Aramaio,Elgeta**22:15** Berbaire. **22:45** Berriak **23:15** Behazulo.**23:45** Albisteak. **00:15** Emisio amaiera.

Eguaztena, 5
13:15 Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** M2Danbaka. Sharon Stoner **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** Jaiak: Eskoriatza,Aramaio,Elgeta. **15:45**Gaurkoak**15:47**Jaiak: Eskoriatza, Aramaio,Elgeta **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire1. **17:30** Zera dio Zabaleta/Arretxe **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu: Oier Sarasua**19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak. **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis **21:45** Gaurkoak **21:47** Debarri: Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoarekin **22:45** Berriak **23:15** Jaiak: Eskoriatza,Aramaio,Elgeta **23:45** Gaurkoak **23:47**Jaiak: Eskoriatza,Aramaio,Elgeta. **00:15** Emisio amaiera.

Eguena, 6
13:15 Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Harmailatik. **14:15** Zera dio **14:30** M1. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Sustraia. **15:30** M1.**15:45** Gaurkoak.**15:47** Debarri: Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoarekin.**16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jazz. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak.**17:47** Elkartasun bideak.**18:45** Iparrorratza.**18:45** Albiste aurrerapena.**19:00** Klipak. **19:15**: Erreportajea. **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazkiak. **20:45** Berriak.**21:15** Berbaire.**21:45** Albisteak.**22:15** Didjeridu **22:45**Berriak:**23:15** Harmailatik**23:45**Albisteak**23:15** Emisio amaiera.

Uda 2006

ARRASATE MARSANS BIDAIAKen!

adi! Uztaila

Tunisia (Hammamet) 8 egun – Mantenu erdian – 299€-tik aurrera
Karibea 9 egun 7 gau – 4* hotela – 369€-tik aurrera
Brasil 10 egun – Ponta Negra / Via Costeira – 890€-tik aurrera

adi! Abuztua

Fuerteventura 8 egun – Dena barne – 550€-tik aurrera
Ibiza 7 egun – Mantenu erdian – 3* hotela – 433€-tik aurrera
Polonia %40-eko deskontua 2. pertsonak

Hau eta beste eskaintza gehiago ditugu!

UMEAK DOAN
edo deskontu bereziekin.
UDA OSOAN

Zure konfiantza saritu nahi dugu!
Postal bat bidaltzen badiguzu,(Arrasate Bidaiak – Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE) urte amaieran egingo dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu:
BAINUETXE BATEN ASTE BUKAERA ZORAGARRIA!

BIDAIA HANDIETAN ESPEZIALISTAK GARA
Costa Rica, Argentina, Australia, Zeelanda Berria...

Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA

marsans viajes

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

Ekainak 30-Uztailak 7

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

Jaialdia

OÑATI
> II. Gaztetxe Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Eteon

10:30ean hasita, poteoa, jokoak, herri bazkaria, kale agerraldia eta kontzertuak izango dituzte. Kontzertuok 17:00etan eta 20:00etan hasiko dira, eta gaztetxearen auzia dela-eta egongo diren epaiketei aurre egiteko dirulaguntza jasoko dute.

Erakusketa

ARRASATE
> Antonio Oteitzaren eskulturen erakusketa bisitatzeko aukera dago

Antonio Oteitzak, Jorge Oteitzaren anaiak, hogei bat eskultura ditu erakusketan Arregi markoztatze dendan. Brontzezko eskultura espresionistak dira, motibo erlijiosoetan eta herrikoietan inspiratutako artelanak.

Herriko jaiak

ELGETA
> Azoka Nagusia, herriko jai handiena, ospatuko dute etzi, domeka

Ferixa Nagusia izango da goiz osoan. Arratsaldean, perkusio emanaldia eta antzerkia izango dituzte. Asteburu osoan izango dira ospakizunak Elgetan: erromeriak, herri bazkaria, kontzertuak, erretiratuen jaialdia…

Musika

ARRASATE
> Arrasate Big Band taldeak kontzertua egingo du

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza. Jazz estiloa lantzen dute.

Monterron parkean, 22:30ean.

OÑATI
> Leioako abesbatza batek emanaldia egingo du

Leioako San Juan Bautista abesbatzak kontzertua egingo du, Basilio Astulez zuzendari duela. Ganbara Abesbatzak antolatu du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, Agustindarren elizan, 20:00etan.

ESKORIATZA
> Debagoieneko lau rock taldek kontzertua egingo dute

Honako taldeek kontzertua egingo dute: Potemkin (Oñati), Amonal (Oñati), Los Cretinos (Arrasate) eta Klineks (Eskoriatza). Onbide.org elkarteak antolatzen du kontzertua.

Gaur, egubakoitza, txosna gunean, 22:30ean. Sarrera, doan.

ANTZUOLA
> Niko eta Dominika Etxarten eta Mikel Markezen kantaldia

Niko eta Dominika Etxartek eta Mikel Markezek euskal kantu tradizionalak abestuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Antiguako baselizan, 22:30ean.

Jaiak

ESKORIATZA
> Asteburuan bukatuko dituzte San Pedro jaiak

Gaur, egubakoitza, Umeen Eguna, pailazoak, mus txapelketa eta umeen danborrada izango dira, besteak beste; eta bihar, Euskal Jaiaren eguna, trikitilariak, talo eta sagardo jana, herri bazkaria… izango dituzte.

Uztailaren 1ean eta 2an, 4x4 ibilgailuen kontzentrazioa ere izango da, Apotzagako hondakindegian.

OÑATI
> Zubillaga auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Zubillagako auzotarrek ospakizunak izango dituzte: auzo bazkaria, dantzaldia, bertso emanaldia…

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean izango dira jaiak.

ANTZUOLA
> San Martzial jaiak ospatuko dituzte Lizarraga auzoan

Honako ospakizunak izango dituzte, besteak beste: meza, ardo eta txorixo-dastatzea eta auzo afaria (egubakoitza); meza, plater tiroketa, afaria eta erromeria (bihar, zapatua); eta meza, txirrindulari lasterketa eta auzo bazkaria (etzi, domeka).

Jaiak izango dira asteburu osoan.

Lehiaketak

EUSKAL HERRIA
> Elgoibarko kirol argazki lehiaketan parte har daiteke

Kirol argazki lehiaketa antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Ongarri argazki elkarteak. Edozeinek parte har dezake koloretako edo zuribeltzezko argazkiekin. 24 x 30 cm-koak izan behar dute, 30 x 40 cm-ko euskarrian. Gehienez ere lau aurkez daitezke. 200 eta 100 euroko sariak daude, adin multzoka.

Argibide gehiago, *www.elgoibar.org* helbidean.

Mugaeguna, uztailaren 21a.

BERGARA
> I. Film Laburren lehiaketa antolatu berri dute

I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako.

Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa.

Argibideak: *www.bergara.net.*

OÑATI
> San Migel jaien programako azala aukeratzeko lehiaketa

Herriko jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, oñatiarrendako eta Oñatin bizi direnendako. Derrigorrezko testua hau da: *Oñatiko jaixak 2006*. Kultura etxean edo udaletxean utzi behar dira lanak.

250 eta 125 euroko sari bana dago.

PROPOSAMENA

BERGARA
> San Martzialgo erromeria ospatuko dute etzi, domeka

San Martzialen omenezko ospakizunak gaur, egubakoitza, hasiko dira. 07:30ean San Martzialera igoko dira erromesak, letania errezatzen. Horixe izango da ekitaldi nagusia.

Bihar, zapatua, bonba japoniarrak eta buruhandi eta erraldoien kalejira izango dira; eta etzi, domeka, San Martzialgo erromeria egingo dute. 10:00etan, San Martzialera gurdiarekin igoko dira; han, meza eta arratsalde pasa izango dira.

Herri autobus zerbitzua ipiniko dute domekan.

EUSKAL HERRIA
> III. Euskal Herriko Grafiti Lehiaketa antolatu dute

Hirugarren aldiz antolatu du Topaguneak Euskal Herriko grafiti lehiaketa, eta taldeek egin nahi dituzten grafitien zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago abuztuaren 31ra arte.

Argibideak, *gazteak2@topagunea.com* helbide elektronikoan.

Erakusketak

ESKORIATZA
> 'Herri janzkerak' izeneko erakusketa antolatu dute

Baserritarren jantzi tipikoen erakusketa dago Inkernu tabernan.

Uztailaren 1era arte zabalik.

BERGARA
> Usoa Mendikute bergararraren erakusketa

Usoa Mendikute artista bergarar gaztearen margolan erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:30-21:00; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:30-21:00.

BERGARA
> Beart elkarteko ikasleek erakusketak ipini dute

Beart elkarteko ikasleen erakusketa kultura etxean. Ikasle gaztetxoek ikasturte bukaerako erakusketa ipini dute Nahikari tabernan.

Kultura etxean uztailaren 2ra arte eta Nahikarin uztailaren 9ra arte.

Bestelakoak

ARAMAIO
> V. Aramaioko Uda Ikastaroak hasiko dira astelehenean

V. Aramaioko Uda Ikastaroak egingo dituzte hilaren 3tik 6ra. Euskal Herrian 1876-1914 garaia aztertuko dute. Kultura etxean izango da.

Izena emateko, deitu 902 19 96 47 telefono zenbakira.

BERGARA
> Berriketan programakoek afaria egingo dute

Berriketan programaren ikasturte amaiera dela eta, afaria gaur, egubakoitza, Oxirondo elkartean.

Izenematea zabalik dago Jardun elkartean (943 76 08 19).

ARRASATE
> Zeru-behaketa publikoa antolatu du Ilatargi taldeak

Ilargia eta Jupiter eta, beharbada, Saturno ikusteko aukera izango da. Nazioarteko Espazio Estazioa eta Iridium satelitea ere ikusiko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Laubide plazan, 22:30ean.

nire aukera

Peio Garitano
Erretiratua
Bergara

"Etxean ez naiz gelditzen, hankak sano ditut-eta"

Zapatuan, kalean ibiliko naiz gazteekin. Lokatza taldekook Tourreko porra prestatzen gabiltza, eta lasterkarien zerrendak betetzen ibiliko gara.

Domekan, San Martzial eguna ospatuko dugu, eta geratu gabe ibiliko naiz alde batetik bestera: 10:00etan igoko gara, eguerdira arte egongo gara han, porrako paperak-eta banatzen. Mezaren ostean, Alai taldekook abesti herrikoi batzuk abestuko ditugu. Gero, bazkaria eta parranda egingo ditugu, eta umeekin batera jaitsiko naiz.

Zein duzu jai gustukoena?
San Martzial oso berezia da niretako. Pazkoak ere gustatzen zaizkit, batez ere azken eguna.

Zer iruditzen zaizu Pazkoetako giroa azken urteotan?
Neu behintzat gustura ibiltzen naiz beti! Esaten dute jende gutxiago ibili dela, baina jaietan ondo pasatu nahi duenak aukera asko ditu.

Gazteekin gustura ibiltzen zara, ezta?
Bai, horixe. Jaietako herri bazkarira ere joaten naiz, seguruenik ni izango naiz nagusiena, baina... (Barre) Nire burua umetzat dut oraindik. Adinari ez diot begiratzen.

Etxean geratzen zara inoiz?
Ez, sartu ere ez ia! Hanka sanoak ditudan bitartean, hala segituko dut: erretiratuen elkartean, Alai taldean...

Tourrera joango zara?
Urtero joaten naiz, eta aurten ere bai, Pirinioetara joango gara, animatzera.

Zinema

ARETXABALETA
HERRIKO PLAZA

Brokeback mountain
Martitzena: 22:30.

Udalak antolatuta.

Debagoieneko film laburrak
Eguaztena: 22:30.

Loramendik antolatuta. Egileek filmak zelan egin dituzten azalduko dute.

ELGETA
ESPALOIA ANTZOKIA

Snatch, cerdos y diamantes
Eguaztena: 21:30.

ESKORIATZA
HERRIKO PLAZA

El reino de los cielos
Eguaztena: 22:30.

EIBAR
UNZAGA

La profecía
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Cuando llama un extraño
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ
GURIDI

La casa del lago
17:30, 20:00, 22:30.

Scary movie 4
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

El código Da Vinci
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 16:45, 19:40, 22:35.
Domeka: 17:30, 20:30.

Shutter
22:30.

Vecinos invasores
17:00, 16:45, 20:30.

La profecía
17:30.

Las colinas tienen ojos
17:30, 20:00, 22:30.

El señor de la guerra
17:30, 20:00, 22:30.

¡Y tú qué sabes?
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La educación de las hadas
17:30, 20:00, 20:30.

Julieta, fokatxo xelebrea
17:30.

Aaltra (J.B.A.)
17:30, 20:00, 20:30

Hacia el sur
17:30, 20:00, 20:30.

No estoy hecho para ser amado
17:30, 20:00, 20:30

La bicicleta
17:30, 20:00, 22:30.

Malabar princess
20:00, 22:30.

Scary movie 4
17:30, 20:00, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Vecinos invasores
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Sin miedo
20:00, 22:00, 00:30.

Malabar printzesa
16:00, 18:00.

Ice age 2
16:00, 18:00, 20:00.

Misión imposible 3
22:00, 00:30.

Cuando llama un extraño
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

X-Men: la decisión final
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Plan oculto
16:30, 19:00.

Salvaje
16:00, 18:00.

El código Da Vinci
17:00, 20:00, 23:00.

Mala leche
20:00, 22:00, 00:30.

Las colinas tienen ojos
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Rosario Tijeras
22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

En la tiniebla
20:05, 22:25, 00:35.

El asesinato de Richard Nixon
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Vecinos invasores
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

X-Men: la decisión final
18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Ultravioleta
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El código Da Vinci
12:15, 16:15, 17:40, 19:15, 20:40, 22:15, 23:45.

Devuélveme mi suerte
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Salvaje
12:15, 16:30.

Shutter
12:15, 16:05, 18:05.

Salto a la fama
12:15, 16:10.

La niñera mágica
12:15, 16:35.

La profecía
20:15, 22:25, 00:35.

La educación de las hadas
12:15, 15:45, 18:10.

Caos
12:15, 15:50.

Las colinas tienen ojos
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

La casa del lago
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

El señor de la guerra
12:15, 16:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Astérix y los vikingos
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

¡Vaya vacaciones!
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22_15, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

X-Men: la decisión final
12:00, 16:00, 18:10, 20:20.

En la tiniebla
12:10, 17:00, 19:45, 22:10, 00:45.

¡Vaya vacaciones!
12:00, 16:05, 18:15, 20:25, 22:30, 00:45.

Astérix y los vikingos
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Volver
20:00, 22:30, 01:00.

La casa del lago
12:10, 16:20, 18:20, 20:25, 22:30, 00:45.

Ice age 2
12:15, 16:15, 18:05.

Mujeres infieles
22:30, 00:45.

El código Da Vinci
12:00, 16:30, 19:30, 22:20, 01:00.

La profecía
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

Shutter
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:45.

Vecinos invasores
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Ultravioleta
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Devuélveme mi suerte
12:10, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

Camino a Guantánamo ***
Erresuma Batua, 2006. Zuzendariak: Michael Winterbottom, Mat Whitecross. Aktoreak: Ruhel Ahmed, Asif Iqbal, Shafiq Rasul.
100 min. Drama.
Lau lagun britainiar Ingalaterratik abiatzen dira 2001. urtean euretariko baten ezteietara joateko eta, bide batez, Pakistanen oporrak pasatzeko.

Brokeback mountain ****
AEB, 2005. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Heath Ledger.
134 min. Drama.
AEBetako mendebaldeko bi abeltzain gazteren arteko amodiozko istorioa kontatzen du, homosexualitatea isilpean bizi behar izaten duten garai eta gizarte baten. Zuzendari onenaren Oscar saria irabazi zuen Ang Lee-k.

El reino de los cielos ***
AEB-Erresuma Batua-Espainia. Zuzendaria: Ridley Scott. Aktoreak: Orlando Bloom, Eva Green.
145 min. Drama, historikoa...
Balian gerlariaren bizitza eta abenturak kontatzen ditu filmak, eta Erdi Aroan dago girotuta, Gerra Santuaren garaian. Balian Jerusalemera joango da eta han maitemindu egingo da eta Godofredo de Ibelin gerlari handia ezagutuko du.

Las colinas tienen ojos
AEB, 2006. Zuzendaria: Alexandre Aja. Aktoreak: Aaron Stanford, Kathleen Quinlan, Vinessa Shaw.
107 min. Beldurrezkoa.
Carter familia karabanan bidaian doala, karabana hondatu egiten zaie eta basamortuan bakarrik gelditzen dira. Han daudela, konturatuko dira basamortua inguratzen duten mendixketan mutazio genetikoak izan dituzten gizakiak bizi direla, eta goseak daudela...

El señor de la guerra
AEB, 2005. Zuzendaria: Andrew Niccol. Aktoreak: Nicolas Cage, Ethan Hawke, Jared Leto.
122 min. Thrilerra, akziozkoa.
Gerra Hotza bukatu eta gero, arma asko gelditzen dira estatu sobietarretan, eta trafiko sare handia sortzen da. *Yuri Orlov* trafikatzailearen ibilbidea jarraitzen du filmak.

Aaltra
Frantzia-Belgika, 2004. Zuzendaria: Benoit Delépine eta Gustave Kervern. Aktoreak: Benoit Delépine, Gustave de Kervern, Dada Avrel.
92 min. Drama, errepideko filma.
Bi nekazariek elkar ezin dute ikusi. Halako baten, nekazal erremolke batek harrapatu egiten ditu biak eta gerritik behera paralizatuta uzten ditu. Finlandiara bidaiatuko dute, erremolkearen egileari kontuak eskatzeko...

Devuélveme mi suerte
AEB, 2006. Zuzendaria: Donald Petrie. Aktoreak: Lindsay Lohan, Chris Pine, Falzon Love.
93 min. Komedia dramatikoa.
Ashley Albright zorte oneko neska da, bizitzako gauza on guztiak erraz-erraz iritsi zaizkio... *Jake* ezagutu eta muxu batek gauzak aldatzen dituen arte.

Scary movie 4
AEB, 2006. Zuzendaria: David Zucker. Aktoreak: Anna Faris, Regina Hall, Simon Rex, Leslie Nielsen.
84 min. Komedia.
Cindy Campbell, aurreko Scary Movie filmetako protagonista, behar ez den tokian egongo da berriz ere. Oraingoan, mamuek hartutako etxe beldurgarri baten bizi den atso beldurgarri baten langile moduan jardungo du.

Hacia el sur ****
Frantzia, 2005. Zuzendaria: Laurent Cantet. Aktoreak: Charlotte Rampling, Karen Young.
105 min. Drama.
80ko hamarkada hasieran, Haiti Baby Doc-en diktadurapean bizi da. Hala ere, turista asko doaz hara. Horien artean, emakume frantziar talde bat iritsiko da, esperientzia berrien bila.

Mala leche
Frantzia-Espainia, 2003. Zuzendaria: Patrick Alessandrin. Aktoreak: Thierry Lhermitte, Leonor Watling, Ophèlie Winter.
90 min. Komedia.
Simon Variot arkitektura ikasle bikaina da, baina *Vincent Porel*-ek, munduan gorroto handien dion gizonak, autoz harrapatuta hil egingo da. Baina *Porel*-en semea jaiotzen da handik gutxira, eta *Variot* umearen gorputza hartuta itzultzen da mendekua hartzeko.



Una historia de Brooklyn ***

Zuzendaria: Noah Baumbach.
Aktoreak: Jeff Daniels, Laura Linney.
AEB, 2005.
88 min. Drama, komedia.

Jatorrizko izenburuaren itzulpena *Txibia eta balea* bada ere, gaztelaniaz jarritako izenburua *Una historia de Brooklyn* izan da. Ez zegoen horrelako itzulpenik egin beharrik, baina, eginez gero, hobe izango zen *Brooklyngo istorio txiki bat* jartzea. Txiki adjektiboak ederki islatzen du film honen izaera. Kontatzen zaigun istorioa askotan ikusitakoa da: bikote bat urte dezente ezkonduta egon eta gero, banandu egiten da. Bikoteak bi seme ditu, eta gurasoen jarrerek eta euren arteko arazoek semeengan dituzten ondorioak ikusiko ditugu. Baumbach ez da sakontasun gehiegitan sartzen, kontatzen duen istorioa familia baten istorio arrunt bat besterik ez da, eta hori egiteko, 90 minutu bakarrik erabiltzen ditu.

Filmaketa 23 egunetan egin zen, zuzendariak ez du zaintzen gehiegi irudien apaindura, kamara asko mugitzen du, eta 1986ko garaian murgildu nahi gaitu. Gidoian eta aktoreen lanean daude U*na historia de Brooklyn*-go osagai nagusiak. Istorioa ez da oso aberatsa; kasu konkretu bat eta pertsonaia batzuk modu nahiko egokian deskribatzen ditu. Jeff Daniels eta Laura Linney aktore bikainak dira eta Jesse Eisenberg eta Owen Kline aktore gazteekin batera euren pertsonaiei sinesgarritasuna eta epeltasuna ematen diete (filma Bilboko zinema baten jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin estreinatu da, eta horrela aktoreen lana askoz hobeto balora daiteke). Osagai horiekin, oso originala ez den eta monotonoa izan zitekeen istorioak interesgarria izatea lortzen du.

Antonio Zabala

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
SARRERENSALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2006/07/31 , astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2006-06-30

Tourreko tropelaren zain

ARRAKASTA Ibarreko porrarik ezagunena da Monte tabernakoa, 1.000 partaide ingururekin

HERRIKOIA San Martzialgo erromerian koadrila askok hartzen dute parte Lokatzaren porran

ZALEA Tourrean inoiz egon ez den arren, telebistatik egunero jarraitzen du Tourra Juan Carlos Davilak. XABI URTZELAI

EDU MENDIBIL > BERGARA

Mundiala azken txanpan sartzen ari den honetan, Tourra abian jarriko da bihar, Estrasburgon, kirolzaleen gozamenerako. Zoritxarrez, Armstrongen ordezko posibleek baino zeresan handiagoa eman dute berriz ere dopin kontuek Tourraren atarian. Dena dela, frantziarrek harro dioten moduan, "Le tour c'est le tour", eta gurean ere ikusmin handia sortu du Frantziako Itzuliak. *Informazio ezkutua* darabilten zaleek badaukate faboritoen zerrenda han eta hemen antolatzen dituzten porra edo kinieletan.

EUSKAL HERRI OSOTIK

Ibarreko porrarik ezagunena da Arrasateko Monte tabernakoa. 1992an hasi zirenetik gero eta jende gehiagok hartzen du parte. Aurten 1.000 lagun izango direla diosku Juan Carlos Davila Monteko jabeak: "Euskal Herri osotik dator jendea. Mungiako koadrila batek 50 zerrenda egin zituen iaz eta partaideen artean Roberto Laiseka izan genuen. Porra egiteko epea bukatu baino lehen izugarrizko jende ilara luzea sortu zen...". Apustuak 30 euro balio du eta irabazleak 12.000 euro inguruko saria irabaz dezake Arrasaten: "Benetako adituak egoten dira partaideen artean".

Bergaran, Lokatzak hirugarren urtez antolatzen du porra. Julen Narbaizak dioenez, "koadrila askok hartzen dute parte, eta apustu gehienak San Martzialgo erromerian jasotzen ditugu". Partaideek 20 euro ordaindu behar dituzte eta zerrenda irabazleak batutako diruaren erdia eramango du: "Guretako 300 partaide inguru lortzea oso ondo dago. Horren bueltan ibiliko gara".

Euskara eta teknologia berriak uztartzen dituen Tropela Elkarteak Internet bidez porra egiteko aukera eskaintzen du, doan (*www.tropela.net*). Euskarak sarean duen presentzia indartzea da helburuetako bat. Sarien artean, hainbat txirrindulariren maillotak banatuko dituzte.

Bihartik aurrera, telebista ikusten edo Pirinioetan bakoitzaren txirrindulari kuttunak animatzea baino ez da geratzen.

ahobero

"PSOE euforiko dago su-etenarekin, ze horrek balio dio boterean iraunarazteko"

Maria San Gil > Euskadiko PPren presidentea

Arrazoi du San Gilek; izan ere, bakea lortuko balitz, horrek mesede egingo lioke boterean dagoenari. Hala ere, PP boterean egon da Madrilen orain dela gutxira arte eta ez du ezer egin su-etenaren alde. Alderantziz, boterean iraunarazteko eta botoak lortzeko eraso egin dio euskal nazionalismoari.

iturri onetik

Zezenketa egingo dute zapatuan, Elgetako Azoka Nagusiko jaietan

Orain dela 25 urte egin zen zezenketa handia gogora ekartzeko, beste zezenketa bat antolatuko dute Elgetan zapatu arratsaldean. Hala dio gure eskuetara heldu den kartelak: "Zezenketari gazte eta trebe hauek: El niño de la Capela, El Rubito de Salbador, El concejalillo eta Alex de Miren. Izen handiko Gorixo ganadutegiko zezenen aurrean ibiliko dira". Orain dela 25 urte oso sonatua izan zen.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Rosaren kioskoa

Mariano Ferrerek Rosi zuen bezala, nik badut lagun bat Rosa izenekoa, prentsa saltzailea. Nire Rosaren kioskoa ez dago Donostiako Abenidan baizik Arrasateko Garibai kalean. Urte luzez egon zen Biteri plazan, hango aparkalekuaren lanak hasi ziren arte.

Gaur, Rosaren alde egin nahi dut. Eta ez laguna delako, baizik justizia eske. Rosaren kioskoa desagertzeko zorian dago. Udalak eraikin berria egin du plazan, eta haren zati bat jarri nahi du errentan kiosko gisa, esleipena lortu eta egokitzeko inbertsioa egiten duenaren esku. Rosari inongo eskubide historikorik aitortu gabe.

Udalak ezin du enpresa bat itxi eta hiru lanpostu enkantean jarri. Legezko prozedurak ezin dira bihurtu mehatxu herritarrentzat. Non sinatu behar da, Rosa?

ai, ene!

Karro dotorea umea pasioan ateratzeko

Badira gaurko umeek gero eta erosotasun handiagoak dituztela diotenak. Argazkiko karro dotorea ikusita ez da zalantzarik...

http://tinyurl.com/oqtf8

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76
UNITED COLORS OF BENETTON.